



Kaparren
ugaritzeak kezka
sortu du

Leire Fernandez
EHUko irakasleari
elkarrizketa



BAINU DENBORALDIA ABIAN ASTELEHENETIK AURRERA, NEURRI BEREZIEKIN

Bergarako igerilekuak eta Oñatiko
Usako irekiko dituzte 22an; ur
parkeak ere prestatzen ari dira / 4

Garbiketa lanak egiten Bergarako Agorrosingo
kanpoko igerilekuan, atzo, eguena.

XABIER URZELAI

**Hiru hilabeteko
larrialdi egoerari
agur, eskualdean ia
500 COVID-19 kasu
positibo metatuta** / 2

**Oñatiko Eltzia gunea
irekitzea erabaki dute
eragileek eta Udalak,
baina protokoloa
landu beharko dute** / 53

**Gaurtik aurrera
berriro ere zabalik
dira Arrasateko
Gipuzkoa etorbideko
bi erreiak** / 10

**Shot!-eko Iñaki
Bengoaren iritziz,
"tristeia da izurritea
etorri behar izatea
sektorea batzeko"** / 57



SANJUANEN GEHIGARRIA / 23

SINADURAK



IRATI
ITZIAR / 8



ANDRES OSA
'SAKONA' / 48



XABIER
IGARTUA / 51



AGURNE
BARRUSO / 64

SKODA KODIAQ

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 30 • ARRASATE • 943 71 18 70

Eneko Azurmendi ARRASATE

Gauerdian sartu da Euskal Autonomia Erkidegoa *normaltasun berria* deiturikoan, eta horrek hainbat neurri deuseztatzea ekarri du. Esaterako, ez da elkartzeko pertsona kopurua mugatuko. Aurrerantzean, halere, herritarrek maskara erabiltzen jarraitu beharko dute leku itxietan eta 1,5 metroko segurtasun distantzia mantendu ezin duten leku publikoetan. Horrez gain, jende pilaketak saihestu beharko dituzte, eta garbiketa neurri garrantzi berezia ematen jarraitu beharko dute.

Enpresetan, ostalaritzan eta garraio publikoan neurriak hartzen jarraitu beharko dute gaurtik aurrera ere, langileen zein bezero edo erabiltzaileen distantziak mantenduz, sarrerak eta irteerak kontrolatuz eta garbiketa zorrotz mantenduz.

Hirugarren fasean moduan, joan-etorriak erabateko askatasunez egin ahal izango dituzte herritarrek EAE barruan, eta orain, baita Kantabriara ere, fase berrian sartu baita probintzia hori ere. Ipar Euskal Herriarekiko mugari dagokionez, domekan, hilaren 21ean, irekiko dute. Nafarroako muga zeharkatzeko, berriz, astelehenera arte itxaron beharko dute herritarrek, orduan indargabetuko baitu alarma egoera Txibiteren Gobernuak.

KORONABIRUSA DEBAGOIENEAN GSR DEBAGOIENAKO EGOILIAR BAKARRA GERATZEN DA KASU POSITIBO MODUAN

Debagoieneko egoera epidemiologikoari dagokionez, kutsatu kopurua nahiko egonkortuta egon da azken asteetan, baina agertu dira kasu bakanen batzuk. Deigarriena Aita Menni ospitalekoa izan da. Izan ere, aurreko zapatuan, administrazio arloko lau langilek eta babespeko etxeetako batek positibo eman zuten PCR proban, eta ikerketa abiatu zuten. Asteon, probak egin dituzte berriro, baina emaitzen zain daude, Iñaki Revuelta komunikazio arduradunak azaldu duenez. "Bost kutsatuekin kontaktuan egondako langile zein pertsona ere probak egin dizkiete eta laster jakinaraziko ditugu emaitzak. Onak badira, normaltasuna berreskuratuko



Osasun langileen geldialdia, Debagoieneko Ospitalean. GOIENA



Hainbat salaketa jarri dituzte Udaltzaingoa eta Ertzaintzak. G.



Maskaren erabilera egunerokoaren parte bilakatu da. GOIENA



Javier Egia 88 urteko gizonezkoak alta jaso zuen eguneko. G.

Jaurlaritzak bukatutzat eman du hiru hilabete iraun duen alarma egoera

Gaur, egubakoitza, indargabetu du Eusko Jaurlaritzak alarma egoera, eta, beraz, EAE 'normaltasun berria' deiturikoan sartu da gauerdian. Hala, txertoa iritsi bitartean, musukoa derrigorrez erabili beharko da 1,5 metroko tartea mantendu ezin denean

dugu Aita Menni ospitalean", azpimarratu du. Era berean, gaineratu du bestelako probetan ere ez dutela positiborik baieztatu aste honetan ospitalean.

Nekane Murga Osasun sailburuak, bestalde, azaldu du egoerari jarraipena egiten ari direla, Debagoienez foku berririk ba ote dagoen jakiteko.

Adinekoen egoitzei erreparatuta, orain arte, Arrasateko Iturbide egoitzan 55 sendatu eta 26 heriotza izan dira guztira; Eskoriatzako Jose Aranan, bi sendatu; eta Aretxabaletako GSR Debagoienan, 31 sendatu eta zazpi heriotza. Kasu aktibo bakarra geratzen da Aretxabaletakoan, Eibarko ospitalean. Bergarako Mizpirualde eta Oñatiko San Martin egoitzetan ez dute kasu positiborik baieztatu krisia hasi zenetik.

Kutsatuak Debagoienez

	Positiboak metatuak	100.000 biztanleko kutsatza tasa
Arrasate	248	1.126,30
Aretxabaleta	62	887,36
Bergara	54	369,96
Oñati	50	441,11
Eskoriatza	15	367,01
Elgeta	8	704,85
Antzuola	7	327,72
Aramaio	5	337,15
Gatzaga	0	000,00
Guztira	449	701,45

ITURRIA: OSAKIDETZA

UMEENDAKO AISIALDIA UDAN UDALEKUAK EGITEKO IRIZPIDEAK ARGITARATU DITU EUSKO JAURLARITZAK

Aurtengo udalekuak eta aisialdi jarduerak egiteko arauak azaldu ditu Eusko Jaurlaritzak. Beatriz Artolazabal Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak jakinarazi duenez, jardueren arauketa astialdiko erakundeek, foru-aldundiek eta udalen sareek eginiko ekarpenak "egiaz-tatu eta batu" ostein egin dute.

Modu horretan, eguneko udalekuean nahiz gauak igarotzeko udalekuean, parte-hartzaile kopurua %60ra murriztuko da -aire zabalean, espazio itxietan eta jantokietan-. Hala ere, aire zabaleko jardueretan gehienez

200 parte-hartzaile egon ahalko dira, eta espazio itxietan, 80-bi kasuetan, monitorea barne-.

Kontuan hartu beharko da, gainera, jarduerak garatu bitartean parte-hartzaileek gehienez hamabost pertsonako taldeetan egon beharko dutela, eta kirol-edo arte-jarduerak kontakturik gabe eta publikorik gabe egin behar direla.

Jantokietan, jantokietan artean bi metroko distantzia egon beharko da, eta txandak ezarri beharko dira -edo manparak jarri-. Jantoki irekien kasuan, berriz, 1,5 metroko distantzia ezarriko da, eta pertsona bakoitzak bere plateretik jan beharko du.

Gaua pasatzeari dagokionez, ohatzea erabiltzen bada, pertsona bakarrak egingo du hor lo. Gutxienez, bi metroko distantzia gordeko da ohe okupatuen artean, edo barrera-neurriak jarriko dira. Kanpadenden kasuan, denda bakoitzeko pertsona bakarrak baino ezingo du bertan lo egin. Halere, parte-hartzaileak bizikideak badira, denda bera erabili ahalko dute.

Bestalde, jolas-parkeak irekitzen hasi dira asteen Hego Euskal Herriko hainbat herritan; Ataunen, esaterako. Debagoienez, orain arte, ez dute oraindik jolas-parkerik ireki. Udalak aukerak aztertzen ari dira, eta datorren astetik aurrera erabaki zehatzagoak hartzen hasiko dira. Oñatin, adibidez, jolas-parke batzuk garbitzen hasi dira kale garbitzaileak.

EGUNEKO ZENTROAK MARTXAN DIRA EGUNEKO ZENTROAK ERE, EDUKIERA MUGATUAREKIN

Eguneko zentroak ere hasi dira eguneroko martxa hartzen. Aramaiokoak, esaterako, astelehenean ireki zituen ateak, erabiltzaile erdiekin. "Zortzi dira, baina lauko bi talde egin ditugu, eta egunaren arabera talde bat edo bestea etortzen da zentrori. Ekainaren 29ra arte horrela jarraituko dugu, eta gero ikusiko dugu zortzi erabiltzaileak elkarrekin etorri ahal izango diren edo ez", azaldu du Karmele Barrutia langileak.

Zentroaren distribuzioa aldatu egin dute. "Mahaiak distantzietara egokitu ditugu. Lehen, hiru mahai genituen bata bes-

tearen ondoan, eta ekintzak eta jatorduak han egiten genituen, elkarrekin. Orain, mahai bakoitzean bi pertsona egon daitezke, gehienez, eta mahaiak sakabana-tuta. Gu maskarekin ibiltzen gara eta erabiltzen dituzten material guztiak garbitu egiten ditugu. Gainera, orain, bakoitzak bere materiala dauka, izenarekin", gaineratu du Barrutiak.

Oraingoz, guztiak "pozik" dardela dio. "Kontu-kontari ari dira, gauza asko dituzte elkarri kontatzeko, eta pozik daude. Oro har, poztasun giroa da nagusi zentroan", nabarmendu du.

Elgetakoa, bestalde, ekainaren 8an zabaldu zuten. "Mahai berri batzuk, hankak desinfektatzeko alfonbra berezi bat, eta abar jarri ditugu, eta eguneko zentroaren eta garraioaren berrantolaketa ere egin dugu, besteak beste", azaldu du Naiara Unamuno Gizarte teknikariak.

Duela bi aste, bost pertsonarekin hasi ziren funtzionatzen, nahiz eta zazpi plaza dauden onartuta. "Seigarren pertsona sartzeko itxaroten gaude, Gipuzkoako Foru Aldundiak abisatu arte", nabarmendu du Unamunok.

Jangela zerbitzua gelditu da. "Itxaroten ari gara zerbitzua martxan jartzeko, ikusi arte ea nola moldatzen garen espazioaren berrantolaketaarekin".

EPAITEGIAK

BERGARAN DATORREN ASTEAN HASIKO DITUZTE EPAIKETAK, NEURRIKIN

Bergarako epaitegian, fasez fase itzuli dira lanera. "Hasieran,

guardiako epaitegiko langilea bakarrik etortzen zen, eta beste epaitegietako langileak txandakatzen etortzen ginen. Horren ostean, langileen %30-40 itzuli ginen lanera; gero, %60-70; eta aurreko astetik, langile guztiok", azaldu du Nerea Amalur epaitegiko kudeatzaile prozesalak.

Ekainaren 4an, etenda zeuden epe prozesal guztiak martxan jarri zituzten berriz, eta hilaren 8tik aurrera, epaiketarako egunak jartzen hasi ziren, deklarazioak eta delitu arinei buruzko

epaiketenak. "Halaber, datorren astetik aurrera, lehenengo epaiketak egiten hasiko dira".

Egunerokoan hainbat neurri hartzen ari dira. "Musukoarekin sartu beharra dago, eta sartzeko eskuak garbitu. Normalean, zitazioa ordu jakin baterako izanik, bost minutu lehenago uzten zaie sartzeko, eta behar den hori egiteko bakarrik. Epaiketak egiten hasten direnean ere, kanpoan zain egon beharko dute. Marra batzuk jarri ditu Udalak, itxoterakoan distantzia

mantentzeko". Horrez gain, mostadoreetan panelak jarri dituzte, bezeroekiko kontaktua saihesteko. Modu berean, deklarazioak epaiketa geletan egiten dituzte orain, maskarekin.

Amalurrek nabarmendu duenez, ez dute lan pilaketarik sumatu. "Beste epaitegi batzuetan, hiriburuetan-eta, bai, baina Bergarakoan ez dugu nabaritu lana pilatu zaigunik eta ez dugu demanda askorik pilatuta. Hau, beste batzuekin konparatuta, epaitegi lasaia da", dio.

Arrasateko eta Oñatiko bake epaitegietan, Eusko Jaurlaritzaren neurrien zain jarraitzen dute oraindik. "Ez dakigu nola jokatu behar dugun", dio Arrasateko epaitegiko langile batek. Halaber, Oñatiko langile batek dio espero dutela astelehenean informazio gehiago iristea. Ehorzketaz lizentziatarako edota heriotzen idatzoharrak egiteko aritu dira lanean gehienbat. "Une oro egon da langile bat telefonoa hartzen, baina ez dugu ohiko zerbitzurik eman. Deitzen zigitenean, esaten genien ezin genuela zerbitzurik eman eta hau guztia pasatakoan deitzeko".

Hiru hilabete hauetako hamar mugarri

- **MARTXOAK 3** Lehen COVID-19 kutsatua baieztatu zuten Debagoienean.
- **MARTXOAK 12** Bailarako ikastetxe guztiak itxi zituzten, Jaurlaritzaren aginduz.
- **MARTXOAK 15** Alarma egoera indarrean jarri zuen Espainiako Gobernuak.
- **APIRILAK 9** Kutsatu kopuru altuena izandako eguna izan zen bailaran: 29 kutsatu
- baieztatu zituzten 24 ordutan, horietatik 26 Arrasaten.
- **APIRILAK 26** Umeak kalera irteten ahal izan ziren, konfinamenduaren ostean.
- **MAIATZAK 2** la bi hilabete itxialdiaren ostean, jarduera fisikoa egiteko baimena izan zuten debagoiendarrek.
- **MAIATZAK 11** Konfinamendua arintzeko lehen fasea hasi zen.
- **MAIATZAK 25** Konfinamendua arintzeko bigarren fasea hasi zen.
- **EKAINAK 8** Hirugarren fasea hasi zen, eta Eusko Jaurlaritzak hartu zuen erabakiak hartzeko eskumena.
- **EKAINAK 19** Gaur, egubakoitza, alarma egoeratik irteten da Euskal Autonomia Erkidegoa, eta "normaltasun berria" deiturikoan sartu da.

Teilatukoak solariumarekin
Behoko solairuak txokoarekin
Terrazak

Gimnasioa eskusiboak egoiliarrentzat

2 eta 3 logela

2 logela 146.000 €-tik aurrera

lorentxoko
P23 · bizigune berria

BERGARA · www.lorentxoko.com


Bizitzaren mamia

grupo eibar
inmobiliario
www.grupoeibar.com

Merkatuaren joerei jarraituz, **GRUPO EIBAR** entzun egin du, eta azken edizio honetan: **Lorentxoko P23k kalitate bikainari, pertsonalizatzeko aukerei eta terrazetara eusten jarraitzen du, baina aurreko edizioetan baino etxebizitza estuagoak ditu metroetan eta prezioetan. Horrez gain, zure ongizaterako espazio komunak ere barne hartu ditu, hala nola egoiliarrentzako gimnasio eskusiboa, plazak eta haur-parkeak. Zatoz Bergarako gure bulegora! Eta ezagutu itzazu.**

E: comercial@grupoeibar.com

GRUPO EIBAR-EN BULEGOA: 943 31 66 11
Ernal 1 · 20570 BERGARA. **650 44 21 59**



Usakoko putzua eguaztenez; urpekarien azterketa pasata, bainulariak hartzeko prest. M.S.

Baldintza bereziekin izan arren, bainu denboraldia hastear da bailaran

Bihar iritsiko da uda, eta, horrenbestez, bailarako igerilekuek bainu denboraldiari ekingo diote, pixkanaka. Aretxabaletako igerilekua zabalik dago; eta gainontzekoek datozen egunetan irekiko dute. Ur-parkeak udari harrera egiteko prestatzen ari dira

Maialen Santos DEBAGOIENA

Bihar, ekainaren 20an, egingo zaio ongiatorria udari, eta, sasoi horri jarraiki, Debagoieneko bainutokiak azken prestaketa lanak egiten ari dira, pixkanaka zabalitzen joatea helburu.

Igerilekuetan, dena prest

Uztaileko lehen astean zabalduko dituzte Arrasateko kiroldegiko kanpoko igerilekuak, baina baldintza berezietan; ez dute eguneko sarrerarik salduko eta soilik abonatuak erabili ahal izango dituzte. Gehienez, 250 lagun sartuko dira, alde aurretik txanda hartuta: asko jota, 48 ordu lehenago; eta, beranduenez, bost ordu lehenago. Hala, 09:30 eta 10:30 artean, soilik igeri egitera joan ahalko da –gehienez ere, 16 arituko dira aldi berean–. Eguzkia hartzeko edo bainatze-ko lau orduz ezarri dituzte:

11:00-13:00; 13:30-15:30; 16:00-18:00; eta 18:30-20:30. Saunak, bestalde, ez dituzte irekiko, momentuz.

Uxarteko igerilekua, osteran, ekainaren 23an irekiko dute, "ziur aski", bertako arduradun Mikel Uribarrenek azaldu duenez. 10:00etatik 20:00etara izango da zabalik. Kontingentzia plan bat egin dute, segurtasun neurri guztiak bermatuta egon daitezela: "Erabiltzaileen segurtasuna indartzea da helburua, segurtasun tartea mantenduz eta instalazioen higiene neurriak zorrotz", azaldu du arduradunak. Sarbidea ezberdina izango

ARETXABALETAKO DA DAGOENKO ZABALIK DAGOEN BAILARAKO IGERILEKU BAKARRA

da, eta uretan zein kanpoan bi metroko distantzia bermatu beharko da une oro. Edukiera ere kontrolatu egingo dute, baita eremu komun garbiketa eta desinfekzioa "indartu" ere.

Bergaran, bestalde, ekainaren 22an, astelehenean, irekiko dituzte barruko zein kanpoko igerilekuak. Azken hauek jolasik gabe irekiko dira, legeak txirrista eta iaz instalatu ziren kanpoko umeen txorrotak itxita izatera derrigortzen du eta. Kanpoko igeritokia egunero egongo da zabalik, 10:00etatik 20:00etara –14:30etik 15:30era itxi egingo da garbiketa egiteko–; 525 laguneko edukiera izango du, eta eremua zabalik dagoenean erabili ahal izango dira ohiko berdegunea eta Ipintza futbol zelai erdia eguzkia hartzeko. Kanpoko igeritokiko erabiltzaileek, baina, ez dute aldagarik

izango. Igerilekura sartu ahal izateko txanda sistema jarriko dutela azaldu du Kirol zinegotzi Aitor Arantzabalek. Abonatuak astelehen lehenago har dezakete txanda eta eguneko erabiltzaileek, egunean bertan.

Aretxabaletako igerilekua da dagoeneko zabalik dagoen bakarra. Astelehen honetan zabaldu dituzte ateak –joan den astean kiroldegia ireki eta gero–. Astelehenetik aurrera honako orduetegi hau izango du igerilekuak: astelehenetik egubakoitzera, 08:00-14:00 eta 16:00-21:00; eta zapatuetan, 10:00-14:00 eta 16:00-20:00. Udaletik adierazi dute ez dela beharrezkoa izango aurretiko hitzordua eskatzea, baina edukierak eta denborak mugatu egingo direla. Igerilekuak goizeko ordutegian 25 erabiltzaile hartuko ditu; arratsaldean, 35.

Eskoriatzan, azkenik, uztaileko lehen astean irekiko dute kiroldegia, eta horrekin batera igerilekua. Txandarik ez dute egingo, baina "segurtasun neurri guztiak" hartuko dituztela adierazi dute Udaletik. Horretaz gain, azaldu dute irekiera data "atzeratu" egin dutela; zabalte-rako orduan edukiera mugak malguagoak izan zitezela.

Usako ere astelehenean

Astelehenean, ekainaren 22an, zabalduko dute Usako. Aurten, gainera, bi sorosle eta zaintzaile bat jarriko dituztela azaldu du Udaleko Kirol zinegotzi Maite Antonek; bi horiek, ur eremua kontrolatzeko, eta zaintzailea, aldiz, gunea osoa zaindu eta "segurtasun neurriak" betetzen direla ziurtatzeko. 15:00etik 21:00etara izango dira sorosleak eta zaintzailea Usakon. Dagoeneko urpekariak egin dute azterketa, eta belarra ere moztu dute. Azkenik, zakarrontziak jarri dituzte inguruetan.

Ur-parkeak, prestatzen

Oñatiko ur-uhinen parkea uztailearen lehen zabalduko dute, ziur aski. Maite Antonek adierazi du aurten "begirale bat" jarriko dutela bertan, eta txandak egingo dituztela, "aglomera-

IGERILEKUETAN ETA UR-PARKEETAN EZOHICO BALDINTZAK ZEHATZU DITUZTE OSASUN KRISIAGATIK

Bailarako bainutokiak irekiera data

Bainu denboraldia egun hauetan hasiko dute:

Arrasate

- **Kanpoko igerilekua:** uztaileko lehen astean.
- **Uxarte:** ekainaren 23an.

Bergara

- **Barruko igerilekua:** ekainaren 22an.
- **Kanpoko igerilekua:** ekainaren 22an.

Aretxabaleta

- **Barruko igerilekua:** ekainaren 15az geroztik zabalik.

Eskoriatza

- **Barruko igerilekua:** uztaileko lehen astean.

Oñati

- **Usako:** ekainaren 22an.

razioak" saihesteko. Hala, ordu erdi inguruko txandak zehatzuko dituzte, eta 15 ume inguru egon ahal izango dira aldi berean parkean. Ordutegia honako hau izango da: goizez, 11:00-13:00; eta arratsaldean, 15:00-20:00. Horretaz gain, parkearen "funtzionamendua hobetzeko", oinezko ibilbideak "hobetu" dituzte, baita heskaia landatu ere.

Antzuolan, Sagasti auzoko ur-jolas-parkea datorren astean, martitzenean, zabalduko du Udalak. 10:00etatik 20:00era bitarteko ordutegia izango du, eta begiraleak jarriko dituzte bertan, neurriak "zorrotz" betetzen direla ziurtatzea helburu (Ikus 44. orria).

Arrasateko ur-parkea asteon inauguratu dute, Santa Barbara parkean. Udaletik azaldu dute "egoerak uzten badu" uztailean zabalduko dutela. 300 metro koadro eta 21 ur-joko izango ditu parke berriak (Ikus 11. orria).

Azkenik, Aramaioko ur-parkea ere zabalteko asmoa dutela azaldu dute Udaletik, baina aitortu dutenez, ireki ahal izateko baldintzak zehazteko "lanean" ari dira oraindik.

Hasi dute maskaren produkzioa Wolfratex-en

Bergarako Lazpiur, Enbalan3 eta IDR eta Mendaroko Egile enpresek lankidetzan sortutako proiektua da. Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundiko eta Bergarako Udaleko ordezkariak bisita egin zuten atzo, eguena, Larramendi industrialdeko lantokira

Maialen Santos BERGARA

Bergarako Lazpiur, Enbalan3 eta IDR eta Mendaroko Egile enpresek maskara kirurgikoak egiteko sortu duten Wolfratex enpresak ekin dio produkzioari, Bergarako Larramendi industrialdean. Bertan izan ziren atzo goizean bisitan Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Bergarako Udaleko ordezkariak. Wolfratexeko kontseilariak: "Makinak fabrikatzeko baliabideak eta teknologiak ditugu, baita hemengo materiala ere. Gauzak horrela, etorkizunean sor ditezkeen beharrak betetzeko arazorik ez genuke edukiko".

Abuzturako, 28 milioi maskara

Ekainaren 5ean fabrikatu zituen lehen maskarak Wolfratexek, eta momentu honetan, hilean 7

milioi maskara sortzeko gaitasuna duten bi makina ditu martxan; bederatzi langilerekin. Datorren astean, beste bi makina eta zortzi langile gehiago hasiko dira lanean, eta aurreikusten dute abuzturako hilean 28 milioi maskara sortu ahal izatea. Gehiago fabrikatzeko "gaitasuna" ere izan dezaketela azaldu zuen kontseilariak: "Makinak fabrikatzeko baliabideak eta teknologiak ditugu, baita hemengo materiala ere. Gauzak horrela, etorkizunean sor ditezkeen beharrak betetzeko arazorik ez genuke edukiko".

Bergarara egindako bisitan, Markel Olano diputatu nagusiak gogora ekarri zituen koronabirusaren krisiaren momentu

**EKAINAREN 5AZ
GEROZTIK ARI DIRA
MASKARAK EKOIZTEN
LARRAMENDI
INDUSTRIALDEAN**

gorenean osasun materiala lortzeko izandako "zailtasunak", eta egoera horretan industriak egiten duen ekarpena azpimarratu zuen: "Pertsonak eta lana ditugu, eta fabrikatzeko ahalmena. Beraz, proiektu honek ahalmen propioa ematen digu". Ildo beretik hitz egin zuen Industria sailburuorde Javier Zarraonandiak; osasun krisian erakunde publiko eta enpresa pribatuaren artean egon den "lankidetzan" jarri zuen indarra, eta gaineratu zuen "orain arte bezala" aurrerantzean ere Wolfratexek Jaurlaritza "bidelagun" izango duela. Gorka Artola Bergarako alkateak, bestalde, enpresen arteko elkarlana gorai patu gura izan zuen: "Bergaran badaramagu urte dezente elkarlana bideratzen, eta hau litzateke emaitza". Enpresako ordezkariak azaldu zuten Foru Aldundiak milioi bat maskarako eskaria egin diola Wolfratexi; eta Osakidetza, bestalde, zortzi milioikoa.



Asteon Donostian egindako prentsurrekoaren ostekoa. EUSKARALDIA

Askotariko erakundeek egin dute bat Euskaraldiarekin

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo dute edizio berria. Ariguneak izango dira nobedade nagusia

M.S. DEBAGOIENA

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean aurreikusten dute Euskaraldiaren bigarren edizioa egitea. Asteon Donostian egindako prentsurrekoan adierazi dute edizio honen berrikuntza nagusia ariguneak direla; era guztietako erakunde, enpresa eta elkarteetan sortzen diren euskara erabiltzeko gune babesituak, alegia. Eta aitortu dute ehunka zentrotan "milaka arigune" sortu direla.

Gauzak horrela, dagoeneko ariguneak osatzen hasi diren hiru erakundetako ordezkariak

zein Euskaraldiaren antolatzaile eta koordinatzaileak izan dira prentsurrekoan; tartean, Leire Okarantza, Fagor Taldeko gestio sozialeko arduraduna.

Euskaraldiaren bigarren edizio honi esker enpresa batzuek aurretik lantzen ari diren ibilbideari jarraipena emateko aukera izango dutela azaldu dute; eta beste erakunde batzuek, aldiz, euskararen erabilera bultzatzeko espazio berriak sortzeko eta babesteko aukera. Hain justu, irailaren 27ra arte eman ahal izango dute izena entitateek Euskaraldiaren edizio berrian.

Lantokian izandako lan istripua salatu dute Avanzako langileek

Garraio publikoaren sektoreko Avanza taldeko langileek elkarretaratzea egin dute asteon, "konponbide" eske

M.S. ARRASATE

Avanzako enpresa batzordeak, ELA, UGT, LAB eta ESK sindikatuek eta autobus-gidariak elkarretaratzea egin dute asteon, Arrasateko autobusen gordelekuan dagoen hornidura eremua "konpondu dezatela" eskatzeko. Agustin Gorostegi enpresa batzordeko kideak adierazi du toki hori "oso irristakorra" dela, "are gehiago gasolioa erori eta euria egiten duenean". Gainera, eremu hori garbitzen ez dutela ere salatu gura izan dute. Gorostegik aitortu du iaz salaketa jarri

zutela Avanza taldearen aurka, eta lan ikuskaritzak langileei "arrazoia" eman ziela. Bere hitzetan, enpresak oraindik ez du "erantzunik" eman, eta, beraz, berriro jarri behar izan dute salaketa. Ekainean gertatutako istripuak salatzeke ere baliatu dute elkarretaratzea; langile batek orkatilan bihurritua egin zuen; eta beste batek peronea hautsi zuen duela egun gutxi. GOIENA Avanza taldeko arduradunekin ere jarri da harremanetan, baina ez dute adierazpenik egin gura izan.



Eusko Jaurlaritzako, Aldundiko eta Bergarako Udaleko ordezkariak, atzo Wolfratexera egindako bisitan. TXOMIN MADINA

GUTUNAK

Agur, Luis

OIHANE AGIRRE

GOIENA TELEBISTAKO ZUZENDARIA
(GOIENAKO LANTALDEAREN IZENEAN)
ARRASATE

Lantalde handia behar da telebista bat martxan izateko. Batzuk egunero ikusten ditugu pantailaren aurrean: telebistako aurkezleak. Baina horren atzetik, pantailaren beste aldean, hainbat dira fin lan egiten dutenak. Horietako bat zen Luis Ugarteburu. Atzeko lan horretan eta isilean lan egiten zuen lankidea.

Orduan, Arrasate Telebistan lanean hasi nintzenean – badira urte batzuk –, Luis ere telebistaren parte zen. Telebistako tripa guztiak inork baino hobeto ezagutzen zituen eta analogikoko makina haiek konpontzen trebea zen. Sumatu zitekeen maite zuela lan hori. Ondoren, digitalerako saltoa egin genuen eta Luis ez zen beldurtu. Ekipo digitalak konplexuagoak eta arinagoak ziren, baina Luisendako ez zen traba.

Edozein ekipo berri erosi behar bagenuen, ez nuen egiten Luisen aholkua jaso gabe. Zenbat balio zuen bere lanak!

Pertsona atsegina eta hurbilekoa. Zintzoa. Zure falta sumatzen hasi nintzen, orain urtebete, gaixotu zintzen. Baina orain ez zaudela jakitean, hutsunea handiagoa da. Ez zaitut ahaztuko. Goienan ez zaitugu ahaztuko. Familia guztiari, eta bereziki Amaiari eta Lukeni, besarkada handi bat.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali
gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

HANDIK ETA HEMENDIK

Gaizki

ANDONI EGAÑA

HTTPS://LABUR.EUS/8WFFI
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Bertsolari gazte bat Orion zebilen egun-pasa egitera joanda. Nor topatuko kalean, eta Manuel Lasarte. Begirunez hurbildu zitzaion diosala egitera, eta pentsatzekoa da ordurako adinean oso aurrera zihoan Manuelek ere gustuz hartuko zuela gazte haren berriketaldia. "Zer moduz gara, Manuel?", galdetu zion gazteak. Eta Lasartek, konbentzioei men egin behararen gainetik ordurako, ez zion ohiko "ondo esan beharko" edo "hainbestean" erantzun. "Gaizki!" bota zuen. Eta azalpena eman zion: "Atzo izana naiz medikutan analisiak egiten, eta zer esango eta burdina daukadala eskas. Xelebrea da gero! Niri burdina falta, bizitza osoa herrero lanean eman ondoren!". Bere osasun arazoak kontatuz segi zuen leitzarrak...

Gazteak, egoera leuntze aldera, "baina gainerantzean ondo, ez-ta Manuel?" galdetu zion. Lasartek ez zuen amore eman: "Esan ez dizut ba, ezetz!", trumoitu zitzaion gazteari.

Pandemiak sorturiko egoeran, oraingo, kalean ezagunen batek "zer moduz?" galdetzen digularik "ondo" erantzuten ari gabela esango nuke. [...] Laster iritsiko da garaia "hainbestean" erantzungo duguna; "gaizki" erantzutera helduko gara krisiaren ondorioak azaleratu

ahala. Eta "esan ez dizut ba, gaizki!" ez dugu ezpainartetik urrun ibiliko.

Bihar ni banaiz

ONINTZA ENBEITA

HTTPS://LABUR.EUS/NDJNI
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Ez da berria. Andaluziar batek esan zidan beti gertatu izan dela, baina orain komunikabideetan agertzen dela.

Ez da han bakarrik gertatzen. Marrubiak, tomateak edo mahatsa biltzera joaten diren emakume langileak bortxatu egiten dituzte. [...] Eta ez dituzte bortxatzen langileak direlako edo marrubiak batzeko ipurdiz gora ibiltzen direlako; ez. Emakumeak izateagatik bakarrik bortxatzen dituzte. Izan ere, normalean, gizonak izaten dira bortxatzaileak eta andrak bortxatuak. Eta hala ere, hor nonbait irakurri izan dut gizon esplotatuek, langileek, arrazializatuek, baztertuek eta oro har kapitalismoaren indarkeria jasaten dutenek, frustrazioz eta alienazioz bortxatzen gaituztela emakumeok.

Orduan, galdetzen diot neure buruari, emakumeok zer egin behar dugun alienazioa gainditzeko. Eta gauza bakarra bururatzen zait: goazen guztiok batera (transak ere bai, jakina) bazterrak erretzera.

Eta bihar ni banaiz alua lehertu diotena edo hil dutelako etorri ezin dena, lehertu ezazue dena. Dena.

Post gehiago 8. orrialdean.

HAUXE BAI JENEROIA!

GARBIÑE UBEDA





**“Ikasi dut
maskara
eramatea
besteak
zaintzea dela”.**

Aitor Izagirre
GURUTZE GORRIA GIPUZKOA

Erantzukizuna. Ni zaindu egiten naiz. Zuk ni zaintzen nauzu. Hori da erantzukizuna. Ez gehiago, ez gutxiago. Eskuzabaltasun ekintza bat da, egoera honetatik garena izanda irteten utziko diguna: lurralde batua eta solidarioa. Orain eta etorkizunear.

#AurreraEgitekoGogoratu

Asko ikasi dugu.
Ez dezagun ahaztu.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



ZABALIK

IRATI ITZIAR

Noranzkoak

Suedian errepidearen *beste* aldetik gidatzen zuten 1967ko irailaren 3a arte. Egun hartan, goizeko seietan, herrialde guztian eta aldi berean, errepideen noranzkoa aldatu eta *gure* aldetik gidatzen hasi ziren. *Dagen H* eguna izan zen hura, historiako hiri-esperimentu handienetakoa.

Ezkerretik gidatzea arriskutsu bihurtzen zuen arazo nabarmen bat zeukan Suediak: autoen %90ek bolantea ezkerrean zeukala. Ulertzekoa, beraz, aurrez aurreko istripuen indize altua.

Sekulako egitasmoa zen: milaka kale eta errepideren noranzkoa aldatzeaz gain, are konplikatuagoa izango zen zortzi milioi suediarri trafikoaren pertzepzioaren zentzua

EZKERRETIK GIDATZEA ARRISKUTSU BIHURTZEN ZUEN

ARAZO NABARMEN BAT ZEUKAN SUEDIK

aldatzea. Lau urtetan zehar alimaleko publizitate eta informazio kanpaina abiatu zuten.

Eta iritsi zen *Dagen H* eguna; hau da, *Dagen Högertrafikomläggningen* eguna –literalki:

"trafikoaren noranzkoa

aldatzen den eguna". Gauean trafikoa debekatu eta seinaleak aldatu, semaforo berriak jarri, autobideetako sarrera eta irteera berriak markatu... dena gau bakar batean prestatu zuten. Hasieran kaos egoera batzuk gertatu baziren ere, suediarren memorian daude errepidea aldatzerakoan trabeska gelditutako autoen irudiak. Istripuek ez zuten gora egin, kontrakoa baizik, bolantea behar zuten lekuan izateak eta jendearen zuhurtziak lagunduta, duda barik.

Bitxikeria hau kontatu dizuet, nolabait nire gogoeta ilustratzeko: errepideen noranzkoa eta gidatzeko ohiturak aldatzeko Suedian lau urteko kanpaina eta gau bateko lana behar izan zuten. Gurean, aldiz, gure ohitura eta noranzko sozialak ia egun batetik bestera aldatzera behartuak izan gara, eta ez da dena gau batean konponduko, luzera izango da prozesua. Ez da erraza izango, baina konbentziturata nago zentzudunak izan, informazioari kasu egin eta zuhurtzia apur batekin, lortuko dugula pandemiaren noranzko arriskutsua aldatzea.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Izurritearen lezioa: 1919-2019

ANDER IZAGIRRE

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Berrogei pertsona hil ziren Donostian, 1902ko udaberrian, tifusak jota. Udalak mediku bat eta kimikari bat bidali zituen Urumea ibaian gora, infekzioaren jatorria bilatzera, eta Artikutzako errekararen ondoko baserri batean aurkitu zuten: etxe hartako bi anaia, 18 eta 21 urtekoak, gaixo zeuden sukar altuarekin, buruko minekin, azaleko zauriekin; tifusaren sintomekin, alegia. Baserrikoek erreka baliatzen zuten arropak garbitzeko, kaka eta pixa egiteko, eta

bakterioak errekan behera zihozten Alderdi Ederreko iturri dotoretaraino. [...] Hala kontatzen du Daniel Burgui kazetariak, Donostiako udal argitaratu duen *Artikutza 1919-2019* liburu bikainean. Baserriko infekzio-fokuaz gain, beste hainbat foku antzeman zituzten Artikutzan inguruan, "lokatz beltz, orbel eta detritu organikoz betetako ur geldoetan". Mendiko iturburuetatik ur gardena hartzeko lanak hasi zituzten orduan, eta, azkenean, Donostiako Artikutzako eremu osoa erostea erabaki zuten 1919an. Uraren garbitasuna bermatzeko, eremua itxi, artzaintza, ikazkintza eta meatzaritza debekatu, eta

lanbide horiek soildutako lurretan baso autoktonoa hazten utzi zuten. Gaur magikoa iruditzen zaigun Artikutzako basoa horrela berpiztu zen, mendeetako ustiatetaren ondoren.

Probetxuzko ariketa da, koronabirusaren garaietan, Donostiako agintariek duela ehun urte izurritearen aurka hartutako neurriak gogoratzea: inbertsio publiko handia, kutsakorrak ziren jarduera ekonomikoak bertan behera uzteko, naturari arnasa emateko eta, ondorioz, hiritarron osasuna lehenesteko.

Post gehiago 6. orrialdean.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza,
Maite Igartua.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Arabako Errioxako ardogintza beste eredu bat da, berezia"

ESTI BESA CANDIDO BESA UPATEGIKOA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE Aretxabaletara etorritako Arabako Errioxako Besa familiakoa da Esti Besa. 11 urterekin etorri zen gurasoekin Aretxabaletara. Jaioterrira, Villabuenara, egin zuen familiak, lehenbizi, eta berak ostean. 30 urte daroatza Candido Besa upategian.

Martitzeneko kazkabarrak gogor jo du zuenean ere?

Bai. Bost minutu izan ziren, baina harriak kalte handiak eragin dizkigu; gure mahastien erdiari. 8 hektarea eta erdi mahasti daukagu. Azkeneko 10 urteetan, uzta bat edo bi bakarrik izan ditugu normalak.

Asko aldatu dira Arabako Errioxako lurak eta paisaia zure aitona-amonon garaitik?

Bai. Gaur egun, batez ere, mahastiak daude, monolaborantza da. Lehen, bazeuden fruta-arbolak, animaliak, zerealak, olibondoak, almendrondoak... Eta lur jabe gutxiago zegoen.



Esti Besa, Candido Besa upategiko ugazaba, Villabuenako upategian. E.B.

Ardo ekologikoa egiten duzue.

Enologia ikasketak egin eta aitarekin batera hasi ginen. Denborarekin ohartu ginen ongarrarekin-eta kalteak eragiten genizkiola lurrari. Mahasti-sail batekin hasi

ginen eta aurrera egitea erabaki genuen. 2007tik ari gara ekologikoan. Ikasten ari gara. Gaitzei nola aurre egin, lurra nola zaindu... Sinisten dugu honetan, nahiz eta eguraldiaren mendean egon.

Bereziki Arabako Errioxako ardoarekiko interes eta atxikimendurik badago?

Uste dut erakundeek gehiago egin dezaketela. Txakolina, sagardoa, labeleko okela... denak dira bertakoak; Arabako Errioxako ardoa, berriz, hemen kontsumitzen den ardoaren %15 bakarrik da. **Basque Wine marka sortu du sektoreak, Jaurlaritzarekin batera. Ondo deritoxozu?**

Bertako ardoa sustatzeko ekimenak ondoetorriak dira, baina ingelesezko berbarekin? Ez dakit gehiago salduko den... Dena den, ez dakit ziur ekimen hau benetakoa den. Ona da bertako ardoak bereiztea, identifikatzea... Baina nola egin behar dugu? Errioxa sor markaren barruan gaude eta ez digute uzten Basque Wine etiketa jartzen gure ardoei. **Arabako Errioxako upategiak badarozazue urteak Errioxa sor markatik bereizi guran. Zela dago kontua?**

Egin dira urratsak, baina Espainiako Gobernuaren eskuetan dago kontua. Gure agintarien ordua da. Presio egin dezatela. Baina ez naiz baikorra. Sektoreak egin du bere lana, estatutuak, arauak... Orain beste batzuek erabaki behar dute. **Zergatik bereizi?**

Gurea beste eredu bat delako. Ingurua, orografia, eguraldia... bestelakoa da; lursailak eta produkzioa txikiagoak, upategiak ere bai. Gainera, egoera honetan, azkeneko 8 urteetan 300-400 upategi txiki desagertu dira Arabako Errioxan. Ekoizle txikiek mahatsa upategi handiei saltzen diete. Borondatezkoa da sor marka berrian sartu ala ez.

Non saltzen duzue, eta nori?

Gertuan. Zero kilometroaren alde egiten dugu. Gure izaerarekin bat dator. Gainera, ardoa guk geuk banatzen dugu, bitartekaririk barik: Aretxabaletako hiruzpalau tabernatan, Arrasate eta Bergarako Ereindajan dendetan...

Zela eragin dizue COVID-19ak?

Lanean aritu gara, udaberria lan handiko sasoiak delako mahastietan. Salmentari dagokionez, galera batzuk izan ditugu, taberna, jatetxe eta halakoetan ere saltzen dugulako: %20-30eko edo. Dena den, gure izaerarengatik, kontsumo taldeetan, elikadura burujabetzaren aldeko mugimenduan eta halakoetan ari garenez, gehiago saldu dugu, gertuko eta zero kilometroarekiko kontzientzia handiagoa izan delako.

ITURRI ONETIK

Ur azpia garbitu dute Usakon

Ohiko protokoloa da ekaineko egun hauetan Usakoko bainutoki ingurua garbitzea; neguan ur azpian pilatutako hondakinak ateratzea, ur eremu segurua izan dadin. Aurten ere bete da. Astelehenean irekiko dute ofizialki bainu denboraldia Oñatiko erreka horretan, eta, azken urteetan bezala, aurreko egunetan aritu dira garbiketa lanetan Mutrikuko Buceo Euskadikoak. Zikinak atera dituzte, baina ez ezer "handirik" edo "larririk". Arriskurik ez eta uraren kalitatea ona dela ziurtatu ahal izan dute.

ALBISTE IZAN ZEN

2007-06-17

Segurako Dantza Txapelketan hirugarren

Euskal Herriko Dantza Txapelketan hirugarren saria eskuratu zuten Mikel Igartua eta Ibane Baseta bergararrek -400 euroko saria-. Segurako txapelketan 13 bikotek hartu zuten parte eta, orotara, bost dantzari bergarar aritu ziren dantzan lehian. Jon Ander eta Eduarne Azpitarte anaia-arreba azkoitiarrek irabazi zuten txapelketa. Hirugarren aldia jarraian. Ondorioz, Nestor Basterretxearen eskultura Azkoitiko udaletxera eroan zuten betiko.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Bueltatu da kirol profesionala

Gizonezkoen futbola eta saskibaloia itzuli dira, hiru hilabete geldirik egon ostean:

@imagreto: "Nahi duzuen izena jar iezaiozue, baina hau ez da futbola".

@rafamungi: "Ezin dut ulertu zaleak harmailetara sartzeko tematuta daudenen jarrera. Alemanian, bestelako datuekin, aipatu ere ez da egiten Bundesliga itzuli zenetik. Pentsatzen hasia naiz beste interes batzuk daudela atzetik".

@koldotellitu: "Saskibaloia publikorik gabe itzultzean, emanaldietan etengabe entzungo ditugu zapatilak kantxan irristatzen. Gozada!".

Gipuzkoa etorbidean bi errei, gaurtik aurrera

Bizilagunen kexak entzun eta alarma egoera gaur kendu dela baliatuz, bi errei izango dira berriz ere. Astelehenean, errei bat ezartzeko eta beste hainbat aldaketa egiteko erabakia jakinarazi zuen Gobernuak, eta handik hiru egunera etorri da iritzi aldaketa

Xabi Gorostidi ARRASATE

Azken asteetan hainbat aldaketa bizi izan eta gero, betiko egoerara itzuliko da gaur Gipuzkoa etorbidea, edo Gelmako zuzena izenez ezagutzen dena. COVID-19aren testuinguruan, bertatik trafikoa kentzeko erabakia hartu zuen Hirigintza batzordeak maiatzaren 7an; nagusiki, oinezkoen arteko segurtasun distantziak hobeto mantentzeko, eta gune horiek aisialdirako erabiltzeko ere. EH Bilduk hasieran egindako proposamena moldatu eta alderdi guztien adostasuna lortu ostean, maiatzaren 9an kendu zuten trafikoa aipatutako gunean, eta baita herriko beste guneen batzuetan ere.



Astelehenean ezkerreko erreia zabaldu zuteneko irudia. J. BEREZIARTUA

Bizilagunen kexak

Aldaketak horiek ezarri ziren asteburuan bertan Gelmako etxetako bizilagunen batzuen kexak jaso zituen GOIENAK. Ostean, maiatzaren 26an, Gelmako eta Etxe Txikiak 32 atartek eta jabek alegazioak aurkeztu zituzten COVID-19aren testuinguruan Gipuzkoa etorbidean ezarritako trafiko aldaketen harira. Aldaketa horiekin auzoko trafiko jarria asko handitzen zela eta horren eraginez bertan garajea duten ia 800 autoek errepidera irteteko zailtasun handiak zituztela azaltzen zuten, nagusiki.

Baina bizilagunen kexak arreragotik zetozen. 2017an, Mugikortasun Plana onartzeko prozesuan, euren desadostasuna azaldu zuten. Gipuzkoa etorbidea norabide bakarrekoa izatea planteatzen zuten Planak, eta alegazioak aurkeztu zituzten horren aurka. Euren proposamena zen bi noranzkoak mantentzea, erreiak estutzea eta abiadura 30 kilometro ordura murriztea –Arimazubin eta Araba etorbidean bezala–. Plana onartu egin zen, baina auzotarren alegazioak ez ziren txertatu. Gaia "mahai gainean" geratu zela baieztatzen dute au-

BIZILAGUNEN KEXAK PRENTSAN AGERTU ZIREN EGUN BEREAN, ALKATEAK BILERA EGIN ZUEN EUREKIN

zotarrek, eta gehitu, 2017ko azaroan egindako bilera batean alkateak zera adierazi ziela auzoko zazpi atarteetako presidenteei. "Planak ez badu auzotarren adostasuna eta onespena, Udalak ez du ezarriko adostasunik gabe Gipuzkoa etorbideko eta Etxe Txikiak atal honetan".

Astelehenean aldaketa berriak

Bizilagunen kexez jakitun, Hirigintza batzordean aldaketa berriak adostu zituzten gune horretarako, eta astelehenean bertan eman zituzten aditzera prentsaurreko bidez. Hiru aldaketa nagusi zeuden: lehena, Gipuzkoa etorbideko errei bat ibilgailuei irekitzea –Musakolatik erdigunerako noranzkoan–; bigarrena, Etxe Txikiak kaletik Villamparo eremura sarbidea debekatzea, biribilgune moduko bat bihurtu baitzen

praktikan; eta hirugarrena, Euskal Herria plazako buelta osoa norabide bakarrekoa izatea. Hala, Etxe Txikiak kalera sartuz gero, bi aukera daude: Mankomunitateko biribilguneraino zuzen joan edo Deba etorbidean ezkererantz hartu. Hori eginez gero, ezin da Martxoaren 8a kaleraino zuzen jarraitu eta Deba etorbide erdian ezkererantz joan beharko dute ibilgailuek, Euskal Herria plazari buelta eman eta Etxe Txikiak kalera itzuliz. Printzipioz, azken bi aldaketa horiek mantendu egingo dira. Hala adostu zuten alkateak eta bertako bizilagunen ordezkariak. Asteazkenean euren kexen eta alegazioen berri eman zuten komunikabideetan bizilagunek, eta, alkatea eurekin harremanetan jarri ostean, bilera egin zuen auzoko zazpi atarteetako presidentekin. Era berean, Garibai etorbideak, Maalako biribilgunetik Biteri kaleraino, motordun ibilgailuentzat guztiz itxita jarraituko du, baita Grupo San Juaneko erreka bazterreko pasabideak ere. Biteri etorbideak noranzko bikoitzarekin jarraituko du, Nafarroa etorbidearen eta Garibai etorbidearen artean.



Erosle bat eta saltzaile bat 2019ko maiatzeko baserriarren azokan. IMANOL SORIANO

Baserriarren azoka eta ibilbide gidatuak, bueltan berriz ere

Bihar berrartuko dituzte: Seber Altuben hamabost postuko azoka eta 'Arrasate historikoa' ibilbidea

X.G. ARRASATE

Hiru hilabeteko geldialdiaren ondoren, Udalak asteburuan martxan jarriko ditu azkenaldian finkoak izan diren bi ekintza: baserriarren azoka eta bisita gidatuak. "Seber Altube plazan seguru ibiltzeko nahikoa toki egongo dela aurreikusten da, eta bezeroak lasai etorri daitezke bertako eta sasoiko produktuek erostera", azaldu dute udal ordezkariak. Hamabost postu egongo direla azaldu dute antolatzaileek: "Bertako ekoizle gutxi batzuek kale egingo dute eta ohikoak ez diren pare bat kanpoan geldituko dira, karpek ez dutelako ematen denak hartzeko tokirik. Produktuei dagokienez, denetariakoak egongo dira salgai: barazkiak, ogia, gazta, pastak, pastelak eta gozoak, kontserbak, eztiak, marmeladak... Arrasaten egindako bi gozogintza-saltoki izango dira horien

artean". Postuen artean segurtasun tarteak utziko da eta gela jarriko da horien artean. Produktuak babesteko, mahaia jarriko dira saltokien eta bezeroaren artean. Saltoki guztiak alde bakarrera begira jarriko dira eta ezohiko kokapena edukiko dute.

Bisita gidatuak

"Tokian tokiko ondarea balioan jartzea inoiz baino garrantzitsuagoa" dela sinetsita, Udalak prest ditu hemendik eta irailera arteko bisita gidatuak. Larunbatean, Arrasate historikoaren "sekretuak" ezagutuko dituzte, eta 27an, Esteban Garibairen eta Pedro Biteriren inguruan arituko dira. Bestetik, uztailaren 5ean, Bedoñako "altxor ezkutuetara" egingo dute irteera; Arrasate Zientzia Elkarteak gidatuko du, eta ondoren, auzoko txakolina dastatuko dute.

ion ELEKTRIZITATEA
Gu ere arrasatearrek!

Mantentze lan integralak
Konponketa txikiak eta handiak
24 orduko zerbitzua

658 99 59 12

Deitu!!!

Uztailean zabalduko dute ur-parkea, 21 jolasekin

Egoerak ahalbidetzen badu, behintzat, uztailean zabalduko dute Santa Barbarako ur-parke berria; 300 metro koadro izango ditu, eta 21 ur-jolas, 26 elementu eta 31 txorrotekin; jolas horiek adinaren arabera bi gunetan banatuta egongo dira

Eneko Azurmendi ARRASATE

Asteon egin dute azpiegitura probatzeko azken saioa. Ur-parkeak igerilekuek bete behar dituzten baldintzak beteko ditu, eta, besteak beste, desgaitasuna duten pertsonendako irisgarria izango da. Era berean, ahalik eta jasangarriena izateko, ura berrerrabiltzeko sistema baten bidez funtzionatuko du.

2019ko martxotik ibili dira bertan lanean, eta Haurren Kontseiluak parte-hartze zuzena izan du proiektuan. "Haurren Kontseiluaren proposamena izan zen, eta jarritako jolas eta elementuak ere haiek aukeratu dituzte", azaldu du Maria Ubarretxena alkateak.

Jolasak, bi gunetan banatuta

Esan moduan, adinaren arabera bi gunetan banatuta egongo dira jolasak. "Bata, gazte-txoentzat, 5 eta 8 urte bitartekoentzat, gutxi gorabehera. Bestea, berriz, 9 eta 12 urte bitartekoentzat izango da. Batzuk jolas motelagoak dira eta beste batzuk, dinamikoagoak", dio Juan Antonio Urdangarinek, Hirigintza teknikariburuak.

Halaber, jasangarritasun irizpideak jarraituz, ur parkeko ura berrerrabiltzeko erabiliko da, Vortex izeneko teknologiarik esker. "Ura

zirkuitu itxi batean dago, kloroarekin, igerilekuek dituzten sistema berekin, eta filtro eta depurazio sistema guztiekin. Egunean uraren %5 berri beharko dugu, baina, oro har, ur gehiena bueltaka ari da", gaineratu du Urdangarinek.

Horrez gain, txorrotak saka-gailu edo pultsadore baten bitartez piztuko dira, erabiltzen direnean bakarrik aktibatuko eta urrik ez xahutzeko. Gainera, joko eremuko zoladura prestatuta dago irristadak edo erorketak saihesteko.

Bost mahai, otorduetarako

Ur txorrotak bakarrik ez, bost mahai ere jarri dituzte parkearen ondoan, otorduak-eta egiteko. Gainera, parkea zabaltzen dutenean, sarrera doakoa izango da, eta ez da zaintzailerik edo sorosle langilerik egongo. Udalak adierazi du erabiltzaileengan jarriko duela ur-parkea egoki zaintzearen ardura.

Urtebete pasako iraupena eduki dute parkea egiteko lanek, eta, guztira 391.041,70 euroko aurrekontua izan du proiektuak, BEZa barne.



Santa Barbarako ur-parkea. TXOMIN MADINA

Hainbat arlotako proposamenak egin ditu Arrasateko EH Bilduk

Krisiak ekarri dituen eta ekarriko dituen ondorioei aurre egiteko hainbat neurri proposatu ditu koalizioak

E.A. ARRASATE

EH Bildu kritikoa agertu da orain arte Udala Gobernuak egin duen kudeaketarekin. Salatu du behin eta berriro eskatu diotela Udala Gobernuari gainerako alderdiekin eta eragileekin mahai bat sortzeko, baina ez dutela lortu.

Hala, krisiak ekarri dituen eta ekarriko dituen ondorioen aurrean, ekonomiarekin, fiskalitatearekin, jasangarritasunarekin, zaintzarekin, kulturarekin eta kirolarekin lotutako hainbat neurri proposatu ditu.

Mahai sozioekonomikoa sortu

Ekonomiari dagokionez, krisiari aurre egiteko mahai sozioekonomikoa eratzea gura dute, "krisiak herrian izan duen eraginaren diagnostikoa egiteko, eta politika publikoak egikaritzeko beharrezkoa dena". Horrez gain, zuntz optikoa herri osora zabaltzea ere proposatu dute, enpresa txiki eta ertainei online merkaturako sarbidea bermatzeko. Udala zerbitzuak udalera eramateko aukerak aztertzea eta planifikatzea eta gizarte-larrialdi laguntzetarako ordainketa-kreditua handitzea ere gura dute.

Tasak eta kuotak, atzeratu

Arlo fiskalean, tasak eta kuotak ordaintzeko epeak interesik gabe luzatzea, zerga-kreditu itzulgarri bat martxan jartzea, osasun krisiak iraun bitartean autonomoak bete behar fisikaletatik salbuestea eta etxebizitza arriskuan dutenen eskubideak bermatu ahal izatea,

"kaleratzeak saihesteko eta alokairu kontratuak automatikoki luzatzea eskatzeko".

Bizikletaren erabilera sustatu

Jasangarritasunean, hauek dira proposamenak: herriaren erdigunea eta errebalak 30 eremu izendatzea, bidegorri sarea bukatzea gastu ekonomiko baxuekin, bizikletaren erabilera sustatzeko neurriak hartzea, natur eremu publikoak txukuntzea eta birziklapen ohiturak berreskuratzeko neurriak hartzea.

Zaintzaileen lan-poltsa sortu

Zaintzaileen lan-poltsa bat sortzea ere proposatzen du EH Bilduk, baita menpekotasuna duten pertsonak zaintzeko dirulaguntzak eskaintzea ere. Horrez gain, uztailean aialdi programa bat sortu beharko litzatekeela uste du koalizioak, "udalaren gaitasun konpentsatzeko". Herriko ikastetxei 2020-2021 ikasturtea hasteko laguntza ematea eta zaintza komunitarioa babestea eta sustatzea ere proposatu dute.

Udako programazioa indartu

Kulturari dagokionez, udako hilaiteei begirako programazioa indartzea, programazioa streaming bidez eskaintzeko aukerak lantzea, euskara praktikatzeko errefortzu programa bat bultzatzea, euskara ikasteko bekak handitzea. Kirolean, auzoetako azpiegiturak konpondu eta eremu berriak sortzea gura dute.

arbolapeta

arrasate

beinke

eya

etxetresna elektrikoak
estilo guztietako lanparak zure esku

Gu ere arrasatearrekin!

Iturriotz 21 - Tel.: 666 387 506 - eya@telefonica.net
ARRASATE

luzatzea

B

Iturriotz 1
943 79 12 95
Arrasate

Gu ere arrasatearrekin!

8 urtera artekoentzako eskaintzarik ez, oraingoaz

Txatxilipurdi eta Udala ez dira ados jarri 3-12 urteko haurrei aisialdi eskaintza bat egiteko uztailen; bai, ordea, nerabeen kasuan. Txatxilipurdik laster plazaratuko du "bere kabuz" egindako eskaintza; 8 urtetik gorakoentzat Ointxe!-k eta Mondrak campusak egingo dituzte

Xabi Gorostidi ARRASATE

COVID-19ak eragindako testu-inguru nahasian, aisialdi eskaintzak dituzten eragileek zailtasunak izan dituzte haurrei eta gazteei proposamenak ziurtasunez eskaintzeko. Horren adibidea da Eusko Jaurlaritzak aste honetan jakinarazi dituela udalekuak egiteko baldintzak, eskaintzak hasteko bi asteren faltan. Txatxilipurdi elkartearen kasua da horietako bat. Pandemiak eragindako "desinformazioa eta ziurgabetasuna" tarteko, udalekuak bertan behera uztea erabaki zuten maiatzaren 25ean. Era berean, prestutasuna adierazi zuten uztailerako haurrentzako eskaintza bat "elkarlanean diseinatzen"; Udalarekin, nagusiki, eta baita gurasoekin ere.

Hala, joan den barikuan, Txatxilipurdik jakinarazi zuen ez zutela akordioarik lortu Udalarekin 3-12 urteko haurrei eskaintza publikoa emateko uztailen. Bai, ordea, nerabeentzako *Udaixe* programan, non Udalak 7.000 euro gehiago jarriko dituen. Elkartetik adierazi zuten 3-12 urtekoentzako eskaintza propioa egingo dutela, "komunitarioa eta auzolanean", eta laster jakinaraziko dutela. Hala azaldu dute ere zein izan zen Udalarik egindako eskaintza: "3-12 urteko haurrekin ludoteketan egiten dugu lan urte osoan zehar, eta nerabeekin gazte-txokoetan. Bi gune horiek martxan daude ekainaren bigarren astetik, eta horien funtzionamendua uztaila amaitu arte luzatzea proposatu genuen; hau da, udalekuak hutsunea ludoteketan eta gazte txokoen bitartez estaltzea. Zerbitzu hori emateko, langile gehigarri batzuk beharko genituzke, errefortzu gisa. Baina ludoteketan kasuan ezezkoa jaso genuen, Udalak ez dituelako inoiz udalekuak antolatu eta ez zegoelako nahikoa diru". Zera dio horri buruz Udal Gobernuak: "Urtero



Haur batzuk Txatxilipurdi elkartearen udalekuan parte hartzen. TXATXILIPURDI

hainbat elkartek udalekuak eta udako campusak antolatzen dituzte eta aurten ere horrela izango da, nahiz eta COVID-19aren eraginez egoera ezohiko baten aurrean aurkitu. Udalak bere baliabide eta instalazioak doan eskaini ditu eta egoera ekonomiko zailean dauden familietako haurren parte-hartzea bermatzeko 10.000 euroko dirulaguntza lerroa bideratu du".

Udako bi campus Arrasaten

Mondrak eta Ointxe!-k campusak egingo dituzte uztailen -Mon-

dratek ez-, eta zabalik dute izen-ematea. Mondraren kasuan, uztailaren 6tik 24ra egingo dute; 8-12 urte bitartekoentzat, Mojategin. Izena emateko, idatzi mondrafutbolcapusa@gmail.com helbidera. Ointxe!-k bi campus ditu, adinaren arabera: *Stop&Go!* 2008 eta 2012an jaiotakoentzat; eta *Elite Skills*, 2007 edo aurretik jaiotakoentzat. Lehena ekainaren 29tik uztailaren 24ra izango da, eta bigarrena uztailaren 17an amaituko da. Izen ematea asteka ere egin daiteke; *kirol zuzendaria@ointxe.eus* edo 653 01 48 60.

Arrasateko Eskubide Sozialen Kartak aldarriak egingo ditu gaur

19:00etan egingo dute agerraldia, Herriko Plazan, eta herriko hainbat eragilek hartuko dute parte ekitaldian

X.G. ARRASATE

Aurreko astean batzarra egin ostean, kale agerraldia egingo dute gaur, barikua; 19:00etan, Herriko Plazan. Diote azken hilabeteetan "argi" geratu dela "sistema kapitalistak" ez duela funtzionatzen, eta "pertsonek, herriak eta planeta babestea" lehenetsi behar direla "merkatuaren ginetik". Deitzaileen ustez, inoiz baino premiazkoagoa da eskubide sozialak bermatzea eta bizitza erdigunean jartzea: "Eskubide sozialak -osasuna, hezkuntza, elikadura osasuntsua, etxebizitza, kultura- bermatzeko burujabetzak aldarrikatzen ditugu, gure herriaren etorkizuna eta eredu sozioekonomiko berria garatzeko ahalmen osoa izateko. Asko dira zuzendu beharreko okerrak, asko dira ditugun arazoak, eta arrasatear askoren ekarpen antolatuarekin



Urtarrilaren 30eko manifestazioa. GOIENA

lortuko dugu bizitza erdigunean jartzea, zaintzari, lan duinari eta planetaren jasangarritasunari lehentasuna emanez".

Hauxe esan dute gaurko ekitaldira begira: "Aldarrikapenez betetako ekimena izango da. Batuta indartsuagoak gara!".

OHARRAK

Pentsiodunen elkarretaratzea

Astlehenean egingo dute, 12:00etan, Herriko Plazan.

Besaide Mendizale Elkarteak, irteera

Ekainaren 28an, Aiako Harriaren bueltan Enderlatsa-Aritzulegi ibilbidea egingo dute, eta ostean, bazkaria. Martxoan ibilbidea ordaindu zutenek bazkaria ordaindu beharko dute soilik. Bazkideek eta federatuek prezio merkeagoak dituzte.

Liburutegia zabalik, ikasi nahi dutenentzat

Atzo ezker, erabilgarri dago irakurtzeko edo ikasteko 30 laguntzako lekua. Zazpi ordenagailu erabiltzeko aukera ere jarri dute; betiere, ordubeteko saioak eginda.

asegi

Otalora Lizentziaduna kalea 4,
solairuartera

Tel.: 943 71 25 49 • www.asegim.com
asegi@asegim.com

Su ere arrasatearrekin!

ZUBI-LAN
KONPONKETAK ETA SALMENTAK
GU ERE ARRASATEARREKIN!

MOTORRAK
Salmenta
Konponketa
Basogintza

TRESNAK
Nekazaritza
Lorezaintza
Basogintza

Husqvarna

Markulete poligonoa
Ekutio kalea 4, 17. pabillioa, Arrasate
Tel. /Faxa: 943 79 78 82 - 650 03 87 33
jmabizeta@gmail.com

Botak eskuetan dituztela, agur esan diote Mondrari

Hiru baja garrantzitsu izango ditu aurrerantzean Mondrak; izan ere, futbola uztea erabaki dute orain arte kapitain izan diren hiru jokalarik: Gorka Eraña erdilariak (1991); Julen Aranbarri defentsak (1986) eta Mikel Gonzalez 'Gonzo' erdilariak (1992)



Gorka Eraña, Julen Aranbarri eta Mikel Gonzalez 'Gonzo', Mojategin. E.A.

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Arrazoi ezberdinengatik erabaki dut futbola uztea. Dagoeneko 34 urte ditut eta uste dut jende gazteari lekua utzi behar diodala. Momentu egokiena hau dela uste dut, nahiz eta pena ematen didan egoera honetan utzi behar izan. Hala ere, futbolaz gain ere bizitza daukagu, eta erabakiak hartu behar dira", adierazi du Aranbarri.

Gonzalezek, aldiz, beste gauza batzuk egin gura dituela aitortu du. "Orain da momentua bidaiatzeko edo beste plan batzuk egiteko, eta adin honetan ez badut egiten, gero, agian, ez dut aukerarik edukiko. Beraz, balantzan jarrita, uztea erabaki dut, nahiz eta oso garbi ez eduki. Gainera, horrela bukatzea ere ez da gozoa izan, eta ezin izan dugu talde giroan bukatu. Baina hala beharko du".

Erañari lanak baldintzatu dio erabakia. "Nafarroan egiten dut lan, dagoeneko bi urte daramatzat haraino joan-etorriak egiten, eta horrek nekatu egiten du. Horrez gain, niretzat denbora hartu gura dut, eta nire zikloa bukatu egin dela iruditzen zait. Beste batzuei utzi behar diegu lekua orain. Inork ez luke imajinatuko halako egoera batean uzterik, baina horrela etorri da, eta, erabakia irmoa izanik, eutsi egin diot", aitortu du.

Talde giroa eta laguntasuna

Aranbarri azpimarratu du "gauza asko" eman dizkiola Mondrak. "Batez ere, lagunak nabarmenduko nituzke. Aste barruko taldeko giroa ezin hobea izan da, eta txapelketa aldetik ere asko erakutsi dit".

Hasierako urteetan txapelketa berari "inportantzia handia" ematen ziotela dio Gonzalezek, eta proiektua "oso motibagarria" zela. "Hala ere, urteek aurrera egin ahala, konturatu naiz talde giroak askoz ere gehiago eman

didala pertsonalki. Terapia moduko bat izan da futbola niretzat, gainontzeko guztiaz ahaztu egin izan naizelako taldearekin egon izan naizenean, eta gustukoa dudana gauza bat egiten, gainera. Horrekin geratzen naiz".

Erañak taldeko laguntasuna azpimarratu luke. "Hona etorri aurretik aritu izan naizen taldeetan ez zegoen hemen dagoen laguntasunik. Oso giro ona dago,

talde-lanean oinarritutako proiektua da", gaineratu du.

Nola bete futbolaren hutsunea?


Erañak ez dauka batere garbi zerekin beteko duten futbolak utzitako hutsunea. "Nire kabuz kirola egiten jarraituko dut, baina oraindik ez dakit zer izango den. Hori bai, beste maila batean izango da, inongo konpromiso barik".

Ibilbide ezberdinak egin dituzte




JULEN ARANBARRI

"12 urterekin hasi nintzen Mondran. Lehen taldean lau urte egin ostean, utzi egin nuen, ikasketak Bartzelonan egin nituelako. Bueltan, bi urte Antzuolan egin nituen eta gero Mondrara itzuli nintzen. 15 urte egin ditut guztira Mondran".



GORKA ERAÑA

"10 urterekin Athletic Club taldean hasi nintzen. 20 urterekin, Barakaldora joan nintzen, utzita. Han urte eta erdi egin nuen, eta handik Laudiora. Urtebeteren ostean, Mondrara etorri nintzen, eta hemen egin ditut azken sei urteak".



MIKEL GONZALEZ 'GONZO'

"Ez dut gogoratzen oso ondo hasiera, baina esango nuke 12 urterekin hasiko nintzela Mondran. Geroztik, 16 urte egin ditut etxeko taldean, kategoria guztietatik pasatuta. Ia hamar urte egingo nituen lehenengo taldean".

rrika edota bizikletan. Dagoeneko hasi naiz nire kabuz zerbait egiten, apurka-apurka".

Zer igarriko dute faltan?

"Asteko errutina hori" da Aranbarri gehien igarriko duena faltan. "Taldekideekin egoteko momentuak, lanetik deskonektatzeko momentuak, partiduak, eta taldeko afariak, nola ez".

Gonzalezek lehiaketa igarriko du faltan gehiago. "Asteko prestateta lanak eta partiduak. Bizirik mantentzen nauten proiektu horiek barik, ez dakit zer egingo dudana. Askotan pentsatu izan dut horretan, baina egokituko naiz egoera berrira".

Erañak, aldiz, entrenamenduetako giroa eta partiduak lehiatzeko aukera ez izatea igarriko ditu faltan. "Asteburua iritsi eta partidurik ez izatea arraroa izango da".

Talde "sendoa" geratzen da

Hiru jokalarik garrantzitsu doaz, baina talde "sendoa" geratzen dela aitortu dute. "Blokea mantentzen da. Urte asko daramatzaten jokalariek geratzen dira, eta gazteak indartsu datoz atzetik. Taldea ez da herren geratuko, eta gauzak ondo egingo dituzte datozen denboraldietan". Hirurek bat egin dute horretan.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

eya
ALTZARIAK

SUKALDERAKO ETA ETXERAKO ALTZARIAK
DEKORAZIOA ETA OSAGARRIAK

DESKONTU HANDIAK
ERAKUSKETA ALDAKETAGATIK!

Bu ore arrasatearrekin!

Ignacio Zuloaga 4 - Arrasate
Te.: 943 79 05 07
www.eyaaltzariak.com

15.000 euro, ateak itxi zituzten negozioentzat

Udalbatzak aho batez onartu du partida bat bideratzea azken hilabeteetan normal lan egin ezin izan duten establezimenduentzat. Interesa dutenek hamabost egun izango dituzte eskaria egiteko, deialdia Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratuz geroztik

Julen Iriondo ARAMAIO

Ogasun batzordean aztertu zuten aurrez gaia, eta 15.000 euroko partida bideratuko dute COVID-19aren krisiak herriko negozioentan izan duen eragina arintzen laguntzeko; Udalaren soberakinetik hartu dute diru kopuru hori, dekretu bidez.

Kasuistika desberdinen arabera banatuko da dirua; erabat itxita egon direnei hileko 400 euroko dirulaguntza emango diete –bi hilabete ingurukoa izan zen derrigorrezko itxialdia–, Lierni Altuna alkateak azaldu zuenez: "Horrez gain, itxita egon diren horiek langileren bat edo beste baldin badaukate eurekin lanean, proportzioan, 100 euro edo lan-jardunaren araberrako kopurua jasoko dute".

Gutxieneko zerbitzuak eskaintzen ibili direnek ere eskatu ahalgo dute laguntza, eta baita negozioaren zati bat itxita eta beste bat zabalik izan dutenek ere; azken horiek 200 euro jaso ahalgo dituzte hilabete bakoitzeko. Deialdiaren argitalpen datatik hasita –Arabako Aldizkari Ofizialean–, hamabost egun izango dituzte interesdunek eskaria egiteko.

Martitzenean egindako osoko bilkuran oniritzia eman zion udalbatzak, aho batez, laguntza



Eki tabernako terraza; jarraibideekin kartelak dituzte establezimenduek. J. IRIONDO

deialdia egiteari. Hain justu, ildo berekoa zen jaiei buruzko inkesta bete duten hainbat herritarrek Udalari egindako proposamena; jaietarako behar zuen diruak herriko negozioei laguntzeko erabiltzea, alegia.

Bestelako laguntzak

Herriko talde soziokulturalak diruz laguntzeko deialdiaren oinarriak ere onartu zituzten martitzeneko osoko bilkuran; 15.000 euro bideratuko dituzte honetara ere, hasiera batean –dagokion batzordeak egokitza-

penak egin ahal izango ditu, egoeraren bilakaeraren arabera–. "17.000 euroren bueltan egon da azken urte luzeetan; aurtengorako 18.000 jarri genituen, baina ikusita zein den egoera eta hiru hilabeteen nahikoa geldu egon dela kontua, eta diru murrizketak eduki ditugula, eta abar, 15.000 euroko partida jarri dugu", azaldu zuen alkateak. Hamabost egun izango dira eskari hauek egiteko ere.

Auzoetako jaietarako dirulaguntzen oinarriak ere onartu zituzten osoko bilkuran.

Jairik ez, udalekuak bai

Jaiei buruz Udalak prestatutako inkesta 58 lagunek erantzun zuten. "Gehiengo handi batek" adierazi zuen, Udalaren arabera, jaiak ez lirakeela ospatu beharko, nahiz eta horietako askok uste ekintzaren bat, neurri guztiak hartuta, egin daitekeela. Iritzi bera adierazi zuten kultur taldeek, Udalarekin egindako bileran. Honela, uztaileko "kultura agenda bat" taxutzekotan geratu ziren, zenbait ekintza egiteko, denboran eta espazioan sakabanatuta, auzoetan, bestek beste; horrez gain, udazkenean "jai antzeko batzuk" egiteko aukera zabalik utzi zuten, egoeraren arabera. Auzoetako jaiei dagokionez, berriz, Udalak auzoen euren esku utzi du egin ala ez erabakitzea. Udalekuak, bestalde, egin egitea erabaki dutela jakinarazi dute udal arduradunek, egoerara egokitu, hori bai –informazio osoa: goiena.eus/aramaio-n-.



Jaietan, alkatea buru. GOIENA



Martitzenean egindako osoko bilkura. J.I.

Hiru hilabete eta erdi geroago

Otsaileko osoko bilkuratek besterik egin gabea zen Aramaio udalbatza; martitzenean bildu zen berriro, ezohiko izaeraz. EAJKo zinegotzi Juan Antonio Peñak 2020ko aurrekontua egokitu beharra adierazi zuen bertan; egin beharrekoa aztertzekotan geratu ziren.

Eguneko zentroa martxan da


Martxoaren 13tik itxita egon ostean, astelehenean ireki zituen ateak berriro Aramaioko eguneko zentroak. Zortzi erabiltzaileak bi taldetan banatu dituzte, eta taldeok txandaka izango dira instalazioetan. Ekainaren 29ra bitartean horrela funtzionatuko dute, eta orduan erabakiko dute aurrera begira nola jokatu. Bisitak ez dituzte onartuko.



EGUNEKO ZENTROA

Zuzeneko bertsoak bueltan dira; bihar, Iturrietako terrazan

Hilabeteetako etenaren ostean, aurrez aurreko kultura ekitaldiak ari dira berriro pixkanaka hasten, eta Iturrietako terrazan bertso saioa egingo dute bihar, zapatua, herriko bertso eskolako lau bertsoariekin: Peru Abarrategi, Xabi Igoa, Manex Agirre eta Ane Zuazubiskar. Lierni Altunak jarriko ditu gaiak. 19:00etan da hitzordua.



Abarrategi, Herrarte eta Igoa. A.Z.

Blanka Mendialduaren heriotzagatik atsekabez

Aurreko astean hil zen, gaixoaldi labor baina atzera bueltarik gabeko bihurtu den baten ostean, 72 urterekin. Herriko bake epaile zen 2009az geroztik; horrez gain, eskolako irakasle izana, Papargorri abesbatzaren sortzaileetakoa, euskaltzalea...

Julen Iriondo ARAMAIO

Papargorri abesbatzaren zuzendari Larraitx Arriolabengoarentzat "izugarritzko kolpea" izan da Blanka Mendialduaren heriotza: "Blanka izan zen Papargorriren sortzaileetako bat; Papargorri abesbatza Arabatxon dago –Arabako Haur Abesbatzen Federazioa–, besteak beste, Blanka hor egon zelako. Zuzendari-zako postu guztietatik pasa da, eta azken urteetan joan da gauzak beste batzuen eskuetan uzten. Jende gazteagoa sartzen joan ginen, eta guretzako erreferentea izan da".

Albisteak Papargorri familia "jota" utzi duela dio Arriolabengoak: "Musika arloan, zuzendaritzan-eta ez da egon, baina, gu edonora gindoazela ere, hor zegoen, umeen meriendaz arduratuz, gozokiez, loteriaz arduratuz...". Papargorriren historian pertsona "oso garrantzitsuetako bat" dela dio zuzendariak.

Blanka Mendialduaren heriotza "kolpea" izan da eskolako irakasle Ane Miren Etxebarriarentzat ere. 2003 inguruan iritsi zenean, eskolako irakasle zen Mendialdua, eta lankide izan zuen zazpi-zortzi urtez, erretiroa hartu zuenera arte –duela hamar urte inguru–. Gogoan du nola izan zuen erretiroa urtebete-edo



Blanka Mendialdua, bake epailearen egoitzara sartzen, udaletxean. J.I.

lehenago hartzeko aukera; baina une hartan eskolako zuzendari zen, eta berak irakasle moduan amaitu gura zuen bere ibilbidea, eta segitu egin zuen.

"Hasieratik izan genuen harreman ona, ondo konektatu genuen. Laguntzeko prest egoten zen beti, oso atsegina eta erraza zen berarekin harremana izatea, lan egitea; umoretsua zen, berarekin gustura sentitzen nintzen", dio Mendialduarekin izandako harremanaz.

Gainera, eskolaz kanpokoa ere bilakatu zen euren harremana;

mintzalagun taldean, esaterako, elkarrekin jardun zuten: "Euskaragatik kezkatu eta inplikatzatzen zen; euskararen erabilerak eta euskara mailak ere kezkatzen zuten. Eskolan ere sortu zen Euskara Batzordea, eta berarekin egon nintzen hasieretan. Asko ikasi nuen berarekin. Euskara maite zuen, eta transmititu egiten zuen hori".

Gaur egun, erretiratuen eta elizako abesbatzetako kide zen Mendialdua; katekesia ematen zuen, eta Arbeleko idazkaria ere bazen, bake epailez gain.



Blanka Mendialdua eta bere lagun taldea. GOIENA

Kuadrillako lagunaren agurra

"Askotariko gaiez jarduterakoan edo haiek aztertzerakoan egiten zituen analisiengatik nabarmentzen zen Blanka kuadrillan. Zorte handia izan da guretzat hainbeste hizketaldi, paseo eta irteera berarekin partekatu izana.

Blanka ez da geldi egotekoa izan, hainbat ekintzatan inplikatu da: musikan; euskara kontuetan; bake epaile izan da; Andramari kofradian; Arbelen; ASEN. Denetan jarri du bere hondar-alea eta lan ona. Langilea, diskretua eta gainerakoekiko sentsibilitate handia izan duen pertsona izan da.

Gauzak ondo egitea gustatzen zitzaion, eta hori bere lanetan islatzen zen. Sarri ikusten genuen presaka bilera batera iristen, Bizente Goikoetxea abesbatzaren entsegura, Papargorrikoengana... Irudi ohikoa zen bera plazako etxetik ateratzen, konpromisoa zuen toki hartara abiatzeko.

Herrian antolatutako kultura ekintzetan hartzen zuen parte, eta, beharrezkoa zenean, bere iritzia emanez ere hartzen zuen parte.

Familiarekin zuen lotura oso estua zen; oso garrantzitsua zen beretzat. Bere Etxaguenera joaten zen astean hainbat aldiz, oiloak zaintzera, ortua, etxea.

Arrasaten ibili zen irakasle zenbait urtez, eta, ondoren, Aramaio eskolan; han eman zituen bere ibilbideko ia urte guztiak. Asko maite zituen umeak; zentzu honetan, hainbat urtez hartu zituen udako bi hilabetetan Ukrainako bi ume etxean. Maitasun osoz zaindu zituen, bere senar Jesusekin batera, zentzu guztietan haiengatik arduratuz.

Blankak asko maite zuen natura. Ez zen mendizale borrokaturia, baina Aramaion eta inguruan paseoan egitea gustatzen zitzaion. Bidaiatu ere nahikotxo egin zuen, senarrarekin, atzerrira, penintsulara zein Euskal Herrian barrena.

Pertsona handia zen Blanka: faltan igarriko ditugu bere konpainia, hausnarketak, lan ona eta diskrezioa. Agur, Blanka".

Balarrasa taldearen disko osoa dago dagoeneko entzungai

Spotifyn eta Youtuben dago, adibidez. Zortzi abesti dira, eta "denak dira rock-and-roll purua", taldeko kide Omar Granaren arabera –Gillen Mendikute da beste aramaioarra–. "Estilo desberdinak daude: 60ko hamarkadako rock-and-roll klasikotik, 80ko eta 90eko hamarkadetako hard rockera arte", zioen Granak diskoari buruz.



Diskoaren azala. BALARRASA

Bizikletan ibiltzeko kulot eta maillotak aterako ditu Orixolek

Interesa dutenek mezua bidali behar dute 608 69 64 62 zenbakira (Jokin), bietako zein nahi duten edo biak nahi dituztela adieraziz –neurria ere zehaztu behar da–. Maillotak 52 euro balio du, kulotak 70, eta biak hartuz gero 120 eurotan geratzen da prezioa. Uztailaren 5era arte egin daitezke eskaerak, eta 12an egingo dute eskaria.



Maillotak izango duen itxura. ORIXOL

Herriko erromarekin argazki muntaia egin du Alex Mendikutek

Alex Mendikute argazkilariak beste argazki muntaia bat jarri du denon eskura. Oraingo honetan, herrian dauden erromaren argazkiak dira bideoan batu dituenak; material ezberdinez egindako erromarak dira, auzoetan, kalean, basoan... daudenak. Oso bilduma bitxia da. Udalaren webgunean eta Youtubeko kanalean ikus daitezke.



Kiolari bat, astelehenean, igerilekuan. ASIER MUJIKA

Kirolariak fitness aretora eta igerilekura itzuli dira

Gorputza astintzen hasteko gogotsu zeuden gimnasioaren erabiltzaileak, eta astelehenetik entrenatzen dihardute; beste horrenbeste gertatu da igerilekuaren zain zeudenekin. Ekainaren 22tik aurrera, gainera, ordutegi luzeagoa izango du kiroldegiak

Mirari Altube ARETXABALETA

Asteek aurrera egin ahala, Ibarra kiroldegiak gero eta zerbitzu gehiago ditu abian. Oraingoan, bainu-gunea, hau da, igerilekuak eta spa-gunea zabaldu dituzte, baita fitness aretoa ere, eta txandak antolatu dituzte, pilaketarik egon ez dadin. Astelehenetik aurrera eta uztail osoan, ostera, ordutegi luzeagoa izango du kiroldegiak: astelehenetik egubakoitzera: 08:00-14:00 eta 16:00-21:00; zapatuetan: 10:00-14:00 eta 16:00-20:00.

Igerilekurako txandak

Erabiltzaileak ezin gusturago gerturatu direla igarri dute langileek. "Bereziki, fitness aretoko makinetan jarduteko gogotsu zeuden hainbat lagun", adierazi du Kirol teknikari Asier Mujikak, eta gaineratu: "Makinak han eta hemen banatu ditugu, baina guztiek gura zuten gune berean egon. Horrenbestez, gomendatu diegu txandak adosteko beraien artean".

Egunotako martxarekin gustura agertu da Mujika: "Ez dugu izan inolako arazorik. Beste mugimendu batera ohituta, kiroldegia oso lasai dagoen sentsazioa dugu". Bainu-gunean ez da betekadarik egon, baina badute beldur apur bat: "Eguzkia berotzen hasten denean herritarrak freskatzera gerturatuko dira, eta orduan, guztiendako lekuri

izango dugun ez dakigu. Ordu eta erdiko txandak antolatuko ditugu eta 35 lagunendako lekua egongo da. Hori betetzerakoan, hurrengora itxaron beharko dute". Igerilekuez eta spa-guneaz gain, solariuma ere zabalik dago; hori bai, aurten ez dute jarriko hamakarik ezta eguzkitakorik ere.

Rokodromoa itxita oraindik

Bestetik, rokodromoa ere aste honetan zabalteko asmoa izan dira. Koltxonetak aldatzen dabilta gune hartan, eta lanak atzeratu egin dira. Datarik zehazterik ez dute izan, baina lehenbailehen irekiko dute.

Skate parkea eta pilotalekua

Kiroldegi aurreko zelaian dagoen skate parkea zabalik dago azken asteotan. Baita Iturrigorri pilotalekua ere, baina bakarrik UDAREN pilota sailean dihardutenek entrenatzeko. Berbera gertatzen da zazpiko futbol zelai berriarekin.

Futbol zelaia, astelehenetik

Ibarra futbol zelaia erabiltzen hasita dago UDA, eta astelehenean, ohorezko erregionaleko taldeak ekingo dio lanari, denboraldi berriari begira; asteen bi entrenamendu saio egingo ditu, hiru asteen. Beste talde batzuk ere hasiko dira entrenatzen.



Udalbatzako kideak asteleheneko osoko bilkuran. MIRARI ALTUBE

Animalien gaineko ordenantza aho batez onartu du udalbatzak

Alegazioak aurkezteko epea zabaldu da orain; txakurren jabeek aldaketen berri dakarren liburutxo bat jasoko dute

M.A. ARETXABALETA

Animaliak edukitzea eta babeslea arautzen duen udal ordenantza hainbat aldaketa egin dizkiote, eta astelehenean, Arkupen egindako ezohiko osoko bilkuran eman zion onespina udalbatzak; aho batez onartu zuten, gainera. Interesatuek alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiete orain aldaketa horiei, eta, egin ezean, behin betiko onartua izango da.

Araudi horren eguneraketan parte hartzeko aukera eskaini zieten herritarrei orain dela hilabete pasa, eta 30 ekarpenetik gora jaso dituzte. Horiek azter-

tzeko, lantaldea osatu zuten Udalean, eta horietatik lau proposamen onartu dituzte.

Karmele Uribarrik, Ongizate Saileko zinegotziak, osoko bilkuran azaldu zuen liburutxo batean jasoko dutela onartutako araudia, eta animalien jabeek bidaliko dietela etxera, aldaketa guztien berri izan dezaten.

Hauteskunde-mahaiak osatuta

Udalbatzak, bestetik, uztailaren 12an hauteskunde-mahaietan izango diren herritarrak aukeratu zituen. Horiek egunotan jasoko dute jakinarazpena.

Aurtengo dirulaguntzak eskatzeko epea ireki du Udalak

Hainbat arlotako jarduerak garatzeko izango dira eta laguntzen gaineko oinarriak dagoeneko argitaratu ditu

M.A. ARETXABALETA

Herriko elkarteek hainbat arlotan egiten dituzten jarduerak sustatzeko dirulaguntzak bideratu ditu Udalak, beste behin. Ekainaren 12an argitaratu zituen oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta ordutik 30 egun dituzte herritarrek eskaerak aurkezteko; egoitza elektronikoren bidez egin beharko dute (Aretxabaleta.eus).

Laguntza horien helburua da kirola eta kultura sustatzen, euskararen erabilera bultzatzen, garatu gabeko herrialdeetan

lankidetzaren proiektu solidarioak egiten, enplegua sortzen eta beste hainbat arlotan diharduten elkarteak laguntzea. Eta horretara 121.900 euro bideratu ditu. Laguntza jaso ahal izango dute, batez ere, egoitza eta jardun eremua Aretxabaletan daukaten elkarteak eta norbanakoak.

Kontu-hartzaile postua

Bestetik, kontu-hartzaile postua betetzeko lanpostu deia egin du Udalak. Ekainaren 10ean argitaratu zituen oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Kuartelak hartu du martxa, itxialdia atzean utzita

Herriko sortzaileak –besteak beste, musikariak eta dantzariak– hasita daude berriro entseguen, hiru hilabeteren ostean; aste bukaeran zabaldu dituzte ateak, Udalean segurtasun protokoloa aurkeztu eta onartu ondoren, eta gogotsu ekin diote lanari

Mirari Altube ARETXABALETA

Martxoan, alarma egoera ezarri zenean, desaktibatu zuten kuarteleko ateko giltza, eta hiru hilabeteotan ezin izan da inor sartu. Musikari asko, gainera, ezustean hartu zituen egoerak, eta materiala atera ezinik geratu ziren.

Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak bat egin du sortzaileen ezinegonarekin: "Ulertzekoa da kuartelean sartzeko izan duten gogoia, gehienek etxean ezin dutelako entsegurik egin". Horretarako, segurtasun protokoloa aurkezteko eskatu zieten, eta behin hori aurkeztuta zabaldu dituzte ateak.



Jaiki elkarteko kideak dantzan, martitzen iluntzean. MAIER ETXEBARRIA

Protokoloa, abian

Ateak zabaldu aurretik desinfektatu egin dute eraikin guztia, eta Udal ordezkariak aurkeztutako protokoloan edukiera eta garbitasun kontuak jaso dituzte, besteak beste: lokal bakoitzean bost lagun egongo direla zehaztu dute eta dantza gelan, handiagoa izanik, zortzi; eraikineko edukiera kontrolatzeko txandak antolatuko dituzte korridoreka eta espazio txikietan eta gune komunetan maskarak janzteko konpromisoa hartu dute. Gel hidroalkoholikoa eta xaboiak jarri dituzte, gainera.

Jaiki elkarteak, lanean

Dantza gelan elkartzeko Jaiki elkarteak martitzenean egin zuen itxialdi osteko lehenengo entsegua, eta, era berean, denboraldiko azkena. "Inprobisatze dantza saioaren irakaslea kanpotik dator, eta, horregatik, erabaki dugu bukatutzat ematea ikasturtea", azaldu du Jaiki elkarteko kide Maier Etxebarria. Dantza saioaren ostean afari-merienda eginez, giro atseginean esan zioten agur elkarri.

Swing dantza ikastaroari, ostera, ez diote helduko orain: "Bi

talde osatuta daude, eta ekiteko gogotsu ere bai, baina iraila arte ez gara hasiko. Hor berreskuratzeko ditugu orain ezin izan ditugunak egin".

Uztailera begira, *ecstatic dance* saioaren bat egin gurako luke, baina horretarako kuarteleko baina gela handiagoa behar dute: "Aurrera egitea erabakiz gero, kiroldegiko areto handi bat eskatuko dugu, jende gehiagok izena eman eta dantzan gustura egin ahal izateko". Horrez gain, ekitaldiren bat antolatzea ere ez dute baztertu.

San Juan bezperan ekitaldirik ez egitea erabaki du Udalak

Surik ez dute isiotuko Herriko Plazan, eta kintoek adostu dute tantaia irailaren 19an altxatzea

M.A. ARETXABALETA

Suaren bueltako erritua eta tantaia altxatzea izan ohi dira protagonista ekainaren 23an, baina aurten ez da halakorik izango; lehenengo bertan behera utzi dute eta bigarrena atzeratu egingo da irailera.

Iraterik ez atarteetan

2002an jaiotako kintoak izango dira aurten tantaia altxatuko dutenak. "Haien ordezkariekin bilera egin genuen eta zein data gura zuten galdetu genien. Irailaren 19a, San Migel jaien au-

reko asteburua, hautatu zuten, eta guk ontzat eman dugu", adierazi du Kultura zinegotzi den Ainhoa Caberok, eta gaineratu: "Hori ez denez izango, gainerako ekitaldirik ere ez egitea erabaki dugu, jakinik inguruko herrietan ere bertan behera utzi dituztela".

Era berean, herriko atarte guztietan iratzeak botatzen dituen herritar taldeak ere ez egitea halakorik erabaki du: "Gurutzeak jarriko ditugu hainbat ataritan, baina zuhurrak izan gura dugu, eta iraterik ez da izango".

Patroiak egiten eta josten irakatsiko dute uztailean

Patroigintza eta joskintza ikastaroa eskainiko du, beste urte batez, Katalin Antxia Abasolok, Modu Bat proiektuaren sortzaile aretxabaletarra. Uztailearen 6tik 10era izango dira eskolak (09:30-12:30), bost egunez jarraian, Arkupe kultur etxean, eta izena emateko epea zabalik dago; hona hemen bidea: info@modubat.fr Gehienez, bost lagun onartuko dituzte taldean.

Ezer eroan beharrik ez

Ikastaroa hamabost ordukoa da eta prezioa, 190 euro; horren barruan sartzen da patroiak egiteko materiala eta prototipoak egiteko oihala, baita josteko makina ere.

OHARRAK

Muru Alde, zabalik

Muru Alde elkarteak jakinarazi du gaur, egubakoitza, zabaldu dituela elkarteko ateak, Eusko Jaurlaritzak ezarritako higie eta segurtasun neurriak zainduz.

Posta bidezko botoa

Posta bidez botoa eman gura dutenei argibideak emango dizkie EH Bilduk hilaren 23an eta 30ean (10:00-11:00 eta 18:00-19:00) EHBilgunean.

Musika eskola

Leizarra musika eskolak hilaren 22an zabalduko du matrikulatzeko epea. Online egin beharko da eta Mariatxen Urkia zuzendariari deitu beharko zaio (609 83 53 17).

Odontologia estetikoa	Ortodontzia
Endodontzia	PADI zerbitzua
Inplantologia	Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55

"Harrobian eragin behar dugu, haurrak motibatuz"

LORE ETXEANDIA LEINTZ ARIZMENDI FUTBOL TALDEKO JOKALARIA

Aretxabaleako futbol jokalaria taldearen ibilbideaz, emakumeen futbolaz eta aurrera begira dituen taldeko helburuez eta asmo pertsonalez mintzatu da

Imanol Beloki ARETXABALETA

Lore Etxeandia (Aretxabaleta, 1995) Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailako Leintz Arizmendi futbol taldeko bigarren kapitaina da. Bere ibilbidean zehar gol politak sartu ditu, eta, denboraldi bikaina egin ostean eta Gipuzkoako Federazioak liga bukatutzat emanda, Euskal Ligan arituko da datorren denboraldian. Taldeko beteranoetako bat izanda, jarraitzeko gogoz dago, aurrera begira helburu garbiak izanda, eta emakumeen futbola indartu guran.

Arizmendi taldea sortu zenetik, eboluzioa izan duzue klubean, ezta? Aurrerapauso bat izan da?

Hasiera batean, Arizmendi taldea zegoen, alde batetik, eta, bestetik, Mondra. Lehia handia geneukan gure artean, eta ematen zuten ezinezkoa izango zela bi taldeak batzea, baina, hala egin, eta Leintz Arizmendi sortu genuen. Iaz, berriz, Aloña ere batu zen bigarren taldera, eta, horrela, sendotasuna lortu dugu; beraz, oso pozik eta harro nago proiektu honekin, funtzionatu du, eta bide beretik jarraitu beharko genukeela uste dut.

Sekulako denboraldia egin du taldeak, eta, ezohiko moduan bada ere, igoera lortu du. Pozik sariarekin? Ospatzeko modurik izan duzue?

Duela hiru urte inguru Euskal Ligan geundela mailaz jaitsi ginen. Taldekide askok futbola utzi zuten... Hala ere, gaur egun, ematen du maila onean gaudela, eta horren adierazle da igoera lortu izana. Beraz, oso pozik gaude taldeak egindakoarekin. Gainera, Aloñatik zenbait jokalaritari etorri dira, laguntza eskaini digute, eta azpimarratzekoa izan da beraien ekarpena. Hala ere, oraindik ez dugu ospatzeko aukerarik izan. Apirilean sagardotegira joatekoak ginen, baina, ezin izan genuenez egin, ospatzeko gogoz gaude. Egingo dugu zerbait...



Lore Etxeandia Leintz Arizmendi futbol taldeko jokalaria baloiarekin. GOIENA

"BEHEKO MAILETATIK HASI BEHAR DUGU ERAIKITZEN, HARROBI SENDOA LORTZEKO HELBURUAREKIN"

Inork ezagutzen badu taldea, hori zu zara; zenbat urte daroazu? Oraindik jarraitzeko gogoz?

Zazpi edo zortzi urte inguru daramatzat taldean, eta oraindik jarraitzeko gogoz nago; taldearekin zein futbolarekin. Hala ere, emakumezkoen futboleant, 24 eta 25 urtetik gorakoak uzten joaten dira poliki-poliki, eta pena da. Beti arazo bera izan arren, ni oso gustura nago, eta, lesiorik izaten ez badut, behintzat, jarraitzeko asmoa daukat.

Zerbait lortu nahiko zenuke futbol ibilbidea bukatu aurretik?

Taldean jende asko utzita gusatuko litzaidake bukatzea nire ibilbidea. Geroz eta haur gehiago nahi ditugu taldean, baina horretan, gorago gauden mailetako jokalariorik egin behar dugu indarra. Hala, erreferenteak ere izan ditzaten. Gaztetxo oso onak daude, baina motibatuta egotea-

ri eta futboleant jarraitzeari ematen diogu garrantzia, kalitateari barik.

Dena den, emakumezkoen futbolak pauso handiak eman dituela azken urteotan esango zenuke?

Uste dut goi mailako taldeetan pauso handiak eman direla, baina behetik hasi behar dugu eraikitzen harrobia. Jende falta dago, gizonezkoen mailarekin alderatuz. Kasu honetan, diru asko mugitzen da, eta ez dute arazo hori. Horrekin batera, Eibarrek eta Realak, esaterako, fitxaketa asko egiten dituzte, eta herri txikiak asko kaltetuak irteten gara hortik, jokalaritari barik geratzen baikara.

Futbol jokalariz betetako familiako kidea zara, baina guztiak gizonezkoak. Haien bano gutxiago baloratua sentitu izan zara?

Emakumeak gehiago demostratu behar duela ematen du gizonen maila berean egoteko. Pauso bat atzetik gaude; autobusak ez dizkigute jartzen, kuota ordaindu behar izaten ditugu... Hala ere, egoera aldatzen doa pixkanaka. Zuzendaritzetik hasi dira konturatzen, eta poliki-poliki baldintzak aldatzen ari direla ematen du.

Voces Riberas eta Havana 537 izango dira asteburua girotzen

'7x7 kultura kalean' egitasmoaren barruan, jotak izango dira gaur, eta Kubako musika domekan

I.B. ARETXABALETA

7x7 kultura kalean ekimenaren barruan, gaur, egubakoitza, Nafarroako Voces Riberas taldeak kantaldia eskainiko du, 19:00etan, herriko plazan. Sei lagunek osatutako taldea da, eta nafar folklorean zeresan handia duen jotak abesten dituzte. Guztira, ordubete inguruko saioa izango dela adierazi dute Udaletik.

Domekan, berriz, Kubako musika tradizionalen sustrai sakonak dituen Havana 537 taldeak kontzertua eskainiko du, 19:00etan, Mitarte kalean –ordubete saioa–. Bere proposamen musikala saltsaren egungo korrante guztia hornitu duen genero musikala ezagutaraztea da, *son cubano* delakoa.

Hala ere, asteburu honetako saioak lekualdatu egingo dituzte eguraldi txarra eginez gero; Iturrigorri frontoira.



Voces Riberas, Santa Ritan. MIRARI ALTUBE

Amaitzeko, haurrentzako saioa

7x7 kultura kalean egitasmoari amaiera emateko, bestalde, ekainaren 25ean, haurrentzako Zirkus Zirkus konpainiaren *Zine-maz Blai* ikuskizuna izango da Kurtzebarri eskolako kantxan, 19:00etan.

'Udaero' aisialdi programan izena emateko epea, zabalik

Aurten ere, uztailean zehar nerabeentzat zuzendutako *Udaero* nerabeentzako aisialdi eskaintza hezitzailea antolatuko dute. Programa hiru txandatan egingo da: uztailearen 6tik 9ra, 13tik 17ra eta 20tik 24ra.

DBH-1eko eta DBH-2ko erabil-tzaileek bi asteko eskaintza txandakatua izango dute, eta *Gaztekonkis* abentura formatuan

izango da. DBH-3ko eta DBH-4ko erabil-tzaileek, bestalde, astebeteko eskaintza izango dute, eta izena eman dutenen artean erabakiko dituzte egingo diren jarduerak.

Izen-ematea online egingo da udal webgunean, edo kartelean agertzen den QRaren bitartez, eta norbanako bakoitzak bana-ka eman beharko du izena. Epea, berriz, ekainaren 19ra arte dago zabalik. Informazio gehiago nahi duenak 688 65 12 05 telefono zenbakira deitu dezake.

UDAK batzar orokorra egingo du uztailearen 10ean, Arkupen

Uztailearen 10ean, ohiko batzar orokorra egingo du UDAK Arkupen. 18:30ean izango da bilera –lehen deialdia 18:00etan–, eta honako hau izango da gai zerrenda: aurreko batzarreko aktaren onarpena, 2019-20 denboraldiaren eta diru kontuen berri ematea, 2020-21 denboraldiaren aurkezpena eta 2020-21eko diru kontuen onarpena.





Eskoriatzako Joseba Iñurrategi pilotalekuko sarrera. IMANOL BELOKI

U-12ko hauteskundeetako hauteslekua, frontoian

Hauteskundeetan, kultura etxea izaten da botoa emateko hauteslekua Eskoriatzan, baina, herritarrek botoa emateko eskubidea "bermez osoz" gauzatu dezaten, Joseba Iñurrategi pilotalekura lekualdatzea erabaki dute udal ordezkariak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Uztailaren 12an izango dira Eusko Jaurlaritzaren berria osatuko duten legebiltzarkideak aukeratzeko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, eta Eskoriatzako Udalak hauteslekua lekualdatzea proposatu du. Ohiko kokalekua kultura etxea izan da, baina, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren gomendioei jarraituz, segurtasun distantziak bermatzeko eta mahaietan pilaketak saihestu ahal izateko, Joseba Iñurrategi pilotalekua egokiago dela adierazi dute.

"Hauteskundearen deialdia egin zenean, idazkariak eta teknikariek kultura etxeak ez zuela segurtasuna bermatzen ikusi zuten, eta frontoia eta Luis Ezeiza herri eskolako eraikina planteatu ziren, hasiera batean. Eskolan arazoak ikusi genituen, eta, azkenean, frontoiaren kanxaren zabalera ikusita eta norabide bakarreko ibilbideak egiteko egoki ikusita, bertan egitea erabaki dugu", adierazi

du Josu Ezkurdiak, Hirigintza eta Mugikortasuneko batzordeburuak.

"Guk ere hala eskatu genuen. Pilotalekuak segurtasun hobea goarekin bozkatzeko aukera ematen digu, segurtasun eta osasun neurriak bermatuz. Betetzea espero dugu...", adierazi du, bestalde, Eluska Irazu EH Bilduko bozeramaileak.

Maskara, derrigorrezkoa


Ohi moduan, Eskoriatzan izaten diren lau hauteskunde mahaiak frontoian jarriko dituzte, eta pilotalekua hautesleku moduan erabilita, gainera, sarbidea eta irteera ate ezberdinetatik jartzea ahalbidetzen du. Santa Auzotik sarrera izango litzateke, eta ir-

JOSEBA IÑURRATEGIKO HAUTESLEKUAN LAU HAUTESKUNDE MAHAI IZANGO DIRA

teera, berriz, atzetik, Luis Ezeizako kantxa aldetik.

Hala ere, zenbait neurri hartu beharko dituzte herritarrek botoa ematera doazenean. Kantxan egongo diren hauteskunde mahaiak hesien bidez bereizita egongo dira, eta ibilbideak lurrean markatuta jarriko dituzte. Batetik, mahaietara sartzeko, eta, bestetik, behin botoa emanda irteerara joateko. Jende nagusiarentzat, gainera, bide berezi bat jarriko dutela gaineratu dute, horiei lehentasuna emateko.

Ohiko kabinak ere jarriko dira, boto-paperekin; hala ere, botoa prest izatea gomendatu dute, segurtasun handiagoa izateko. Sartzean zein irtetean, gel hidroalkoholikoaren dosifikagailuak egongo dira eskuak desinfektatzeko, eta maskarekin joatea derrigorrezkoa izango da. Horrekin batera, nortasun agiria soilik erakutsi beharko da, eta botoa norberak sartuko du kutxan.



Eskoriatzako Udal Bibliotekak astelehenean ireki zituen ateak. I.B.

Astelehena ezker dago zabalik Eskoriatzako Udal Liburutegia

Erabiltzaileek mailegua eta liburuak itzultzeko zerbitzua bakarrik erabili ahal izango dute, oraingoz

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako Udal Liburutegia martxan da berriz, astelehena ezker, COVID-19ra egokitutako araudi berriarekin. Hori horrela, erabiltzaileek eta langileek hedapen-arriskua murrizteko ezarri diren segurtasun-neurriak bete beharko dituzte. Hala, liburutegiko esparruak eta aldizkari eta egunkarien gunek itxita egongo dira, oraingoz, eta erabiltzaileek mailegua eta liburuak itzultzeko zerbitzua bakarrik erabili ahal izango dute. Ordutegia, berriz, honako hau izango da: astelehenetik egubakoitzera 10:30etik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara.

Liburu bat nahi dutenek liburu katalogoa kontsultatu ahal izango dute, Katalogoak.euskadi.eus webgunean. Bertan ikusi daitezke bibliotekan dauden liburuak, eta bertara joan aurretik mailegua eskatu beharko

dute, honako bide hauetako bat erabiliz: telefonoz, 943 71 31 35 zenbakira deituta; biblioteka@eskoriatza.eus helbidera idatzita; edo Whatsappez, 674 11 19 55 zenbakira idatzita.

Segurtasunaz irekita

Eskuak desinfektatzea, maskarak erabiltzea eta segurtasun-distantzia mantentzea nahitaezkoak izango dira liburutegira sartzean. Hartara, sarreran gel hidroalkoholicoa egongo da, sartutakoan eskuak garbitzeko. Bestalde, momentuz, liburutegiko komunak itxita egongo dira.

Liburuak liburutegira itzultzean protokoloa bat ere jarraituko da. Hau da, itzultitako materiala manipulatu aurretik, 14 egun ez erretiratu egongo da. Horrela bermatuko dute liburutegitik mailegurako ateratzen diren materialak desinfektatuta daudela.



"Hau ez da joko bat, gauza serioa da"

ITXASO ELKOROBARRUTIA SENARRAK COVID-19A GAINDITU DU

Jose Antonio Gruzetak COVID-19 gaitza harrapatu zuen martxoan; bailarako lehen kasuetako bat izan zen, eta etxean izan duten egoera "gogorra" izan dela adierazi du

I.B. eta E. A. ESKORIATZA

Jose Antonio Gruzeta eskoriatzarrak, bi hilabete luzeren ostean, COVID-19a gainditzea lortu du. Bailarako lehen kasuetako bat izan zen, eta oraintsu arte ibili da gaitzaren aurka borrokan. Bere emazte Itxaso Elkorobarrutiak etxean izan duten egoeraren berri eman du; zaila eta gogorra izan dela adierazi du.

Nola konturatu zineten Jose Antoniok COVID-19 gaitza zuela?

Hasieran, sintoma muskularrak izan zituen soilik, eta lehenengo egunetan ez genuen pentsatu koronabirusa izan zitekeenik. Gero, hirugarren egunean, sukarra zuen, eta orduan, gure neurriak hartu genituen, gizona logelan bakartuz... Noraezean zegoen egoera, eta informazio handirik ez zegoen oraindik.

Zein neurri hartu zenituzten?

Logelan sartu genuen, eta berrogeialdia egin dugu etxeko guztiok. Gizona, hamar egun sukarrarekin egon ostean, zentrorra eraman zuten, eta bertatik Gasteizera, Txagorritxura. Aldebiko pneumonia larria izan du, eta, ospitalean 11 egun ostean, etxera etorri zen. Handik bederatzigunera, sukarrarekin hasi zen berriro, eta, aortan tronbo bat zuela ikusi zuten. Horrek giltzurrunean eta bazoan beste tronbo batzuk sorrarazi dizkio. Hala, 14 egun egin zituen gero ospitalean, eta, medikuek ere informazio gehiago zeukatenez, hoberantz egin genuen. Medikua ere izan dugu etxean...

Egoera gogorra, beraz?

Hasiberri-saria ordaindu dugu guk. Galduta egon gara, familiarikoei ez digute probarik egin, eta ez dakigu pasa dugun ala ez... Gaur egun, berriz, itxuraz oso ondo dago nire gizona, nahiz eta barrutik ondorio txarrak dituen; beraz, asko zaindu beharrean dago. Oraindik laneko bajaran jarraitzen du, eta luzera-ko egoera dela esan diote.



Itxaso Elkorobarrutia eskoriatzarra. ENEKO AZURMENDI

"COVID-19A EZ DA TONTOKERIA BAT, OSO LARRIA DA, ETA AZKARREGI ARI GARA AURRERA EGITEN"

Zein izan da zuen egunerokoa etxean?

Jose Antonio logelatik irten gabe egon da, eta erabiltzen zituen gauzak aparte izan behar dituzu. Hala, komunera irteten bazen, dena desinfektatu beharra izaten genuen; berak bere labana zuen, bere platera... oso zaila izan da. Gainera, inork gehiago ezin du erabili berak erabilitako objekturik, eta, bereziki, halako elementuak desinfektatu behar izan ditugu.

Etzekook izan duzue sintomarik?

Ez, baina nik izan dut tentsioagatik... eta duda hori daukat. Ez dakit pasa dudana edo ez; izan ere, oraindik protokoloak ez du markatzen aurretik pasa dutenen familiarikoei testa egitea. Gaur egun, bizikideei ere egiten zaie proba, baina gu hasierakoak garenez ahaztuta gaude. Uste dut agintariak bideratu beharko

luketela hasierako kasuen bueltan egon direnei proba egitea. **Zer izan da gogorrena?** Ezjakintasuna. Inpotentzia izan dugu, gaixotasun hau ezezaguna izan delako. Hasiera batean, gripe gogor bat izango balitz bezala saldu digute, baina ez da horrela. Gaixotasun larria da, ez da tontokeria bat, eta hau ez da joko bat. Gauza serioa da.

Jose Antoniok gaizki egon zen uneko zein oroitzapen ditu?

Ospitalean egon dela eta gorputza beherantz begira izan duela oroitzen da. Tuboz, maskaraz... josita ere egon dela badaki, baina noiz joan zen ospitalera, zenbat egun egon den... ahaztuta dauka. Hala ere, kontziente da benetan gaizki egon dela.

Lehen pertsona bizi izan dituzue koronabirusaren ondorioak. Zein mezu bidaliko zenizkieke gainontzeko herritarrei?

Larregi azkar goazela aurrera uste dut nik. Agian, interesak daude aurrera joateko, baina pixkanaka joan behar da, lasai, eta distantziak mantenduz... Nik beldurra daukat, eta beldur hori geratu zait, eta nire seme txikiena ere hala dago; asko kostatu zaio kalera irtetea.

Jaietarako, leihoak eta balkoiak apaintzeko dei egin dute

Eskoriatzako banderarekin, ikurrinarekin, marrazkiekin eta euskarazko esaldi lehiaketa irabazi duen esaldiarekin

I.B. ESKORIATZA

San Pedro jaiak bertan behera geratu badira ere, ekitaldi sinboliko batzuk egingo dira. Hala, Eskoriatzako Udalak eskoriatzarrak guztiak animatu nahi ditu balkoiak eta leihoak apaintzera ikurrinekin, Eskoriatzako banderarekin, marrazkiekin eta euskarazko esaldi lehiaketa irabazi duen esaldiarekin.

Hori horrela, atzo ezkerro, salgai daude Eskoriatzako banderak, 10 euroko prezioan, Dorleta liburu-dendan, Zarus goxo-dendan eta Carmen mertzerian.

Era berean, banderak saltzen diren dendetan paperezko kopiak ere egongo dira, nahi duenak hartu eta etxean margotzeko, eta gero, leiho eta balkoietan jartzeko. Gainera, nahi duenak Eskoriatzako banderaren marrazkia deskargatu dezake Eskoriatzako udal webgunetik.

Horrez gain, leiho eta balkoi apaintzeko zabalkundea emateko, argazkiak eta bideoak sare sozialetan partekatuz animatu nahi dituzte herritarrak, honako traol hau erabiliz: *#eskoriatzako balkoiak*.

'Udaero' eskaintza moldatu arren, erronka ugarirekin dator

Nerabeei zuzendutako udako eskaintzan izena emateko azken eguna ekainaren 26a izango da

I.B. ESKORIATZA

12 eta 16 urte bitartekoentzako udako eskaintza da *Udaero*. COVID-19a dela eta, aurreko programa laburragoa, talde txikitik eta kanpora irteerarik gabekoa izango den arren, erronka eta probaz beteta etorriko da.

Uztailaren 6tik 17ra, DBH-1eko eta DBH-2ko ikasleei zuzenduta *Gaztekonkis* lehiaketa antolatuta dute. Talde bakoitzak proba desberdinak gainditu beharko ditu, herriko eta inguruetakoa txokoetan. *Coviolinpiadak*, *basko scaperooma* eta abilezia

jokoak izango dira, besteak beste. Parte hartzaileak gehienez 15 laguneko taldeetan banatuko dira -hezitzaileak barne- eta goizeko edo arratsaldeko txandetan egingo dituzte ekintzak. Guztira, 30 plaza eskainiko dira.

Uztailaren 20tik 24ra, DBH-3 eta DBH-4 ikasi dutenen txanda izango da. Hezitzaileen eta nerabeei artean erabakiko dituzte ekintzak; betiere, segurtasun eta higiene baldintzak beteta.

Izena emateko epemuga ekainaren 26a izango da eta prezioa, berriz, 15 euro.

Zetak taldearen kontzertua 'streaming' bidez Inkernun

NAIZ-ek sustatutako *streaming* bidezko kontzertuekin jarraituz, gaur, egubakoitza, 22:00etan, Zetak taldearen emanaldia ikusteko aukera izango da Inkernu tabernan, pantaila handian. Segurtasun neurriengatik, pertsona kopuru mugatua sartu ahal izango da tabernara. Hala ere, mahaiak erreserbatzeko aukera egongo da.

San Joan loreak jaso eta sendabelarrak ezagutzeko ibilaldia

San Joan loreak ezagutu, batu, eta haien ohiko erabilerak ezagutzeko -kataplasma, gantzua...-, ekainaren 23an, 16:30ean, ibilaldi gidatua egingo dute. Parte hartu ahal izateko, alde aurretik izena eman behar da, parte hartzaile kopurua mugatua delako; 650 49 51 66 zenbakira Whatsappez edo *kultura@eskoriatzak.eus* helbidera idatzita.


Entitateei Euskaraldira gerturatzeko gonbita

Norbanakoen erabaki esparruan aritzetik taldeetara ere egingo da salto Euskaraldiaren bigarren edizio honetan. Herriko zenbait entitatek interesa agertu dute, eta, batzordekideak martxan, beraiekin batzen ari dira informazioa emateko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan lelopean, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra, hamabost eguneko izango da Euskaraldiaren bigarren edizioa, eta Eskoriatzako batzordea martxan da, herrian zer eta nola egin antolatze lanetan.

Euskaraldiaren bigarren edizioan urrats berriak egingo dituzte, eta, norbanakoek ez ezik, entitateek ere neurriak hartzea gura da, hizkuntza praktika berriak bultzatzeko. Eremu antolatu eta finkoak diren heinean, bertako kide guztiei zuzenean eragiten diete hizkuntzaren esparruan bertan hartutako erabakiek, baita ingurukoei ere, zeharka. Gainera, entitateei eremu horiek babesteko eta sustatzeko konpromisoa eskatuko zaie, eta, epe luzerako helburua izanda, ariketa amaitzean, hizkuntza ohiturak aldatzeko hartutako urratsak egonkortzeko gonbita egingo zaie.



Ariguneak zer diren adierazten. GOIENA

Entitateei zuzendutako aurkezpena aurrez aurre egin behar zuten batzordekideek, baina, koronabirusaren alarma egogaren ondorioz bertan behera utzi beharra izan zuten, aurkezpen hartan esan beharrekoa

ren laburpena jasotzen duen bideoa egin dute, herriko elkar-entiteei zuzenduta.

Izen-ematea eta informazioa

Momentuz, izena emateko interesa agertu duten entitateak honako hauek dira: Eingeinke, Txistulariak, Zubiate, Almen, Jose Arana, Luis Ezeiza, Udala, Ederlan, Automation eta Udal Euskaltegia. Hala, izena nola eman behar duten azaltzeko eta bigarren edizio honi buruzko zalantzak argitzeko, Eingeinke, Txistulariak, Zubiate eta Ezeizakoekin elkartu ziren martitzenean, osoko bilkuren aretoan.

Hurrengo astean, berriz, beste entitate batzuekin elkartuko dira informazioa eta zehaztasunak emateko eta izena ematera animatzeko. Hala ere, azpimarratu gura izan dute batzordea irekia dela eta nahi duen edonork har dezakeela parte, helburua Eskoriatzan Euskaraldia bideratzea izanda.



Iaz, Leintz Gatzagako San Juan sua piztu zuten ueña. GOIENA

Sardina-janarik ez egon arren, piztuko dute San Juan sua

Ekainaren 23an, 21:00etan, plazan afaldu ostean, 22:00etan piztuko dute San Juan sua Leintz Gatzagan

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Sardinak eta sua izaten dira protagonista Leintz Gatzagako San Juan bezperan. Aurten, baina, zenbait neurri hartuta piztuko dute sua, eta, modu horretara, udako solstizioari ongi-egietorria eman, San Migel plazan. Hala ere, sardinak beharrean, txistorra eta hirugiharra izango da aurtengo menua.

"Sardinak egiteko, parriletan ezin dugu brasarik egin, maskarek su hartzeko arriskua dago eta. Horrenbestez, menua aldatu eta zartaginean egindako txistorra eta hirugiharra izango

da aurtengo menua. Normalean, sua egin aurretik zutik jaten dugu, mokadu eran. Aurten, berriz, mahaietan eserita eta gure arteko distantziak hartuz egin beharko dugu", adierazi du Garazi Orobengoak, Ogasun zinegotziak.

Suaren gainetik salto egin gabe

San Juan suaren gainetik ezin-ego dela saltorik egin azpimarratu gura izan du Orobengoak: "Erabiltzen ditugun gel hidroalkoholikoengatik... ezingo da aurten suaren gainetik salto egin".



CRISTINA CARDENAL

Gabez Takarraran, egunez

Aurten ez da Gabez Takarraran Eskoriatzako mendi lasterketa egin, eta zenbait herritarrek urteroko bidea egin gura izan dute, antolatzaileei eta urtero parte hartzen duten boluntario guztiei eskerrak emateko asmoz. Helduen lasterketak batzen dituen 23,2 kilometroko bidea egin zuten oinez, eta amaitzean, talde argazkia atera zuten Fernando Eskoriatza plazan.

Bizitzak erdigunean jarrita, giza katea egingo dute gaur

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunak -sindikatu eta eragile askotako plataformamobilizazioak deitu ditu gaurko, ekainaren 19a, egubakoitza. Hain zuzen ere, Eskoriatzan, *Publikoa eta funtsezkoa zaindu, aberastasuna banatuz. Lehenik bizitza!* lelopean giza katea egingo dute.

Hori horrela, Fernando Eskoriatza plazatik Intxaurtxueta auzoko Partxis plazara bitartean herritarrei batzeko dei egin diete antolatzaileek. 19:30erako egin dute hitzordua, herriko plazan, eta, bertatik hasita, giza katea eginez Partxis plazaraino iristea da ekimenaren asmoa.

Gipuzkoatik ez, baina hasi da turismoa Gaztainuzketan

Udako kanpaina martxan jarrita, Espainia osora ireki dute Gaztainuzketa mendi-etxeen eskaintza

I.B. LEINTZ GATZAGA

Konfinamenduan zerbitzua eskaintzen jarraitu duten arren, ez dute turistarik izan Gatzagako mendi-etxeetan. Hala ere, joan den asteburuan zenbait bezero izan zituztela adierazi du Kepa Atutxak, Gaztainuzketa mendi-etxeetako jabeak. Hala ere, Bizkaitik eta Arabatik etorri zaizkien arren, gipuzkoarrak igarri ditu faltan.

"Konfinamenduaren ondoren hasi dira bezeroak heltzen Gaztainuzketa mendi-etxeetara, joan den asteburutik hasita. Bizkai-

tik eta Arabatik heldu zaizkigu. Hala ere, Gipuzkoatik ez da inor etorri, eta arraroa da. Badirudi gipuzkoarrentzat ez dela erakargarria lurralde barruan ditugun basoak bisitatzea, eta hori sustatu beharra daukagu. Ea lortzen dugun...".

Egoera berezia den arren, udako kanpaina jarri du martxan Atutxak, eta adierazi du daukaten eskaintza Espainia osora zabaltzea dela asmoa: "Sare sozialetan egoeraren arabera ari gara, baina eskaintza zabaltzeko ordua da".



Irekiera datorrela-eta egoera berrirako propio ipinitako gel edukiontzia betetzen, Ozkarbi elkartearen. L.Z.L.

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Ozkarbi da bazkide gehien dituen elkarte herrian. Gazte txokoa ere badu, eta erretiratuen egoitza da. Elkarte zabaldu edo ez erabakitzea eta zabaltzekotan zein neurri hartuta ez da erraza izan. "Buelta asko eman dizkiogu kontuari. Kezka handiena garbitasuna eta desinfekzio lanak izan dira, eta horren inguruko arauak jartzea erabiltzaileei", adierazi du Ozkarbiko presidentek Zuhaitz Uzuriagak. Makina bat bilera egin dute indarrean dagoen arau esparrua aztertzeko. Emaizta izan da bost orriko arautegi bat non bazkideei erabilera irizpideak eta gomendioak ematen zaizkien. Posta elektronikoz eta postaz jaso dute egunotan. "Kartelak jarriko ditugu elkartearen, baita ere gel hidroalkoholikoak, desinfektatzaile banagailuak, paperezko mahai-zapiak eta ezpain-zapiak, kafea hartzeko edalontzi organikoak... Segurutasun distantziak mantentzeko, mahai batzuk kendu egin ditugu, eta erreserbak Internet bidez egiteko aukera jarri dugu". Egun bakoitzeko, gehienez, hiru eskari onartuko dituzte Ozkarbin, eta itxiera ordutegia ere ezarri dute: asteburuetan, jaiegunetan eta jai bezperetan 02:30 eta aste barruko egunetan, berriz, 01:00. Astelehenean eta eguaztenetan elkarte ez da erabilgarri egongo; izan ere, ez dago garbitzailerik.

Barran, bestalde, pertsona bakarra egon daiteke eta sukala

Ozkarbi, Intxorta eta Mendi Mendia elkarteak ere laster zabalik

Mendi Mendia elkarteak aste bukaeran zabalduko ditu ateak, Intxortak astelehenean eta Ozkarbi eguaztenean. Arduradunek makina bat lan saio egin dute erabilera-irizpide berriak ezartzeko. Erabiltzaileei arduraz jokatzeko eskatzen diete

dean, gehienez ere, hiru lagun, eta maskarekin. Ez da ez egunkaririk, ez kartarik, ez mahai-futboleko makinarik egongo, eta derrigorrezkoa izango da sarterakoan zein irteterakoan eskuak garbitzea eta erabilitako eremu eta gain guztiak ondo garbitzea, telebistako urrutiko agintea eta komuna barne.

Tazak, koilaratxoak eta plater txikiak erretiratu egin dituzte, eta erabili ostean errefusera botatzekoak diren edalontzi organikoak ipini dituzte. Zikindutako gainerako ontzi guztiak garbitzaileak garbituko ditu.

EGUNEKO HIRU ESKARI ONARTUKO DITUZTE OZKARBIN, ETA BAKARRA MENDI MENDIA ELKARTEAN

Gazte txokoko erabiltzaileek arau berak jarraitu beharko dituzte aurrerantzean.

Mendi Mendian ere neurriak

Hamazazpi bazkide dira, eta aste bukaera honetan zabalduko dituzte ateak Salbador kaleko elkarteak. Jose Ignacio Manso da presidentea: "Ez gara asko, eta arau batzuk errespetatu posible ikusten dugu elkarte berriz ere zabaltzea. Hori bai, bazkideei erantzukizunez jokatzeko eskatzen diegu; izan ere, gutxieneko arau horiek betetzen ez badira, berriz itxiko dugu elkarte".

Ezarritako protokoloak hainbat eskakizun egiten ditu, eta Mendi Mendian ere ipini dituzte gel hidroalkoholikoa, produktu desinfektatzaileak, botatzekoak diren mahai-zapiak eta ezpain-zapiak, eta abar. Erabilerari dagokionez, erabaki dute *egun*

bat bazkide bat sistemarekin funtzionatzea. "Debako Itsasgain elkartearen horrela dihardute, eta gure elkartearen ezaugarriak kontuan izanda sistema egokia iruditzen zaigu". Hala, eguneko talde bakar bat sartu ahal izango da. "Lauko talde txiki bat bada ere, bakarrik egongo da elkartearen. Solairu bakarra eta komun bakarra ditugu, eta pentsatu dugu eguneko bazkide batek erabiltzea elkartearen. Iluntzean, garbitzaileak bere lana egingo du. Garbiketa eta desinfekzio sakonagoak egiteko eskatu diegu, eta, modu horretan,

INTXORTA ELKARTEAN EGUNEKO HIRU ZERBITZU EMATEKO AUKERA DUTE, LAU TERRAZA ERABILITA

elkarte prest egongo da hurrengo egunean beste bazkide edo talde batek erabiltzeko". Taldeak, gehienez ere, hamar-hamabi lagunekoak izan ohi direla esan du Mansok.

Bazkideek elkarte erabili nahi dutela azaldu du, baina beldurra ere sumatu duela. "Neurri zorrotzak bete behar dira, eta isunak ere etor daitezke. Bazkideen artean kezka hori badago. Uste dut, ordea, guztiok errespetatzen baditugu arauak ez dela zertan arazorik egon. Guztiok jaso dugu erabilera baldintza berrien inguruko informazioa. Bete, eta ez da arazorik egongo!".

Intxorta, astelehenean zabalik

Intxorta elkarte zuzendaritzak eguaztenean egindako batzarrean hartu zuen azken erabakia: astelehenean zabalduko dute. 80 bat erabiltzaile dira. "Egunean hiru zerbitzu emateko moduan gaudela pentsatzen dugu. Lau ere izan daitezke taldeetako batek kanpoko terraza erabiltzen badu", azaldu du zuzendaritzako kide Jose Inazio Agirreazaldegiren Iri-k. Bi solairu dituzte Intxorta elkartearen, eta, hogeita laguneko kuadrillak elkartzen badira, taldeetako batek goiko solairuan egin beharko du otordua. "Sukaldean, gehienez ere, hiru lagun egongo dira. Hau da, kuadrilla bakoitzeko bat".

Intxortan ere buelta dezente eman dizkiote kontuari. Garbiketarako behar diren produktuak jarriko dituzte han ere. "Ozkarbi elkartearekin harremanetan izan gara, denok ere antzera jokatzeko. Sozioek irekitzeko eskatzen dute, baina ondo begiratu behar dira gauzak".

Gure Borda, maiatza ezkerro

Gure Borda maiatza amaiera ezkerro dago erabilgarri. Asentziora dagoen elkartearen ere baldintza bereziak jarri dituzte: aurrez erreserbatu behar da elkarte eta garbitasun eta distantzia neurriak errespetatu behar dira, beharrezkoa bada maskarak erabilita. "Eskuak garbitzeko xaboia eta botatzekoak diren mahai-zapiak eta ezpain-zapiak ipini ditugu", adierazi dute zuzendaritzatik. "Erabili ostean bazkideek lixibarekin garbitu behar dute dena". Sozio gutxi dira, eta aire zabaleko eremua erabiltzen dute askotan. Asteotako erabileran ez dela arazorik egon adierazi dute arduradunek.

ARRASATE
JAIETAN!

SANJUANAK 2020

KORONABIRUS
GARAIA

San Juan bezperako ekitaldiak

•
Kiliki eta Erraldoien
Konpartsak 35 urte

•
Makalaren igoera:
aurten, kale

•
Jaietako kartelak eta egileak

•
San Juan irudia: XVIII. mendeko
Udalaren enkargua

•
Jaietako protagonistak:
jai barik, "triste" eta "penatuta"

•
Zezen festak Arrasaten
XVI-XX. mendeetan



IMANOL SORIANO



Inoiz baino garrantzitsuagoa

**ZURE KONFIANTZAKO
GARBIKETA ENPRESA**

Hemen
garbiketak

Intxaurtueta 16, behea
ESKORIATZA
T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

COVID-19ak ez du San Juan jaien sua itzaliko

Udalak eta kultur eragileek ekitaldi sinbolikoa lotu dute San Juan bezperarako, eta, besteak beste, sua piztuko dute Plazan. Txosna batzordeak pregoia botako du, 25ean Eguzkilaruk kalejira egingo du eta 26rako presoan aldeko manifestazioa deitu du Sarek

Xabi Gorostidi ARRASATE

San Juan suak ahalmen berezi bat badu: gauza txarrak sutara botaz gero horiek ahazteko eta gauza positiboetan zentratzeko gaitasuna, hain zuzen ere. Gazteek ez dituzte eskolako apunteak sutara alferrik botatzen.

2020a nolakoa izaten ari den ikusita badago zer erre; nahi baino gehiago, akaso: gaixotasunaren erruz hil direnak, horiek behar bezala agurtu ezinik geratu direnak, hilabeteetako itxialdia etxean, orain arte izandako askatasuna kolpetik mugatzea, kaleratzeak, aldi baterako enplegu-erregulazio espedienteak, selektibitatea prestatzeko gorriak pasa dituzten ikasleak, diru-sarrerak etenda hilabeteak pasa dituzten dendariak... Zerrenda luzea, ez bairik gabe.

Gauza onak ere ekarri ditu, eta komeni da horiek aipatzea, nola ez: ospitaleetako langileek egin duten lan ordainezina, giroa alaitzeko ezer ez zegoen tokitik



Dragoia, sua pizten, 2018. urteko San Juan bezperan. IMANOL SORIANO

sortu diren festak eta dinamikak, 20:00etako txaloak, auzotarren artean artista ugari daudela ezagutzea, besteek erabiltzeko maskarak egitea eta halako ekimenak, eta, batez ere, orain arte balio handirik izan ez duten

eguneroko gauzak zein garrantzitsuak diren jabetzea, besteak beste.

Betiko jairik gabe

Arrasateko Udalak maiatzaren 20an iragarri zuen, ofizialki, San

Juan jaiak ez zirela "beti ezagutu ditugun moduan" ospatuko. Ez kontzerturik, ez haurrentzako puzgarririk, ez erretiratuei omenaldirik, ez txosnarik, ez zezen-plazarik, ez su artifizialik, ezta makal altzatzerik...

Txosna batzordeak apirilaren 30ean iragarri zuen jaiak antolatzeke aukera baztertzen zuela, eta denbora kontua zen Udalak antzerako urratsa iragartzearena. Udalak, hala ere, atea irekita utzi zuen oharrean, ekitaldi sinboliko bat egiteko; betiere, herriko jaietan parte hartzen duten eragileekin elkarlanean landuta.

"Arrasateko Udalak, udal talde politiko guztien onespenerekin eta Kultura Batzordearen proposamenez, San Juan jaiak bertan behera uztea erabaki du; hala ere, jaiak irudikatzeke ekintza sinbolikoren bat egitea ez da baztertu. Udal ordezkariak jaietan antolatetan parte hartzen duten eragileekin elkartu dira erabakia partekatzeke eta, jaiak irudikatzeke ekintzaren bat egiteko eragileen ideia eta proposamenak entzuteke".

Ekintza sinbolikoaren osagaiak
Jaietako eragile antolatzaileek eta Udalak hitza bete dute, eta jai sinboliko bat lotu San Juan bezperako gau parterako. Herriko Plazan egingo dute, ekainaren 23ko jaiaren epizentroan, eta segurtasun arrazoiengatik ezin izango da publikorik ber-

taratu. Goiena telebistak zuzenez zuzenean emitituko du ekitaldia, hasi eta buka. Norbere etxeko telebistan edo mugikorrean ikustea gain, herriko tabernetako telebistetan ere ikusteko aukera izango da. Ordubeteko ekitaldia izango da, eta herriko zortzi eragilek hartuko dute parte. Horietako bakoitzak 5 minutu inguruko saioa egingo du, gutxi gorabehera.

Txalaparta jotzearekin hasiko da ekitaldia, 22:30ean. Handik bost minutura, sua piztuko du dragoiak, urteroko hitzorduari muzin egin gabe, eta, 22:40an, San Juan zortzikoa dantzatuko dute Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitz taldeetako dantzari trebeek. Dantzen ostean, bertsoen txanda izango da. Hala, 22:45ean, Ane Zuazubiskar bertsolari arrasatearra oholtzara igoko da, errima zorrotzekin herritarrak goxatzea, eta 22:50ean, txistulariek hartuko diote lekukoa. 22:55ean, herriko trikiti eskolako musikariak agertuko dira Plazako oholtzan, eta erlojuak 23:00ak jotzerakoan, aldiz, gaiteroak. Musakolako jaietan kalejirarik egin gabe geratu ostean, ziur gogotsu arituko direla azken

HERRIKO ZORTZI KULTUR TALDEK HARTUKO DUTE PARTE 23 GAUEKO EKINTZA SINBOLIKOAN

Gu ere arrasatearekin!!

ITURRIOTZ

ITZALA

MONTE

OKORETEGI

RUMBA

TXOKO II





1994ko entzierroa (Hala Bazan) . GOIENA

Goiena telebistan, lau saio

Bergarako jaietan eta Oñatiko corpusetan egin bezala, Goiena telebistak saio bereziak prestatu ditu San Juan jaiekin lotuta. Aurtengoak ezohikoak izango dira; ekintza klasikoetako asko faltan igarriko dituzte herritarrek. San Juan jaien gosea asetzeko gogoz dauden horiek adi egon daitezela, Goiena telebistak lau saio berezi eskainiko ditu eta. Lehena, gaur emitituko den *Hala Bazan* saioa izango da. 90eko hamarkadetakoa irudi paregabeak eskaintzen dituen programak duela hiru hamarkadako jaiak nolakoak ziren erakutsiko du, bi saioen bidez: lehena gaur, 21:00etan, eta bigarrena ekainaren 25ean, 21:30ean.

Aurretik esan bezala, ekainaren 23ko ekintza sinbolikoa zuzen-zuzenean emitituko du Goiena telebistak, 22:30ean. Saioa, ordea, ordubete lehenago hasiko da, 21:30ean. Miren Arregi kazetariak aurkeztutako saiora San Juan jaien bueltan protagonista izan ohi direnak gonbidatu ditu GOIENAK, eta, besteak beste, Danborradako patroia Eva Romero arituko da esatari.

Lauko zerrenda osatzeko falta den saioa San Juan egunean izango da. Aurten, Arrasate Musikalek ez du urteroko kontzertua egingo. Hala, 13:00etan, Arrasate Musikalek 2016ko jaietan Monterronen eskainitako kontzertua ikusi ahalko da, non, besteak beste, RIP talde arrasatearraren doinuak jo zituzten.

hauek. Handik bost minutura, 23:05ean, danborradako *Gora Arrasate* doinua entzungo da eta horrek irain bitartean danborradako kideak egongo dira Plazaren erdian. 23:10ean, San Juan ereserkia eskainiko dute eta ikurrinaren igotzea izango da, Goikobalu abesbatzako kideak udaletxeko balkoian izango dira. Iaz, elkarteak eta bertako abesbatza txikiak 30 eta 25 urte bete zituzten, hurrenez hurren.

Txosna batzordearen pregoia

Bertako partaideak ez dira geldi geratzen diren horietakoak, eta, urtero legez, pregoia irakurriz eta txupinazoa botatzen hasiko dituzte jaiak:

"Jaietako hasiera ematen dien txupinazoa eta pregoia izango ditugu 23 goizean. Jaiak ohi bezala ospatu ezinak ez du esan nahi giro berezia eman ezin diegunik egun horiei; beraz, guk ere, urtero bezala, pregoiarekin hasiko ditugu jaiak. Aurten txosnagunerik egongo ez denez, Santa Barbaran izango dugu hitzordua, eguerdiko hamabietan. Lagun zein senitartekoekin bertaratzeko gonbidapena egiten dizuegu. Azkenik, segurtasun eta babes neurriek baimentzen duten neurrian, jaiak ospatzera eta jaietz gozatzera bultzatu nahi ditugu arrasatearrak. Txosnagunerik gabeko urtea izango den arren, ez dadila aitzakia izan egun hauetan zerbait berezia ez egiteko".

Presoen manifestazioa, 26an

Aurreko urteetan 25ean egin arren, aurten 26rako deitu du Arrasateko Sarek; 19:00etan abiatuko da, Seber Altube plazatik. Txosna Batzordeak bat egin du deialdiarekin: "Josuren eta Unairen etxeratzea eskatzeko egin izan dugu urtez urte; eta aurten ere ez gara isilik geratuko. Unairi eta Josuri gure babes helaraztea inoiz baino beharrezkoagoa izango da eta".

Eguzkilaruren kalejira, 25ean

Urterik urte haurren eguna izan da ekainaren 25a, eta Txatxilipurdik ekintza sinbolikoa egin nahi izan du, haur eta gazteek zer gozatu izan dezaten. "Eguzkilaru Arrasateko kaleetan zehar ibiliko da, eta auzoz auzo pasatuko da *txatxililar* guztiokin batera eta haur eta nerabeei jai giroko poza ematera; eta Eguzkilaru pasatzean haurrak eta familiak mozorrotzera gonbidatuko ditugu", azaldu dute. Kalejira 11:00etan hasiko da, Musakolan.

Bi meza

Viktoriano Etxabe apaizak esan du bi elizkizun egingo direla: 23an, salbea, 19:00etan; eta 24an, 12:00etan, meza nagusia.

Bertso saioa

AEDk bertso saio bat egin nahi izan du, baina Udalaren oniritzi faltagatik uztailean egitea zertzen ari dira.

Telebistako saioen ordutegiak

Hauek dira San Juan jaiekin lotuta Goiena telebistak eskainiko dituen saioen ordutegiak.

Ekainak 19, barikua

- **21:00** *Hala Bazan* saio berezia, 90eko hamarkadako San Juan jaietako buruz.

Ekainak 23, martitzena

- **21:30** San Juan jaietako protagonistekin ordubeteko saioa.
- **22:30** Kultur taldeek eta Udalak antolatutako ekitaldi sinbolikoa, zuzen-zuzenean.

Ekainak 24, eguztana

- **13:00** 2016. urtean Arrasate Musikalek kideek Monterronen egindako kontzertua, non, besteak beste, RIP taldearen kantak moldatu zituzten.

Ekainak 25, eguena

- **21:30** *Hala Bazan* saio berezia, 90eko hamarkadako San Juan jaietako buruz.

Aurrera egiteko
giltza eskuan daukazu

GOAZEN,
ARRASATE!



San Juan egunean, ekainaren 24an, ohorezko aurrekoa eta zortzikoa egiten diote figurari, udaletxe aurrean. GOIENA

San Juanen figurak herria ezagutu zueneko

1762an, Arrasateko Udalak San Juan "gorpuzteko" eskaria egin zion Juan Xabier Araozkoari, eta Juan Munarrekoa eskultore elorriarrak zizelkatu zuen ekainaren 23ko salbeto protagonista den figura hori; tradizio handia daukan ekitaldia da salbea

Eneko Azurmendi ARRASATE

San Juan bezperan, ekainaren 23an, San Juanen figura udaletxetik elizara eramaten dute, udal korporazioaren laguntzarekin, eta elizan salbea egiten diote; Hilarion Eslavaren salbea, hain zuzen. Gero, figura elizan uzten dute, eta ekainaren 24an, meza nagusiaren ostean, udaletxera eramaten dute berriz, ohorezko aurrekoa eta zortzikoa eginda. Urte osoan bi ekintza horietarako erabiltzen dute bakarrik San Juanen figura. Gai nontzeko egun guztietan Aldai gaineko biltegi batean gordeta edukitzen dute.

"Gaur egun, indarra galtzen ari da, baina tradizionalki indar handia eduki du salbeak. Lehen, ezin izaten zen hutsik egin, arrasatear sentimendu gorena zen", azaldu dute Jabier Bengoak eta Jose Angel Barrutiabengoak, Arrasate Zientzia Elkarteak ki-deek. "Gu gazteak ginela, San Juan bezperan, 15:00etan kanpaiak eta etxafuegoak izaten ziren, bonba japoniarrak egoten ziren geroago, buruhandi eta erraldoiak ondoren, eta gero, salbera joaten ginen. Elizatik irtetea, oraindik kalean egoten ziren buruhandiak eta erraldoiak. Gauean, San Juan sua izaten zen. Danborrada gerora etorri zen", gaineratu dute.

Bederatziurrenari dagokionez, lehen, ekainaren 16an hasten zuten, San Juan egunean bertan bukatzeko. Hala ere, 1925. urte

inguruan, egun bat aurreratu zuten bederatziurrenaren hasiera. Hala, ekainaren 15ean hasten da orain, eta San Juan bezperan bukatu, salbearekin.

1927an hil zen Prudencio Balerdi organo-jolea. Garai haietan, ez zegoen abesbatzarik, eta banaka batzuek kantatzen zuten salbea; German Arenaza *Sastre* tenore ospetsuak, esaterako. Horrez gain, Jose Otxoa zen ahots baxua, Udal Bandako txistulari ere bazena. Ahotsak mugatuak izanik, Eskoriatzako Marianisten Abesbatza joaten zen Arrasatera.

San Juan eguneko meza nagusiari erreparatuta, bitxikeria moduan, Resurreccion Maria Azkuek esan zuen hainbat urtez, Joaquin Arin garai hartako parrokoaren gertuko laguna zen eta. Halaber, errepublika garaian zinegotzi karlistak eta nazionalistak bakarrik joaten ziren meza nagusira.

1762an egin zuten figura

Jose Mari Uranga zenak udal artxibotik ateratako informazioaren arabera, 1762. urtean, udaletxea bera eraiki berri zegoela, Arrasateko Udalak San

LEHEN, EKAINAREN 16AN HASTEN ZUTEN BEDERATZIURRENA; 1925EAN, EGUN BAT AURRERATU ZUTEN

HURRENGO FASEA, EUSKARAREN FASEA

Bizipoza eta osasuna!



txatxilipurdi

Juanen figura enkargatu zion Juan Xabier Araozkoari. "Figura berak diseinatuko zuen, seguruenik, eta Juan Munarrekoa eskultore elorriarrari eskatu zion zizelkatzeko", azaldu dute AZEko kideek.

Faktura, erdizka ordainduta

Udal Artxiboko informazioak dioenez, 1766ko martxoaren 31n, lau urte geroago, 773 erreal bakarrik ordaindu zituen Arrasateko Udalak, baina faktura 1.207 errealekoa zen. "Hori dela eta, falta zen dirua erreklamatu zion Udalari, eta ondorengo puntuak jasotzen zituen erreklamazio horrek", azaldu du Barrutiabengoak: "Udalak 550 erreal zor zion Antonio Ximenezi, figura margotzeagatik; 508 erreal, Juan Munarrekoa Elorrioko eskultoreari, figura hau idulkiekin, diadema batekin eta burdinazko iltze batekin egiteagatik; 75 erreal, Bizente Untzilakoa arotzari, figura garraiatzeko egurrengatik; 60 erreal, Mariano izeneko urreztatzaileari, irudia urreztatzeagatik; 8 erreal, Frantzisko Arexolakoari, bi iltzegtatik eta 6 erreal, San Juanen figura Elorriotik Arrasatera ekartzeagatik. Hala ere, ez da jakin gerora ordainketa osoa egin ote zuen Udalak.

Urangak jasotako txostenak dioenez, 1762. urteko San Juan jaietarako egin zuten San Juanen figura. "Beraz, ondorioztatu daiteke urte hartan hasi zirela

salbea egiten ere. Ezin dezakegu baieztatu, ez daukagu informazio zehatzik, baina izan daiteke. Udal Artxiboan informazio gehiago egongo da, seguruenik, baina koronabirusaren aurkako protokoloa dela-eta ezin izan dugu informazio hori eskuratu".

1762tik hona, ia urtero egin izan dute salbea. "Kontu erlijioso hauek oso eten gutxi izan dituzte historikoki", diote. Halere, bada salbuespen bat. "Errepublikara garaietan, esaterako, 1933an, 1934an eta 1935ean, ofizialki ez zen salberik egon; hau da, programan ez dago salberik, nahiz eta egingo zuten, seguruenik. 1936an, berriro ere agertzen da jaietako programan".

Krabelin gorrien sinbolismoa

XX. mende hasieran, antza, krabelin gorriak ziren Arrasateko San Juan jaien sinbolismoa. "Nire osabak [Jose Mari Uranga] bere gazte garaietako anekdota asko jasota ditu, 1910-1920 urte bitarte hartakoak. Horietako bat da, adibidez, San Juan jaietan arrasatearrek ohitura handia zutela papar-hegalean krabelin gorri bat jartzeko. Dotorre janzten ziren, eta krabelin

1726. URTEAN, JUAN MUNARREKOA ESKULTOREAK ZIZELKATU ZUEN SAN JUANEN FIGURA



San Juanen figura. GOIENA

gorria jarrita ateratzen ziren kalera. Hori zen jaietako bereizgarri nagusietako bat", azaldu du Barrutiabengoak.

Jaietako beste zenbait istorio

Horrez gain, Arrasate Zientzia Elkarteko kideek azaldu dutenez, eta Urangak jasotako informazioan oinarrituta, jaietako gastu guztiak zehatz-mehatz apuntatu izan dituzte beti: "Gasteiztik etortzen ziren musikariena, Nafarroatik ekartzen zituzten zezenenena, banderilleroei zenbat ordaintzen zieten, plazako ateak zabaltzen zituenari zenbat ordaintzen zieten. Detalle askorekin dago jasota informazio hori".

Dokumentua eskuan, San Juan jaietako lotutako hainbat kontu

izendatu ditu Barrutiabengoak; gehienak, zezenketei lotutakoak: "1587. urtean, adibidez, San Juan bezperarako eta egunerako bertarako, dantzariak eta poetak ekarri zituzten Arrasatera, eta poeta Arrazolakoak zen; 1617an, Madalenako errebelean zezenketa egin zituzten; 1624an, Gasteizko musikariak ekarri zituzten Arrasatera; 1631an, plazan jartzen zituzten taulak eta hesiak gero Madalenako ospitalean gordetzen zituzten; 1634an, hesi bat jarri zuten udaletxearen inguruan, zezenketa egiteko; 1638an, 180 erreal ordaindu zizkien Udalak torero eta banderilleroei; 1640an, San Juan egunean, zezenketa egin zuten; 1735an, 1.500 erreal ordaindu zizkien Udalak Jose Maria Galarza, Jose Migel Galarza eta Domingo Ignacio Okendokoari, Nafarroan txahalak eros zituzten; 1682an, pilotalekuan egin zuten zezenketa; 1777an, kontzeju berriaren eta Erdiko kaleko galtzada-harrizko zolaren inaugurazioa zela eta, 14 zezen atera zituzten plazara. "Ikusten duzuen moduan, zezenketez indar handia eduki izan dute historian zehar Arrasaten", azpimarratu du Bengoak.

KRABELIN GORRIAK SAN JUAN JAIEN SINBOLISMO NAGUSIETAKO BAT ZIREN XX. MENDEAN

Modu horretan, 1766an, udaletxea inauguratu zuten urtean, *Heriotz zezenak* izenpean jaietako ekintzarik garrantzitsuenetako bat izan zen herriko plazan egin zuten zezenketa. Gainera, 1886an, zezen-plaza bat inauguratu zuten Arrasaten, "kanpoaldean", Madalenako errebalaren bukaeran. Ez zuen askorik iraun, eta 1911n eraitsi zuten, 26 urte geroago.

Gerora, zezenketa hainbat urtez geratu izan dira bertan behera sanjuanetan eguraldiagatik, eta 1897an, esaterako, "publiko faltaren beldurrez", antolatu ere ez zuten egin -ikus 40. eta 41. orriak-.

San Juan sua eta makala

Beste kontu "interesgarri" bat, Barrutiabengoaren esanetan, hauxe da: "San Juan bezperan, suak pizten zituzten baserrien aurrean, eta jendeak suaren gainetik salto egiten zuten, horrek gaixotzeko arriskua kentzen zuelakoan. Hainbat gazte errekarra jaisten ziren, zuhaitza moztzen zuten, eta hurrengo egunean plazan jartzen zuten enborra, erabat zurituta. Puntan barazkiak jartzen zituzten, Arrasateko banderarekin. Gazteek gora igotzeko saiakera egiten zuten, baina oso zaila zen goraino igotzea. Halere, gogoratzen dut mutil gazte batek lortu zuela, gu txikiak ginela. Udalak saria ematen zion lortzen zue-nari", gaineratu du.

EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIEK GABE

geuriak geurera

Osorik • Iluntz
Taupa • Basati
Irati • Jai Zale
Dat • Etxoste





Konpartsa osatzen duten erraldoi eta kiliki guztiak, 2015eko San Juan jaietan. GOIENA

1985eko sanjuanetako lehen irteeraren ondoren, konpartsa ez da aterako

Arrasateko Erraldoi eta Kilikian Konpartsak 35 urte bete dituen urtean suspenditu ditu sanjuanak COVID-19ak; umeez ematen diete pena handiena: "Eurek disfrutatzen dute gehien erraldoiei begira edota kilikietatik ihesi; eutsi dezatela, itzuliko gara eta"

Jokin Bereziartua ARRASATE

35 urte bete dira aurten erraldoiak jira eta bira hasi zirenetik, 1985ean sortu zen-eta Arrasateko Erraldoi eta Kilikian Konpartsa. Sanjuanak ez daude ulertzerik konpartsaaren parte hartzerik barik, eta halaxe izango da: aurten ez dira kalera irtengo, eta San Juan jaiak ez dira ospatuko.

"Erabat" gelditzea eragin die COVID-19ak eragindako alarma egoerak, konpartsaaren sortzaileen artean dagoen Joserra Perezek dioenez: "Aratusteetan irten ginen azkenengoz, alarma egoera ezarri baino egun gutxi batzuk lehenago. Ordutik, ezin izan dugu entseatu ere egin". San Juan bezpera ekitaldian ez dira egongo: "Herriko Plazako ekintza sinbolikoan ez dugu parte hartuko, ez dugu ikusten konpartsa kide bi hor egotea, erraldoiak atera barik. Talde osoa egongo bagina, akaso... baina jendea pilatzea eragingo luke. Bideo txiki bat grabatzeko asmoa badugu, Goiena telebistan zuzenean emango duzun saio berezian eskaintzeko", aurreratu du Perezek.

Lehen irteera, 1985eko jaietan

35. urteurreneko ospakizunek "bereziak" izan behar zuten, baina "ahal denerako" utzi behar dituzte. Hori bai, 1985eko sanjuanetan egin zuten lehen irteera, eta irteera hartako ki-deetako bat izan zen Joserra Perezek aitortu du memoria egin behar duela ezer gogoratzeko: "Lehenengoz irten ginen talde hartatik bi lagun bakarrik geratzen gara gaur egun konpartsa barruan. Aspaldiko kontua da dagoeneko. Orduan gu ere umeak ginen, eta sekulako ilusioarekin abiatu ginen. Hasiarik harrapatu gaituen kontua izan da, eta 35 urte iraun izana bada esanguratsua".

Helduak erakartzeko arazoak

Hori bai, partaide kopuruari dagokionez gorabeherak izan dituzte eta taldea desagertzeko arriskuan ere egon da urte batzuetan: "Gorabehera asko eta handiak izan ditugu, baina oraindik hemen jarraitzen dugu. Belaunaldi berriei esker erraldoi txikiak eta ertainak dantzan jartzeko kopuru itxurosoa dugu, baina helduekin kili-kolo aritzen



LIZARRALDE

KIROLAK

Gu ere arrasatearrekin!



ARRASATE
Foruen Enparantza
San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47

OÑATI
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86

LEGAZPI
Patrizio Etxebarria 2
Tel.: 943 08 28 46



bertako
igogailuak | ascensores

+ 1.200

Liderrak zuri esker
bezero baino gehiago

24/7 24 orduko zerbitzua

 Pieza guztiak barne

 Euskarazko zerbitzu profesionala

OROTARIKO ZERBITZUA 100€ /hileko



 **ARRASATE** Garaia Berrikuntza Gunea

 943 903 450

www.bertako.eus

gara. Aratusteetan, esaterako, helduak ez ginen kalera irten jende gutxi zegoelako, eta er-tainak bakarrik irten ziren. Beti behar da jendea; hobe da 50 lagun izatea 20 izatea baino, lanak askoz arinagoak izaten direlako".

Hazten joan den familia

Gaur egun, hamabi erraldoik, zortzi kilikik eta lau zaldikok osatzen dute Arrasateko familia. Lau erraldoirekin hasi zen familia, 1448ko Arrasateren erre-keta eragin zuten buruzagi oinaztarrak eta ganboatarrak oinarri hartuta: Gomez Gonzalez de Butron eta Elvira Sanchez De Leiba; eta Martin Bañez de Artazubiaga eta Sancha Otxoa de Ozaeta Marzana.

Urte luzez bi bikote horiek izan ziren erraldioen familiako protagonistak; hain zuzen ere, haien tamaina txikiko imitazioak izan ziren familiako kide berriak, umeei begira sortuak. Ondoren etorri ziren pertsonaia mitologikoen erraldoiak, ume nagusienei begirako erraldoi ertainak: Errementaria, Mari, Basajauna eta Lamina.

Inkisorrea, ospe handiko kilikia

Erraldoiak ez dira erraldoi in-guruan kilikiak bueltaka izan barik. Kilikien artean urte luzez inkisorreak ospe handia izan zuela ere gogoratzen du Perezek, bereziki umeen artean izua zabaltzen zuelako. Inkisorreak gain, indianoa, baserritarra, errementaria eta bi piratak -ur-dina eta berdea- aritu izan dira, besteak beste, umeen atzetik korrika ipurdia berotu guran. Azkarrenak, hori bai, zaldikoak izan dira historikoki, pisu alde-tik arinen doazenak izateagatik.

"BI LAGUN GERATZEN GARA 1985EKO LEHEN IRTEERA HARTATIK"

"BETI BEHAR DA JENDEA, LANAK ARINAGOAK IZATEKO"

"PENA EMATEN DIGU UMEENGATIK, EUREK BIZI DUTE GEHIEN"

JOSEERRA PEREZ, SORTZAILLETAKO BAT

15 kilo gutxiago 2013a ezker

Erraldoi zaharrenek gazte jarraitzen dute, 1985erako egin zirenen itxura berbera dute eta gaur egun. Hori bai, barrutik izan dute aldaketarik, Perezek gogoratu duenez. 2013an, pisua "nabarmen" arindu zieten lau erraldoi zaharrenei: "Gainaldea aldatu genien, behealdea egurrezkoa delako. Gainaldearen kopia batzuk egin ziren pisu txikiagorekin; 1985ean egindakoek 60 bat kilo pisatzen zuten, eta 2013an 45 bat kilotan geratu ziren. Duela 35 urte, kapa sendoagoa jartzen zitzairen, eta orain, kapa fintxo batekin indar bera egiten da eta pisua asko jaisten da". Konpartsako kideek asko eskertu dute erraldoi pitsutsuenak arinagoak izatea, baita kide berriak konpartsa erakartzeko orduan ere.

Izan ere, Perezek berriro azpimarratu nahi izan du konpartsarekin kolaboratu nahi duen pertsona orok ateak "parez pare" dituela zabalik: "35 urte bete ditugu, eta beste horrenbeste bete ahal izateko boluntarioen lana ezinbestekoa izango da aurrerantzean ere".



Alarma egoeran umeendako atera duten ziurtagiria. ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSA

Ziurtagiria, "kaltetu handienentzat"

Konpartsako helduek argi dute umeak direla "kaltetu handienak", eta haiengatik sentitzen dute pena handiena: "Konpartsako umeak izan edo egiten ditugun irteeretan hurbiltzen zaizkigunak izan, eurek disfrutatzen dute gehien erraldoiei begira edota kilikien aurretik ihesi. Umeak dira gure atzetik datozenak, eta umeen atzetik datoz gurasoak". Konfinamenduak gehien kaltetu dituenak izan direla "argi" du Perezek, eta, ume horietako askorengan erraldoi eta kilikien konpartsa oso maitatua dela jakinda, ziurtagiri berezi bat atera dute, izan duten jarrera txalotzeko. "Esan nahiko nieke eusteko, hemendik ere irtengo garela eta konpartsak aurrera egingo duela. Ea lehenbailehen irteten garen ataka honetatik", gaineratu du Perezek.

mn
Mondragon
Unibertsitatea

LEARNING FROM REALITY



Espainiako Estatuko
5 unibertsitate onenen artean

BERRITZAILEA

Mundu osora zabaldu den hezkuntza eredu propio eta berritzailea eraiki duen unibertsitatea. **Bikaintasuna** ikasleen mugikortasunean.

multirank

PRAKTIKOA

Enpresari, errealitateari, atxikitako unibertsitatea. Gurean, <learning by doing> ez da eslogana, geure DNAn txertatu dugu, eta ondorioz, formazio dualean liderrak gara.

HURBILA

Lankidetzan aritu, batera sortu, elkarrekin jardun eta konfiantza giroan prestatzen diren pertsonak dira unibertsitateko protagonistak. **Bikaintasuna** ezagutzaren transferentzian.

multirank

KONPROMETITUA

Herrialde-proiektuarekin konprometituriko jende ekintzailea eta langilea ardatz duen kultura. **Bikaintasuna** inguruarekiko binkulazioan.

multirank

www.mondragon.edu



Arrasateko gazteak iaz makala jasotzen. GOIENA

Makalaren igoerarik gabeko bezpera eguna

Solstizioari lotutako festa egunak kolore tristea izango du aurten, ohitura den tradizioak kale egingo du-eta San Juan bezpera egunean. Hala, herriko gazteek ez dute plazaren erdian jaietako ikur den makalaren igoerarik egingo

Aitor Agiriano ARRASATE

Urteko egunik luzeena da San Juan bezpera eguna, sua piztu eta txarrak bertara botata ospatu ohi da egun hori. Aurten, ezohiko moduan bada ere, mundu osoko eta Euskal Herriko hainbat herri eta auzotan ospatuko da kristautasuna ezarri baino lehenagoko udako solstizioari lotutako festa eguna.

Gau horri lotuta dauden ohitura eta sinismenak mendeetan zehar mantendu dira Euskal Herrian: baserri zein etxeetako sarrera zein balkoietan, lizar edo haritz adarrak jartzen ziren, etxea babestuta mantentzeko asmoz. Eta, horretaz gain, eza-gunago dugun herriko plazan landare bat landatzeko ohitura ere bada nekazariendako adierazgarri den ekintza.

Hala, tradizio horri eutsiz, kolore biziz jantzen dute San Juan bezpera eguna Arrasateko gazteek: jaietako hasiera emateko, makalaren igoera egiten dute urtero.

Aurten, baina, ez da kolore biziko olaturik egongo kaleetan barrena, bizitzen ari garen ezohiko egoerak ekarriko du-eta,

azken urte hauetan guztietan ez bezala, Herriko Plazan protagonista izaten den San Jaun arborlarik ez egotea.

Tradizioa eta erronka

Hasieran, garabiak igotzen zuen makala bezpera egunez. Orain 38-40 urte dela, baina, Jose Luis Etxeberria *Porru*-k erronka bota zien bere lankide eta gertukoei: "Aretxabaletan eskuz igotzen dute, eta guk ez dugu horretarako potrorik edo? Zergatik ez?". Horrela bueltatu ziren arrasatearrak eskuz makalaren igoera egiteko ohitura berreskuratzera: "Erronka horri aurre hartu eta, nahi izanez gero, lankideek eskuz igoera egin ahal izateko antolatze lanak egiteko eskatu zidaten. Eta, hala izan zen. Anaia, gertukoak, lagunak... taldetxo bat batu ginen eta ekimena gauzatzeko beharrezkoak martxan jarri genituen", dio plazaren erdigunean makalaren altxatzea hainbat urtez gidatu duen *Porru*-k.

Ez da egun bakarreko kontua, hilabete lehenago hasi ohi dira makalaren igoera egin ahal izateko prestatze lanak. Lehen



OPEL
OPEL ZERBITZU OFIZIALA



San Andres Auzoa 10-D
Tel.: 943 77 30 10





epele
Calderería

pausoa makalaren hautaketa egitea da. Hala, azken 30 urteetan, Elorregi inguruko lurretan bilaketa lanak eginda hartu izan dute plazan igoera egiteko txopoa. Azken aldietan, berriz, ez dute erraza izan aproposa den txopoa bertan bilatzea, altuera dela, duen forma... eta inguruko beste leku batzuetara jo behar izan dute txopo edo gaur egun igoera egiterakoan erabiltzen den zuhaitz mota aproposaren bila. Ez baita urtero txopoa igo.

Hordagotik igoera eskuz egitera bueltatu ziren sasoiaren, adin nagusiagoko arrasatearrek gauzatzen zuten makalaren altxatzea. Urteak pasa ahala, baina, bilakaera jasan du horrek eta herriko gazteek hartu dute jaietako ikur den bezperako igoera egitearen ardura: "Gazteak dira sanjuanen etorkizuna eta hori irudikatzen du makalaren igoerak", dio Ana Ugalde historia-lariak. Hala, batxilergoko bigarren mailan diharduten herriko gazteek izaten dute bezpera eguneko herri bazkaria antolatu eta makalaren igoera egiteko ardura. Hori bai, betiere,

Makalik ezean, "pena"



JOSE LUIS ETXEBERRIA 'PORRU'

Pena handia ematen dit aurtan ez delako makalaren igoerarik egingo. San Jaun jaietako ikur berezi eta garrantzitsua da niretzako. Batez ere, igoera egin aurreko hilabetearen egiten genituen prestatze lanak. Bezpera, egun handia dena, berriz, egun txarrena izaten zen niretzako. Eguerdian hasi eta igoera egin artean urduritasuna zen nagusi nire barruan. Hasierako urteetan folklore ekitaldi handi bezala ospatzen zen eta ez zen batere erraza gazteak gidatzea. Azken urteetan, baina, zintzo eta aduratsu jokatu dute".



LIBE ARGOITIA

"Ikusle moduan bizi izan dut makalaren igoera gertutik, plazan. Ezustekoren bat edo besteren lekuko ere izan naiz orain urte batzuk Kajoi taberna aldera erori zenean. Azken bi urteetan igoeran parte hartu dut lagunekin, eta pena handien ematen didana da aurtan igoera egin ezin izanak. Egingo balitz, guri tokatuko litzaiguke eta herri bazkaria antolatu eta makalaren igoera egitea. Beste modu batean ospatuko ditugu festa egunak: Santa Barbara parkean egingo den txupinazoan izango gara lagunak, eta kuadrillako bazkaria egingo dugu".

udaltzain taldeko kide baten laguntza alboan dutela.

Gora eta behera

Ez da beti lehenengoan tinko zutik jarri makala. Hainbat ezusteko bizi izan dituzte mondra-goetarrek.

Atzera begirada eginda, 2014. urtean, adibidez, kiosko aldera erori zen makala, eta, eroriko haren ondorioz, mokorra apurtu zuen herritar batek. Beste urte batean, udaletxe aldera erori zen, eta agintaldi hartako zinegotzi batek gertutik igarri zuen, aurpegian, zuhaitzaren arrama.

Behin baino gehiagotan utzi izan ditu ikusleak tentsio eta arnasarik hartu gabe segundo batzuek makalak. Eta horietako une bat da plazan dagoen Kajoi tabernaren aldera erori zen urtean herritarrek bizi izan zuten ueña. Aldi hartan "txirripaz" libratu zela dio Jose Luis Etxeberria *Porru*-k, herriko udaltzain buru izandakoak, bertan ikusle moduan karro batekin zegoen emakumea.

Makalak gora edo behera egingo duen jakiteko, datorren ur-

tera arte itxaron beharko da, oraingoz.

Ospatzeko, bi ekitaldi

Jaiak bertan behera gelditu diren honetan, egoerara moldatu eta aurtan ez dute herriko gazteek jaietako emateko egiten duten herri bazkaririk egingo; Ezta ohitura den jaietako kamisetarik aterako ere, eta hain ezaguna den txopo-poteorik ere ez da izango kaleetan barrena txaranga doinuez lagunduta.

Hala eta guztiz ere, San Juan jaiak kolorez ziprizzintzeko bi ekimen prestatu dituzte txosna batzordeko kideek: alde batetik, jaietako emateko, San Juan bezpera egunean urtero egiten duten pregoiaren irakurketa eta txupinazoa botako dute. Ekainaren 23an izango da hori, martitzena, 12:00etan, Santa Barbara parkean.

Eta, bestetik, urteroko hitzordua ere izaten den manifestazioa egingo dute. Orokorrean, ekainaren 25ean egin izan dute. Aurtan, baina, ekainaren 26an, egubakoitza, egingo dute Sarek deitutako manifestazio deialdiarekin bat eginda.

ALDEDI

Gu ere arrasatearrekin!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

Jairik gabe ere, azken urteetako kartelak gogora

Itsaso Diego eta Leire Arregi arrasatear gazteak izan dira azken bi urteetan San Juan jaiak iragartzeko kartelaren egileak. Irabazle irten ziren urte hartako oroitzapenak eta egindako diseinua gogora ekartzeaz gain, aurtengoa nola egingo luketen azaldu dute

Jone Olabarria ARRASATE

San Juan jairik ez da egongo aurten; ez, orain arte ezagutu diren modura, behintzat. Eta, hortaz, festa horiek iragartzeko kartelik ere ez da izango. San Juan jaiak eta egitaraua ezagutzera emateko ezinbesteko material dira baina jai egitaraua, kartelak, zapiak eta pegatinak, eta azken urteetan, hain zuzen, Arrasateko jaiak ilustratzeko irudia aukeratzeko lehiaketa antolatuta du Udaleko Kultura Sailak.

Azken bi urteetan garaile irten diren artista arrasatearrak bat etorri dira eta San Juan jaiak iragartzeko kartela egitea "oho-

rea" izan zela aitortu dute, garaile atera ziren hainbat urte-tako zenbait bizipenekin batera. Hain zuzen ere, horiek dira Leire Arregi, 2018ko irabazlea, eta Itsaso Diego, 2019ko diseinuaren egilea. Biek ala biek eskuratu zuten 750 euroko saria garaile irten ziren urte hartako edizioan.

Jaietako elementuak ardatz

Iazko kasuan, hamaika lan aurkeztu ziren lehiaketara, eta *San Juanak goian behean* izeneko Itsaso Diego arrasatearraren lana aukeratu zuen epaimahaiak irabazle. Diseinu Grafikoko ikasketak egin ditu arrasatearrak

eta orain arte ilustrazioan eta argazkilaritzan aritu da Diego gaztea.

Aurretik ere bazuen esperientzia eta ez zen lehen aldia halako lehiaketa batean parte hartzen zuena: "Kartelak egiteko prozesua oso librea delako gustatzen zait halako lehiaketetan parte hartzea; honek esperimendatzeko eta teknika berriak ikasteko aukera ematen dit". Hala ere, ordutik hona ez du kartel lehiaketetan parte hartu.

Kanpoan zegoela, Txilen, harrapatu zuen Diego epaimahai-kideen erabakiak. Aitortu duenez, ama bidali zuen lana aurkeztera ere, eta garaile irten



2019. urteko San Juan jaietako kartela, bere egile Itsaso Diegoren eskuetan. J.O.

Zutaz arduratzen gara

Audi Q2 VW Caddy VW T-Roc Skoda Kodiaq Seat Arona

Gu ere arrasatearrekin!

UDALAITZ S.L.
Gipuzkoa etorbidea 36
20500 Arrasate

Tel.: 943 71 18 70 | Faxe: 943 71 18 71
udalaitz@otola.org | www.udalaitz-arrasate.com

zeneko berria "ezustean" hartu zuela onartu du. Orduan irudikatatu nahi zuenaz galdetuta, "ikuspuntu ezberdin bat" eskaini nahi izan zuela aitortu du, aurretik eginda zeuden diseinuetatik apur bat aldentuz: "Arrasateko San Juan jaiak identifikatzen dituen errementari dantza eta dragoiak pizten duen sua elementu protagonista hartuta, beste urte batzuetan egin denetik aldendu eta esperimentatzea erabaki nuen. Eszena goitik nola ikusiko zatekeen imajinatzen hasi nintzen, dantzariak eramaten dituzten gona eta motiboekin".

Arrasatear izanda, "ohorea"

Arte Ederretan lizentziaduna da eta sorkuntza eta ilustrazioa dira Leire Arregiren espezialitateak. 2018. urtean irten zen kartel lehiaketan garaile; ez zen lehenengo aldia kartelak eta ilustrazioak egiten zituena, baina bai bere lanak lehiaketa batera aurkezten zituena. "Langa bezian nengoen orduan eta lehiaketaren berri izan nuenean parte hartzea erabaki nuen" dio. 750 euroko saria, lanerako ma-

teriala erosteko erabili zuela aitortu du Arregik.

Egoera hartan, "ustekabeen" eta "pozez" hartu zuen irabazle atera zela esan zioteneko. Urte hartako oroitzapenak bereziak direla aitortu du: "Ohore handia da zure lana herriko etxeetan eta kalean euskarri ezberdinetan ikustea".

Errementari dantza oinarri

Duela bi urte bete ziren 25 urte errementari dantza egiten hasi zenetik, eta, horren berririk ez bazuen ere, urteurren hark bere alde jokatu zuela aitortu du Arregik: "Arrasateren ikono nagusi den dragoia erabili nahi nuen; hori garbi nuen. Gero, udaletxea, errementari dantza eta San Juan suak dira marrazkian ageri diren beste elementuak". Lanerako ezaugarriak buruz galdetuta, dio lehenengo marrazkia eskuz egin eta, ostean, ordenagailuarekin koloreztatu zuela.

Epaimahaiak 2018. urtean garaile modura aukeratu zuen kartel hartaz gain, beste bat ere aurkeztu zuen Arregik 2018ko San Juan jaietako lehiaketara.



Leire Arregi, 2018. urteko kartelerako egindako diseinua erakusten. E.A.

Aurretik ere lehiaketetan parte hartutakoa da, baina San Juan jaietan eskuratu zuen lehenengoz saria. Gerora ere, 2019. urtean Emakume egunerako kartelaren diseinua ere egin zuen.


Aurtengoa, berezia

COVID-19 gaitzak eraginda ohiko San Juan jaiak bertan behera geratu diren arren, azken urteetako kartel egileak bat etorri dira eta aitortu dute aurtengoa diseinu bat egin beharko balute ez luketela koronabirusaren gaia islatuko bertan, ezta erreferentziarik egin ere.

Diegok azaldu duenez, jaiak egingo ez direnez, ez da pentsatzen ere jarri nola egingo lukeen diseinua, baina aukera posibleak aztertu ditu: "Ez dut planteatu ere egin, baina jaiak urterik urte ere ez dira askorik aldatzen, eta, hortaz, ohiko elementu hainbat errepikatu egingo lirakeela uste dut: sua, txopoa...". Arregik, aldiz, estilo "elegantea" bilatuko lukeela adierazi du: "Diseinua egiteko, elementuei ukitu klasiko eta elegantea emango nieke, baina koronabirusik gabe".



Gora Arrasate!!



NACEX

Gu ere arrasatearrekin!



Azeri kalea 7 (San Andres auzoa) - Arrasate - Tel.: 943 79 92 77 / 666 44 41 00

"Perico Delgadok detaile polita izan zuen gurekin"

JON ANDER JULDAIN CLUB CICLISTA MONDRAGONES KLUBEKO PRESIDENTE OHIA
Sanjuanetako jai egitaraurik ez dagoen honetan, egongo da ziklismo lasterketa faltan igarriko duenik. 2003an antolatu zuten azkenekoz; 75. edizioa izan zen

Xabier Urzelai ARRASATE

Arrasaten txirrindularitza sustatzeko lagun askoren lana behar izan da; belaunaldi ezberdinetan, gainera. Jose Mari Velez de Mendizabalek bere blogean ondo jasotzen du 1910ean San Juan jaietan Arrasaten antolatu zuten lasterketa. Idatziz jasota dagoen lehen erreferentzia urte hartakoa da. Sociedad Sport taldeak antolatu zuen lasterketa, eta, urteetara, Club Ciclista Mondragones-ek hartu zuen erreleboa. Hala, 20 urtez (1972-1992) bertako presidente izan zen Jon Ander Juldain (Arrasate, 1954).

Gazte izendatu zintuzten txirrindulari klubeko presidente...



Jon Ander Juldain. X.U.

Oso gazte; 18 urte izango nituen. 16 urterekin hasi nintzen klubean laguntzen, Pepe Jimenez ziklismo epailea zen, Jesus Etxebarria, Jose Inazio Zaitegi... Klubean zeuden beteranoak ziren horiek, eta ni ziklismozale amorratua nintzen. Hala, eurei laguntzen hasi, eta bi urtera presidente izendatu ninduten. Klubean erreleboa behar zela esan zidaten, jende gaztea behar zela. Bada, hurrengo urtean euren laguntza izan nuen, baina gero, ardura guztiarekin geratu nintzen.

Eta hor bidelagun onak izan zenituen. Zalantza barik. Pentsa dezakezun moduan, 20 urtez hor egoteko, derrigor izan nituen lagun onak ondoan, jende langilea. Niri aurpegia ematea tokatzen zitzaidan, presidentea nintzelako, baina lantalde oso ona izan nuen ondoan. Bereziki gogoan ditut iaz hil zen Juan Luis Gorroño eta Julio Isazelaia *Americano*. Ez dira bakarrak, baina eurak gabe ez nuen ezer egingo.

20 urte asko dira; 2003an esan zenuten agur.

Bai; hordagoa bota genuen esanez inork erreleborik hartzen

ez bazuen kluba desagertu egingo zela. Eta, zorionez, hor azaldu ziren Jorge Markiegi, Joseba Etxagibel, Adolfo Ruiz de Austri, Rafa Etxabe eta konpainia. Klubari izena aldatu zioten, Arrasateko Txirrindulari Elkarte (ATE), eta, besteak beste, amateur mailan taldea sortu zuten. Beste bultzada bat eman zioten herriko txirrindularitzari.

Zuen garaian, denetariko bizipenak izango zenituzten...

Pentsa... Klubeko presidente izendatu eta berehala, soldadutza egitera joan behar izan nuen, Valentziara. Eta sanjuanetan baimen bereziarekin etorri ahal izateko idatzia bidali zuten klubeko lagunak kuartelera, Udaren sinadura eta guzti. Taldeko presidentea nintzela eta ezinbestekoa zela ni Arrasatera etortzea lasterketa antolatu ahal izateko... Teniente koronela etorri zitzaidan galdezka ea lasterketa horren garrantzitsua zen, eta nik baietz, noski [Barrreak]. Kontua da azkenean baimena eman zidatela Arrasatera etortzeko, eta 21 egun egin nituen hemen. Trukean, Valentziako kuartelean ziklo-

SAN JUAN

Igaz ere Sain Juan, Sain Juan zanetan,
aurten ere Sain Juan Bautista,
Jesukristoren lehengusua zan
Sain Juan, Sain Juan Bautista.

Hau da egia da Nagusia
kontsolatutzeko mundu guztia.

Ibai guztiak agortu dira
arrain gaixoak egarri
datorren urtean mutikotxuak
nun egingo dute igari

Hau da egia da Nagusia
kontsolatutzeko mundu guztia.

EGUZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

kros lasterketa antolatu behar izan nuen [Barreak].

Sanjuanetako edizio ia guztiak amateur mailako lasterketak izan ziren.

Bai; orduan ez zeuden Lehendakari Txapelketa, Euskalduna Torneoa... *Aficionados de primera* zen kategoriaren izena, eta ziklista handiak pasa ziren Arrasatek. Gure arazoa zen sanjuanetan lasterketa asko pilotzen zirela: Tolosan, Hernanin, egun gutxira Irunen... Eta gurea guztien erdian geratzen zen. Hala, ziklistak beste herri batzuetako

"20 URTEAN OSO LAGUNTZAILE ONAK IZAN NITUEN"

"SARI ONAK EMATEN GENITUEN ZIKLISTAK ERAKARTZEKO"

"DELGADOK HITZA BETE ZUEN, SUITZATIK ETORRI ZEN"

lasterketetara joaten ziren. Pentsa, urte batean, hamaika txirindulari bakarrik azaldu ziren irteera puntura, denak talde berekoak, Tekakoak. 1980. urtea izango zen, gutxi gorabehera. Lasterketa antolatzeko lana hartu, babesleak bilatu... eta talde bakarra irteera puntuan. *Paripé* bat egin zuten proban, eta ondoren, elkarriketaren batean galantak bota nituen, zuzendarien kontra, federazioko ordezkarien kontra... [Barreak] Ez zuen ezertarako balio izan. Hor jabetu ginen ziklistak erakartzeko besteek baino sari hobeak eman behar genituela.

Espainiako Txapelketa ere ekarri zenuen Arrasatera.

1986an izan zen, eta orduko zazpi milioi pezetako aurrekontua izan genuen, ez da bromatuko kontua. Egoera politikoa ere ez zen erraza; pentsa, Espainiako Txapelketa zer eta Arrasatera... Ezker abertzalekoek ez zuten hori begi onez ikusi eta protesta ekitaldiak iragarri zituzten. Guk esaten geniena zen ziklismo-zaleak izanda Espainiako Txapelketa zela herrira ekar genezakeen

San Juan sariko 75 edizio



Baque taldeko Iker Camaño, 2001ean. 'ARRASATE PRESS'

Arrasateko San Juan sariko 75 edizio antolatu ahal izan zituzten; Velez de Mendizabalek herriko txirindularitza antolatuari buruz aurkitu duen lehen aipamen dokumentatua 1910ekoa da, *Hots begi danbolinak* blogean adierazi duen moduan. Horrek esan gura du Euskal Herriko eta estatuko lasterketa zaharrenetakoa izan zela Arrasatekoa, eta, normalean, jaietako bigarren egunean antolatzen zuten.

Amateur mailako puntako ziklistak batzen ziren bertan, eta, besteak beste, Deskarga, Udana eta Gatzagako –birritan– mendateei egin behar izaten zieten aurre, ehun kilometro pasatxoko lasterketan. Goiko erretratua 2001eko sari banaketa ekitaldikoa da. Baque taldeko Iker Camaño sestaoarra izan zen onena, eta Aretxabaletako Asier Atxa bosgarren sailkatu zen. Ivan Velasco arrasatearra, berriz, herriko onena izan zen.

lasterketa handiena. Azkenean, ondo irten zen dena. Hori izan zen Arrasatera ekarri ahal izan genuen lasterketa garrantzitsua.

Bide batez, nork irabazi zuen?

Tekako ziklista Alfonso Gutierrezek irabazi zuen, eta Miguel Indurain bosgarren izan zen. Baina ez zen oso lasterketa polita izan. Espainiako Txapelketa erabiltzen zuten Munduko Txapelketa prestatzeko, eta ez ziguten mendaterik sartzen utzi. Ziklistek Arlaban baino ez zuten igo. Baina egun hartako anekdotetako bat Periko Delgadok utzi zigun. Lasterketara etor zedin hartu-emanetan izan nintzen harekin; Suitzako Itzulia irabazi berri zuen, eta, hala ere, emandako hitza bete zuen. Eskatu zidan gauza bakarra izan zen lo egiteko lekua guk hartzeko, eta Txirritako hostalera bidali genuen. Bertako jabe Zabarteri esana nion logela ez kobratzeko Delgadori, guk ordainduko genuela. Baina Delgadok ordainduta utzi zuen kontua, esanda bazekiela ze garestia zen halako lasterketa bat antolatzea.

AMAGARA

Estetika Zentroa



Konfinamenduaren ostean... Mima zaitetz!

Gorputzeko eta aurpegiko tratamenduak, solariuma, terapia mediko estetikoak...

Deitu, eta kontsultatu gure proposamenak eta eskaintzak

Gu ere arrasatearrek!


Osasun-segurtasuneko neurri guztiekin

Jaietan egoten den giroa igarriko dute faltan



JUAN LUIS ARKAUZ
SUDC

Danborrada antolatzen du urtero SUDCek eta aurten ere joko dute, denbora gutxiz bada ere, 23an plazan egingo den ekitaldian. *Zeuk iñ zeuk jan* egitasmoan ere parte hartzen du Arkauzek kuadrillakoekin. Jaiak disfrutatzeko egunak direla uste du, eta pena du aurten ez dagoelako jairik.



IZASKUN BALANZATEGI
GOIKOBALU

Bezperako salbean eta errekortadoreen saioan egon ohi dira Goikobaluko kideak urtero. Baita Eusko Labeleko pintxo banaketan ere. Aurten, bezperako ekitaldi sinbolikoan parte hartuko dute. "Egunez ez da musikarik, girorik, egongo kaleetan, eta pena ematen dit, faltan igarriko dut", dio Balanzategik.



ANIBAL CARMONA
ARTGAZKI

Erdigunean bizi dira Anibal Carmona eta etxeokak, eta ekitaldi askotan parte hartzeko ohitura dute. Aurten, bezperako ekitaldi txikia etxetik ikusiko dute eta jaiak kanpoan pasako dituzte, ziurrenik. "Argazkiak ateratzea, plazako musika eta kuadrillakoekin poteatzea igarriko dut faltan!".

Oihana Elortza ARRASATE

Sanjuanak ere ez dira ohiko modukoak izango aurten Arrasaten. Ekitaldi sinboliko bat antolatu du Udalak bezperarako, baina jaiak ez dira bere horretan ospatuko, eta horrek "pena" eta "tristura" sortu die jaietan aktibo izaten diren herriko eragileei. Momentu berezi konkreturik ez aipatu arren, "orokorrean egoten den giroa" igarriko dutela faltan diote gehienek, nahiz

eta batek baino gehiagok esan errementari dantza ez ospatzeak ematen diela penarik handiena. Horrekin batera, baita kultura ekitaldirik ez egoteak ere.

Batzuek herritik kanpora joateko aprobetxatuko dituzte jaiak, baina askok jaietan daudela gogora ekarriko dien zerbait egitekotan dira, "kuadrillakoekin bazkaria" bada ere. Egoerara egokitutako ekitaldiren bat edo beste ere antolatu dute eragileek.

SAN JUAN BEZPERA ZUZENEAN

GOIENA TELEBISTAN ETA GOIENA.EUS WEBGUNEAN

22:30EAN HASITA

SAN JUAN SUA, TXALAPARTA,

SAN JUAN ZORTZIKOA, DANBORRADA...

OHARRA: EKITALDIA SOILIK GOIENA TELEBISTAN ETA GOIENA.EUS WEBGUNEAN JARRAITU AHAL IZANGO DA; IZAN ERE, ARRASATEKO PLAZA ITXITA EGONGO DA EKITALDIAK IRAUTEN DUEN BITARTEAN.

BABESLEA:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

goiena

Zu hemen zaude.






AED
ARRASATE EUSKALDUN DEZAGUN

Lelo lehiaketa eta bertso saioa antolatzen edo AEK-rekin batera Dragoi Jana prestatzen ibili ohi da, besteak beste, AED. Aurten, kide bakoitzak bere planak egingo ditu. "Udalaren jarrera itxia izan da. Bertso saioa berme guztiekin egiteko aukera ikusten genuen, baina ez da borondaterik egon", diote.




ENRIKE DOLARA
GAITEROA

"Kale animazioa eta kontzertuak" izaten dira, gehienbat, gaiteroen lana jaietan. Aurtengo ekitaldian parte hartuko dute eta Karruena kuadrillarekin zerbait egingo dutela ziur da Dolara. "Umeendako erraldoiak ez dira egongo, eta herriko kultura ez kaleratzeak goibeldu egingo du kaleko giroa".



MARIA GARMENDIA
SANZ ATRAKZIOAK

1947a ezkerro datoz sanjuanetara *scalextric*-arekin. Aurtengo egoera ezberdina da, martxoaren ezkerro daude lanik gabe, eta atrakzioak konpontzen eta txukuntzen dihardute berriz herri ibiltzeko. "Umeek ematen didate pena handien, oraindik helduek baino muga gehiago dituzte".



IÑAKI BARRUTIA
LORE GAZTEAK

Bizpahiru ekitaldian hartzen du parte, normalean, Lore Gazteak dantza taldeak, baina aurtengo jaiak "tristeak" izango direla uste du Iñaki Barrutiak. Faltan igarriko du errementari dantza: "Uste dut herritar askori gustatzen zaion ekitaldia dela, eta pena ematen dit ez egiteak".



SUV CITROËN C3 AIRCROSS



SUV CITROËN C5 AIRCROSS



CHAPIME TAILERRAK

Debagoieneko Citroën zerbitzu ofiziala

Gu ere arrasatearrekin!

San Andres auzoa 5 Tel.: 943 79 45 22 - Arrasate



**KIKE
DAPENA**

TTAKUN TXALAPARTA ELK.

Txalaparta hotsak entzun ohi dira errementari dantzaren hasieran. Aurtengoa ezohikoa izango da eta jairik ez da egongo, eta urteroko ekitaldi asko ez direlako egingo pena du Dapenak: "Baina jendeak badu gogoia ateratzeko, eta uste dut jai giro hori, modu batera edo bestera, nabarituko dela kaleetan".



**IGOR
HERRARTE**

TXISTULARI TALDEA

Ekitaldi askotan hartzen dute parte Arrasateko txistulariek. Aurtengoan ere han izango dira, eta eurek beste zerbait antolatzeko asmoa ere badute, euren jardunaren "mugarri nagusia" dira-eta jaiak. "Une berezi bat baino, giro orokorra izango da faltan botako duguna", dio Herrartek.



TXOSNA BATZORDEA

"Jai eredu alternatibo bat" eskaintzen die Txosna Batzordeak herritarrei urtero. "Aurtengo jaiak bereziak dira eta alternatiba desberdinak aurrera ateratzen saiatu garen, Udalak ez digu utzi. Umorez jokatu dugu. Pena ematen digu aurten ezingo dugula asko eskaini, eta hemengo giro polita botako dugu faltan".



**EDORTA
AIASTUI**

ARRASATE MUSIKAL

Arrasate Musikalen presentzia "esanguratsua" izaten da jaietan eta aurtengo jaiak "historikoak" izango direla diote: herrian jendea eta kultura ekitaldirik ez. Emanaldi horiek ez egoteak ematen dio pena Aiesturi, "San Juan kontzertua ezin eskaintzea", bereziki.

Ador
HORTZ KLINIKA

Mila esker urte hauetan
bidelagun izateagatik
Su ere arrasatearrekin!

Arrasate pasealekua 15, behea • 20.500 Arrasate • Tel.: 943 79 95 60



Egoera berezi honetan, jarri kontaktuan gurekin eta argitu aseguruari buruzko zalantza guztiak:

- Osasun Aseguruak
- ILT Aseguruak (Bajak)
- Heriotzen Aseguruak
- Alokairuak ordaintzeko babesak

Jai berezi hauetan ondo pasa!

Antso Abarka 6, behea
20500 **ARRASATE**
Tel.: 943 79 59 81 • Fax: 943 79 39 18

Zurradero 2
20570 **BERGARA**
Tel.: 943 76 97 65 • Fax: 943 76 40 37

Inbisa Negozio Gunea (Gamarra)
Zumar Etorbidea 1, 229 bulegoa
01013 **VITORIA-GASTEIZ**
Tel.: 945 00 00 71 • Fax: 945 00 00 72

goiena@goienaaseguruak.com

www.segurosgoiena.com



JOSE RIVIERE
ABAROA

80 urtetiko gorako herritarrek omentzen ditu urteko Udalak eta luntxa eskaini Abaroan. Aurten ez da ekitaldi hori egingo. "Ezta kontzerturik ere, ez zezenik... jai arraroak izango dira", dio Rivierek. "Batzuk kanpora joateko aprobetxatuko dute agian, nahiz eta kontuz ibili beharra dagoen".



MAIDER AZKARRAGA-URIZAR
TRIKITI ESKOLA

Aurten ezingo dituzte ohiko ekitaldirik egin Arrasateko Trikiti eskolakoek "Nik jaiak duten izaera bera botako dut faltan. Penarik handiena kulturagintzak eta herrigintzak izango duten galerak ematen dit. Kultur talde askorendako plaza izaten dira San Juan jaiak, eta herrigintzarendako diru iturria ere bai".



EGUZKILARU
TXATXILIPURDI

Ekainaren 25ean ateratzen da Eguzkilaru tailer eta ikuskizun ezberdinak eginez ume eta gaztetxoekin. Aurtengo ekitalditik kanpo gelditu da, "eta minduta gaude, uste dugulako badugula indarra egoteko eta aparte utzi gaituztela". Baina 25ean kalera aterako da Eguzkilaru, kalejira musikatu eginez kalez kale.



LEIRE IRIA
ARROSTAITZ

Errementeri dantza aurten ez egiteak pena ematen dio Iriari, "jaietako ekitaldi esanguratsuen, agian". Arrostitzeko dantzariak, baina, San Juan bezperako ekitaldian parte hartzeaz gain, *San Juan Zortziko* dantza grabatu dute eta muntaia egin, gero herritarren artean zabaltzeko asmotan.

ZIONIC
rollactive RF

ESKLUSIBOTASUNA PRIMIZIAN
TEKNOLOGIA BERRITZAILEA

1 LIPOLITIKOA ZELULITISAREN KONTRA

2 BIRMOLDAKETA TONIFIKATZAILEA

3 ERREAFIRMATZAILEA

LIRAIN
ARRASATE | ESTETIKA
943 79 52 17
Ez da osasun zentroa. RPS: 48/14

Berreskuratu zure bizitza

Jai zoriontsuak

Ospakizunen aitzakian zezen festak egin izan dira Arrasaten, urteetan

Ana Isabel Ugaldek idatzitako liburuan irakur daitekeenez, XVI. mendean zezenketak egiten ziren Arrasaten, hainbat jaiegunetan; gaur egun, sanjuanetan bakarrik egiten dira zezen festak. Aurten, baina, ez dute zezen-plazarik muntatuko



1954koa "zezenketa historikoa" izan zen. JOSE MARIA LASAGABASTER

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE Sokamuturra eta ondoren zezen-plazan egiten den ikuskizuna ohiko bilakatu dira San Juan jaietan. Zezenek badute nolabaiteko indarra herritarrek erakartzeko; eta, izan goizean goiz jaikita, edo gaupasa eginda, herritar asko izaten dira zezen-plazara joaten direnak.

Zezenak eta festak, baina, ez dira gaur egungo binomio. Ana Isabel Ugalde historialariak *Zezen festak Arrasaten (XVI-XX. mendeak)* liburuan azaltzen du

XVI. mendean hasi zirela zezenak eta jaia elkarri lotuta aipatzen dokumentuetan. Orduetik hona izandako bilakaera handia da. Iraganean, edozein ospakizun garrantzitsutan agertzen ziren zezenak; egun, San Juan jaietako egitaraura mugatuta daude.

Jaiegunak ospatzeko

Ospakizunen aitzakian egiten zituzten zezen festak: bai ospakizun erlijiosoak eta baita monarkiari lotutako ospakizunak ere -1527an, esaterako, zezenke-

tak egin ziren Mondragoen, Felipe II.a jaio zelako-.

1767ko irailean, esaterako, errege bidearen obrak amaitzeagatik egin zituzten zezenketak, 12 zezen toreatzeko; urtebete lehenago, udaletxearen inaugurazioan, zezenak hil zituzten; Gorpuzti jaietan, Aratusteetan... egiten zituzten zezen festak.

Historian zehar zezenketak desiratuak, onartuak, gaitzetsiak... izan dira. Mendeetan zehar ez dira falta izan debekurako joera erakutsi duten xeda-

penak. Moralitatean, begirunean eta segurtasunean oinarritutako xedapenak izan dira horiek.

Sustatzailea: Udala eta pribatua

Zezenketak antolatzeaz Udala arduratzen zen. Ugalderen liburuan irakur daitekeenez, 1680ko datuek erakusten dute Udalak herriko okela hornitzaile lanpostua enkantera ateratzen zuela, eta irabazlearen ardura izaten zela festetarako zezen bat ziurtatzea. Udalaren sustapena izatetik sustapen pribatua izatear

pasa ziren urte gutxi batzuen buruan.

1885eko irailean, Ricardi Añibarrok, Arrasateko Zezenzale elkarteko presidentea, idatzi bat igorri zion Udalari: zezen-plaza bat eraikitzeke asmoa azaltzen zuen gutunean. Zezenketak udal sustapena izatearen mugarrria izan zen hori. 1886an inauguratu zuten zezen-plaza, eta, urte batzuetan negozio oparoa izan bazen ere, 1906tik aurrera gainbehera bizi izan zuen eta 1912ko San Pedro eguneko



RPS 238/19 - 238/19

Euskal Herria 3, behea

Arrasate

Tel.: 943 79 44 22

www.udalaitz.com

inform@cmudalaitz.com

Espezialitate medikuak

Azterketa psikoteknikoak CRC SS0048

Diagnosi-probak

COVID-19aren probak

Su ere arrasatearrekin!

Unea iritsi da, goza ezazu

SAN JUAN JAIETAKO
FASEA

1. FASEA



2. FASEA



3. FASEA



1963tik zuregandik hurbil lan eginez





Errekortadoreak, 2019ko sanjuanetan. GOIENA

zezenketaren ostean eraitsi egin zuten plaza.

Azkeneko hamarkadak

Enpresa partikularrak arduratzen ziren zezenketak antolatzeaz, baina *kalerik kaleko zezena* antolatzekeo ardurua Udalarena zen: festa herrikoien sustatzaile zen Udala. Ohikoa izaten zen zekorrak jaregitea eta sokamuturraren bidez bazterrak alaitzea.

Hala, azkeneko hamarkadetan ere Udala ibili izan da bai entzierroa eta baita errekorreen

erakustaldia antolatzen ere. Bergarako Zezenak taldearen laguntza izaten du horretan. "Arrasateko plaza ikusgarria da. Zezen munduan ezaguna ez izateko, jende asko joaten da eta giro izugarria egoten da. Arrasateko publiko beroa dela esango nuke", dio Iñigo Almorza Bergarako Zezenak ganadutegi-ko arduradunak.

Bizi dugun osasun larrialdiak hala behartuta, aurten ez dira sanjuanetan izango: "Bergaran ez ginen egon eta Arrasaten eta

Eskoriatzan ere ez gara egongo. Aurtengo uda horrela izango da, hego Euskal Herrian ez dugu ekitaldirik izango. Beharbada, iparralderago joateko aukera izango dugu".

Nabarmendu nahi izan du euren egoera nahasia dela: "Kontuan hartu behar da atzetik ditugula 200 animalia eta horiek mantendu egin behar direla urte guztian zehar". Kalte ekonomiko "handia" dela dio, eta horri gehitu behar zaiola eurengan sortzen den egonezina. "Iazko urritik ezer fakturatu barik gaude, Durangoko jaien ostetik. Gure denboraldia maiatzean hasten da eta urrira arte egiten dugun lanarekin irauten dugu urtea", gaineratu du. Hori guztia kontuan izanda ere, Almorza baikor dago: "Etorriko dira garai hobekak".

Egoera berezi honetan, beste era batera bada ere, zerbait antolatu zitekeela uste du: "Kaleko entzierroan zaila da babes neurriak hartzea, baina plaza barruan har daitezkeela uste dut. 1.500 eserleku baldin badaude, mugatu eserleku kopurua 800era, adibidez".



Debagoiena Talde Antiespezista 2018an zezen plaza aurrean. GOIENA

Animalien eskubideen aldekoak

Uluak Debagoiena Antiespezista taldea 2017ko udan hasi zen kontzientziak astintzen. Animalien eskubideen alde indibidualki lanean zebiltzan herritarrak elkartu, eta Aretxabaletan egin zuten lehenengo ekimena. Esperientzia txarra izan zen eta epaitegitan amaitu zuen. "Santamasetan izan ginen ondoren, eta sanjuanetarako erabaki genuen alternatiba bat eskaintzea. Ikusten genuen jendea joaten zela sokamuturrera parrandarekin jarraitzearekin; hala, elektrotxaranga ipini genuen", dio Itsaso Alberdi taldekideak. Elektrotxaranga "izugarritzko arrakasta" izan zuela dio. Espezie guztien sufrimenduen aurka daudela diote, baina bereziki animalien sufrimenduan zentratzen dira, "ahots gutxien dutenak" direlako. "Jaiak ospatzeko ez dago zertan animaliei sufrimendurik eragin", gaineratu du Alberdik.

HEMEN DEBAGOIENA ZUZENEAN

GOIENA TELEBISTA, SAN JUAN BEZPERA ARRASATETIK
EKAINAREN 23AN, MARTITZENEAN, 21:30EAN

BABESLEA:



goiena
Zu hemen zaude.





ETXETRESNA ELEKTRIKOEN KONPONKETAK

MANTENTZE-LANAK / BERME-LUZAPENAK
ORDEZKO PIEZEN SALMENTA

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 89 97



OSTALARITZA

PROIEKTUAK, EKIPAMENDUAK ETA
OSTALARITZARAKO, GARBITEGIETARAKO
ETA HOTZ INDUSTRIALERAKO MAKINEN SALMENTA.

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 12 30

Banatzaile Ofiziala



URE BEZEROAK:



Etxe-Lan

www.etxe-lan.com

*Gu ere
arrasatearrek!*

etxe-lan@etxe-lan.com
Torrebaso industrialdea 14
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)

Mugimendua, berriz ere, udal pilotalekuan

Astelehena ezker, erabilgarri daude bai frontoia bai squash kantxa. Batzuk animatu dira izerdia botatzera. Aurrez txanda hartuta joan dira, eta batzuek galdetzen dute zergatik ordaindu behar duten lehen ordainpekoak ez ziren ordu tartetan

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Pandemia egoeratik itxi zuten kiroldegia martxoan, eta aste honetan jarri ditu berriz ere erabilgarri frontoia eta squash kantxa Udalak. Astelehenean bertan gerturatu ziren lehen erabiltzaileak. Frontenisean jokatzeko ohitura duen laukote bat izan zen lehena, eta gustura hartu zuten frontoiaren irekiera. "Hasteko gogoz geunden, eta gustura ibili ginen, baina ez dugu ulertzen zergatik ordaindu behar dugun, orain, lehen ordainpekoak ez ziren ordu tartetan frontoia erabiltzeagatik", adierazi dute. "Ordaindu egin behar dugu, baina tabernakoak ez diren komunak, esaterako, ezin dira erabili, eta aldagelak ere ez. Bestetik, lehen, erabilera libreko ordu asko zeuden, baina orain, bat ere ez, eta ez dakigu zergatik. Ordu tarte horietan, orain, ordaindu egin behar da, baina ez daukazu zerbitzu berak". Diote frontoia publikoa dela, eta ulertzen dutela txanda hartu behar izatea, baina ez zergatik ordaindu behar duten ordu librean tartean frontoia erabiltzeagatik. "Argindarrik erabiltzen ez baduzu, Udalak ez du gasturik".

Erreserbarekin eta ordainduta

Aurrez erreserba eginda eta Udalak ezarritako prezioa ordainduta erabil daitezke bai frontoia bai squash kantxa. Prezioak dira frontoia 8 euro orduko argi barik, eta 16 euro orduko argiarekin. Squash kantxa, berriz, 4,50 euro da orduko. Iraitz Lazkano alkateak azaldu du erreserba egiteagatik ordaintzen dela. "Frontoia ez dago irekita, eta erabiltzeko modu bakarra, orain, erreserba egitea da. Une honetan eta egoera honetan hori da modu bakarra jendearen sarreraren kontrolatzeko".

Egoera "oso-oso" bestelakoa dela dio alkateak. "Lehen, jolas



Frontenis saioa, eguazten arratsaldean, frontoian. L.Z.L.

ALKATEA: "FRONTOIA EZ DAGO ZABALIK, ETA ORDAINTZEN DA ERRESERBA EGIN AHAL IZATEKO"

libreko orduak zeuden, eta posible zen, baita ere, futbolearen jokatzeko frontoian, baina orain, ez; izan ere, frontoia ez dago zabalik. Bai, lehen ordainpeko eta erabilera libreko orduak zeuden, baina orain, ez. Eta ordaintzen da erreserba egiteko".

Egia da erabilera-irizpide berriekin lehen frontoia erabiltzeagatik ordaintzen ez zuten erabiltzaileek orain ordaindu egin behar dutela. "Ordu librean ez zuten ordaintzen, baina frontoira joan eta besteren bat bazegoen ezin zuten erabili ez zutelako erreserbarik, eta orain, ordaintzen dutena erreserba hori egitea da".

Lazkanok gaineratu du, bestetik, gastuak badaudela: "Erreserba egiten duzunean, norbaitek frontoia ireki egin behar du, itxi egin behar du, garbitu egin behar du...".

Gauzak horrela, erreserbak Bolatoki tabernan egin behar dira, eta erabilera-irizpide berriak tarteko, tabernatik sartu behar da bai squash kantxara bai frontoira. Gehienez ere, lau erabiltzaile egon daitezke batera, saioak ordubetekoak izango dira, eta instalazio biek lotutako kirol jarduerak egiteko.

Frontoiak, erabilera handiagoa

Squash kantxak ere baditu erabiltzaileak, baina frontoiak baino gutxiago. Asteon, esaterako, eguneko hiru bat orduz erreserbatu dute frontoia, batez beste, eta herritik kanpoko jendea ere etorri da.

Gimnasioa, itxita

Kiroldegiko gimnasioak, oraingoz, itxita jarraituko du. "Momentuz, ez dugu zabalduko", jakinarazi du Iraitz Lazkano alkateak. "Gimnasioaren erabilera oso lotuta egoten da ikasturtearekin eta kirol eskaintzako ikastaroekin –spinning, saioan egoteko gimnasia, zumba, pilatesa...-. Eta ikasturtea orain amaitzen da. Aurreikusten duguna da irailera arte zerbitzu hori ez zabaltea".

Eguneko Zentroa eta haur eskola zerbitzua, zabalik

Langileen eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko, baldintza eta neurri bereziekin zabaldu dituzte ateak

L.Z.L. ELGETA

Ekainaren 8an ireki zituen berriro ere ateak Elgetako Eguneko Zentroak. COVID-19aren ondorioz itxita egon da ia hiru hilabetez eta berriz ere zabalteko kontingentzia-plan bat eskatu zuen Foru Aldundiak. Egoitzan zazpi lagunendako lekua dago, eta bost adinekorekin abiatu dute zerbitzua. Seigarren bat artatzeko Aldundiaren oniritziaren zain daude; izan ere, erabiltzaile berriek beste epe-muga batzuk bete behar izaten dituzte (Ikus 2. eta 3. orriak).

Haur eskola

Haur eskola zerbitzua ere zabalik dago, baina, orain arte, haurtxorik gabe. Hezitzaileak lanean dira ekain hasieratik, eta aste honetako albisteak da astelehenean aurrera hurrekin hastera baimena izango dutela. "Hala ere, beste baldintza batzuen artean, honako hauek helarazi dizkigute", adierazi dute haur eskolatik. "Soilik kontziliazio beharrak dituzten familientzat irekiko da zerbitzua, eta ikasturte honetarako ez da izen-emate berririk onartuko".

Beheko kaleko jaiak uztailera atzeratu ditu jai batzordeak

"Bizi dugun egoera dela-eta ezin dugu jaiak aurreikusitako datan ospatu. COVID-19aren ondorengo normaltasun berria fasean sartuko garenez, hartu beharreko neurriekin jaiak uztailera ospatzeko asmoa dugu. Hau modu egokian egiteko gomendioak eskatu dizkiogu Udalari. Laster hasiko gara saskien zozketekin. Hartu zure zenbakiak!", esan dute.

Botoa posta bidez ematen laguntzeko zerbitzua EAJK

Uztailaren 12an egitekoak diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskondeekin lotuta, Elgetako EAJK kideek jakinarazi dute prest dutela botoa posta bidez ematen laguntzeko zerbitzua. Eskerak jasotzeko epea zabalik da, eta interesatuek Maria Jesus Leterekin edo Begoña Ardanzarekin jarri behar dute harremanetan, lehenbailehen.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Zabor-poltsa Asentzio hezegunean

Zikinkeria-poltsa batean batuta baina sailkatu gabe eta hezegunerako bide bazterrean utzi dute. Gogoratu beharra dago hondakinendako edukiontzia gunearen sarreran daudela?



Gaztetxoak ur-parkeaz gozaten Sagasti auzoan, artxiboko irudi batean. GOIENA

Ur-parkea martitzenean zabalduko du Udalak

Lau begiralek zainduko dute aurten ur-jolas parkea. Txanda ezberdinak egongo dira edukiera eta distantziak mantentzeko. Begiraleek egunean bi bider uraren egoera zein den aztertu beharko dute, eta erabili ahala komunak desinfektatuko dituzte

Maidar Arregi ANTZUOLA

Babes neurri guztiak hartuta eta Osasun Sailaren oniritzia jasota, Sagasti auzoan dagoen haurrentako ur-jolas parkea zabalduko dute ekainaren 23an. "Legionellaren aurkako tratamendua bota, eta hura irekitzeko neurriak betetzen dihardugu oraindik. Asmoa asteburuan irekitzea bazen ere, berme eta osasun neurri guztiekin zabalteko denboraz larri ibiliko ginateke. Oraingo egunetan partzelak markatu, txandak hartu behar direla herritarrei iragarri, zaindari formakuntza eman... Dena ondo bidean, martitzenean irekiko dugu", azaldu du Beñardo Kortabarriak.

Neurri zorrotzak

Edukierari dagokionez, kirol jarduerak bete behar dutena kontuan izan behar da, eta %60ra mugatu. "Pertsonen arteko distantzia metro eta erdi mantentzeak jada edukiera mugatuko du. Dena den, txandak errespe-

tatu daitezten eta pertsonen arteko distantzia berma dadin, aurten begiraleak kontratatu ditugu. Guztira, lau dira eta bi txandatan lan egingo dute. Begiraleek egunean zehar bi aldiz uraren azterketa egin beharko dute, erabiltzaileen arteko txanden aldaketaz arduratuko dira eta neurriak betez pilaketak saihestuko direla ziurtatu".

Ur-parkea 10:00etatik 20:00era bitartean zabalik egongo da. Alkateak argitu du kloropeko instalazioa izanda une oro desinfektatzen dela instalazioa, eta alde horretatik ez dagoela kutsatze arriskurik. "Bertan dagoen komuna ere desinfektatu beharko dute erabili ahala; iturriko txorrotik zuzenean ez

LAU BEGIRALEEK UR-PARKEKO TXANDAK KONTROLATUKO DITUZTE

edateko eskaera ere egiten diegu antzularrei".

Bestelako gune eta instalazioak

Landatxope erretiratuen aisialdi elkarteari dagokionez, gaur bertan egingo dute elkarteko zuzendaritzako kideek batzarra udal ordezkariekin. Noiz eta nola egin aztertzeke dauka Landatxopek. Izan ere, martxoaren 15ean egitekoa zen aurkezpena, eta alarma egoeraren ondorioz bertan behar geratu zen. Baita ere elkarteak aste horretan abian zuen kultura astea, oso-osorik.

Bestetik, udal pilotalekua zabalik dute herritarrek. Hala ere, interesa dutenek udal bulegoetan aurrez egin beharko dute pilotalekuaren erreserba.

Bi hauteskunde-mahai Oларanen, babes neurri zorrotzekin

Posta bidezko botoa 'www.hauteskundeak.eus' webgunean eska daiteke, EIN formularioa beteta

Maidar Arregi ANTZUOLA

Uztailaren 12ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan osasun neurri bereziak bete beharko dituzte bai herritarrek eta baita ere mahaiaren egongo diren ordezkariak –astelehen goizean egin zen zozketa, eta aguazilak jakinarazi–.

Antzuolan, ohi moduan, bi mahai eta bi hautesleku izango dira, Oларanen: bata erakusketa gelan; bestea, aldiz, areto nagusian. Beñardo Kortabarria alkateak adierazi du Oларanen espazioa badagoela babes neurriak bermatzeko: "Alde horretatik, guk zorrea daukagu, Oларanen espazioa badagoelako eta bi mahai ditugulako bi gune edo gela ezberdinetan. Protokoloa jarraituko dugu eta barruan kopuru jakin bat soilik egongo da, jende pilaketak saihesteko. Maskarak beharrezkoak izango dira eta metro eta erdiko dis-

tantzia bermatu beharko dute herritarrek. Gela ere egongo da sarreran eskuak garbitzeko, noski".

Posta bidezko botoa

Posta bidezko botoa ere eska daiteke, *Hauteskundeak.eus* webgunean dagoen EINren formularioa bete eta posta-bulegora eramanda uztailaren 2a baino lehen.

Jaurlaritzaren jarraibideak

Hartu beharreko neurrien artean, Osasun Sailak gomendatu du segurtasun tartea lurrean markak eginez bermatzea, maskara erabiltzea, sarreran gel hidroalkoholikoa jartzea, eskuak sarri garbitzea eta erabilera handiko guneak sarri desinfektatzea. Hauteskunde-mahaia osatzen dutenen arteko segurtasun-tartea ere zaindu beharko dela adierazi du.



Oларango erakusketa gelako hauteskunde-mahaia. GOIENA

Eskubide sozialak aldarrikatuko dituzte gaurko bilkuran

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartarekin bat egin dute Antzuolan ere. Hala, Antzuolako Eskubide Sozialen Kartako kideek dei egin diete herritarrei gaur, ekainak 19, Euskal Herrian barrena hedatuko den mobilizazio nazionalarekin bat egiteko. "Izan eguerdian hiriburuetan egingo diren mobilizazioetan edo arratsaldeko zazpitan An-

tzuolako Herriko Plazan egingo dugun kontzentziora joateko dei egiten dugu".

"Lehen ere egoera larria zen, bageneukan zer aldarrikatu oinarrizko eskubideen eta burujabetzaren defentsan, baina sortu den egoera berri honetan gauzak okerrera joatea besterik ezin genezake espero, antolatu eta borroka egiten ez badugu bederen", diote Eskubide Sozialen Kartako ordezkariak.

Hala, gaur, 19:00etarako, elkarretaratzea deitu dute plazan.

Soka-dantza, Oinarinen eskutik, baina surik ez

19:00etatik 20:30 inguru arte, Oinarin dantza taldeko kideek San Juan dantzak eskainiko dituzte herriko auzoetan. Antzuolarrei arduraz eta distantzia mantenduz jokatu behar dutela gogorarazi die Udalak, eta dantzarietaz atzetik ez jarraitzeko eskatu

Maidar Arregi ANTZUOLA

Ezohiko San Juan bezpera bizi-ko dute, oro har, debagoiendarrrek. Antzuolan ere, Herriko Plazan arbola ez igotzeko eta surik ez pizteko erabakia hartu du Udal Gobernuak. "Jende pilaketa saihestu gura dugu eta aurten ez du udalbatzak arbola igoko eta surik ere ez da piztuko plazan. Balkoietan apaingarri gisa adarrak jarriko ditugu San Juan bezpera irudikatzen eta Oinarin dantza taldeak auzo auzo dantzak eskainiko dizkie herritarrei", argitu du Beñardo Kortabarria Antzuolako alkateak.

Hala, Udalak eskatu gura die herritarrei arduratsu jokatzeko eta ez daitezela Oinarineko dantzarien atzetik joan herriko kaleetan barrena.

"Udalak antolatzen duen bertso ibiltariaren estilora egingo dugu. Asmoa da herriko hainbat auzotara dantzariak joatea kalejira giroan eta auzotarrek etxeko balkoietatik gozatzea San Juan bezpera eguneko dantza-saioaz",

azaldu du Oinarin dantza taldeko Ion Lizarazuk. Hala, herritarrek Antzuolan soilik egiten den San Juan eguneko soka-dantza propioa ikusteko aukera izango dute balkoietatik.

"Alarma egoeraren ondorioz dantza-saio eta ordu asko geratu dira bertan behera, eta, egia esan, dantzarako gogoz gaude gu ere. San Juan bezperaren ohitura bere horretan ezingo bada ospatu, herritarrendako zerbait egin gura genuen. Izan ere, zentzuz eta distantziak mantenduz zerbait egin daitekeela ere uste dugu".

Hala, 19:00etan hasi eta 20:30 bueltara arte ariko dira kalez kale. "Guztiz zehaztuta ez daukagu ibilbidea, baina buruan

KALEBARRENGO OHIKO JAIK EZ DIRA EGINGO; EZTA ERE SAGAR-DANTZA ARRAKASTATSUA

dugu herriko auzo gehientsuenetara joatea; denetara heltzen saiatuko gara".

Kalebarrengo jaiak

Datorren astean, hilaren 26tik 28ra, San Pedro jaiekin batera ziren Kalebarrengo jaiak ospatzekoak. Ohiko jaiak, ordea, ez dituztela antolatuko jakinarazi du Kalebarrengo Jai Batzordeak. Hala, aurten ez da sagar-dantza arrakastatsua egingo. "Bizpahiru ekintza antolatu ditugu soilik. Egubakoitzean 22:00etan kontzertua izango da terrazan eserita daudenendako. Zapatuan, 11:00etan haurrek marrazki kooperatiboak egiteko aukera izango dute, bakoitzak bere etxetik eramandako materialarekin. Domeka arratsaldean, berriz, ipuin kontalaria izango da. Baina herritarrei eskatu gura diegu neurriak zorrotz betetzeko eta arduraz jokatzeko".

Anelkarrek ere ez du elkartasun festarik egingo aurtengo Kalebarrengo jaietan.



Kanoia da Mairuaren Alardearen protagonistetako bat. GOIENA

Mairuaren Alardea bertan behera geratu da aurten

Alardea gogorarazteko uztailaren 18an kanoiak sutzea posible ote den aztertzen dihardu Udalak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Udal ordezkariak eta Alardearen Elkarteko kideak asteon batu dira, zer egin erabakitzeko. Biek ala biek aho batez hartu dute Mairuaren Alardea ez egiteko erabakia. Hala ere, uztailaren 18an Alardea gogoan izatea gurako lukete eta, egoerak hala baimenduko balu, kanoiak sutzea posible izango ote den aztertzen dihardute. Dena egunez egun alda daitekeela jakin badakite, eta zer egin zehaztu gabe dagoela adierazi dio GOIENARI Beñardo Kortabarria alkateak. "Herriko jai nagusiak bertan behera geratu dira eta Mairuaren Alardea egiteak ez dauka zentzurik. Alardearen Elkarteko kideak eta Udala ados gaude aurtengo Alardea ez egiteko erabakiarekin. Asmoen artean, ordea, badago Alardea nolabait gogora ekartzekoa eta zer egin aztertzen gabilta, ez dago ezer

konfirmatuta. Uztailaren 18an zein izango den egoera ez dakigu, eta, gainera, kanoia sutzea erabakitzen bada, Guardia Zibila baimena ere lortu behar-ko da, eta baimen hori une horretan pandemiak izango duen egoerak baldintzatuko du, zailtzarrik gabe. Bigarren aukera litzateke modu birtualean peltardo bat jaurtitzea. Dena egunez egun alda daiteke, eta zer egin zehaztu gabe dago, gaur-gaurkoz".

Hala, Jai Batzordeak herriko jaietako egunetan eta Alardean zer egin daitekeen aztertzen jarraituko du. Helburua, betiere, babes neurri zorrotzak betetzeko ekitaldi xumeagoak antolatzea eta jende pilaketak ekiditea dute. "Jai Batzordearen proposamenak Gobernu taldeak aztertuko ditu, ea egiterik dauden erabakitzeko. %99an aurrera irteten dira batzordeko erabakiak, baina, bizi dugun egoeran, batek daki".



Iaz Herriko Plazan piztutako San Juan sua. IKER AIZKORBE

Gizarte zerbitzuen bulegoa Torresoroara itzuli da berriro

2018ko ekainaren 3ko uholdeen ondorioz, Antzuolako Udaleko gizarte zerbitzuen bulegoa udaletxera lekualdatuta zegoen. Bi urteren ostean, berriro itzuli da zerbitzua Torresoroako bulego berritura. Txanda aurrez eskatu behar da udaletxean, bertara jota edo 943 76 62 46 telefonora deituta. Maskara eta eskuak garbitzea derrigorrezkoa da.

Uztaileko BTT jaitziera ez egitea erabaki dute

Pandemiaren ondorioz hartutako erabakia izan da. Aurtengo uztailaren 11n egitekoa zen mendi bizikleta jaitziera ez da egingo Antzuolan. 2017az geroztik arrakasta eta ikusle mordo batzen duen kirol ekintza bilakatu da herrian. Osasun neurriak bermatzeko zailtasuna ikusita, antolatzaileek ez egiteko erabakia hartu dute.



Iralaren omenezko monolitoaren inaugurazioa Martinez de Irala plaza zaharrean (1956/09/23). BERGARAKO UDAL ARTXIBOA. T. JAUREGI FONDOA



Fraiskozuriko monolitoa, bi herrien arteko anaikidetzat islatzen duena. ASIER KORTABARRIA

Konkistatzailearen ospea, jomugan

AEBetako 'Black Lives Matter' ekimenak konkistatzaileen irudien aurkako erasoak mahai gainean jarri du Domingo Martinez de Irala heroi moduan aurkeztu izana; gaur, Greba Asanbladak deituta, kolonialismoa salatuko dute, besteak beste, Fraiskozurin (18:30)

Jokin Bereziartua BERGARA

Maiatzaren 25ean AEBetako Minneapolis hirian poliziak George Floyd hil ostean izan diren erreakzioak mundu osora hedatu dira, oihartzun mediatico itzela izateraino. Arrazismoaren aurkako *Black Lives Matter* ekimenak jomugan jarri ditu, besteak beste, XV. eta XVI. mendeetako kolonialismoaren atzeko pertsonaiak, eta konkistatzaile horien omenezko monumentu eta eskulturei eraso egin diete.

Testuinguru horretan eta Bergarara etorrita, sare sozialetan zeresana eman du gaiak. Twitterren, esaterako, erreakzio dezente eragin ditu Asier Kortabarría *Moto*-k irekitako hariak: "Ez naiz ni historialaria, baina pertsonaia honen inguruan ikertu nahi izan dut -Wikipedian irakurri, egia esatera-. 'Herriarrek miretsia', 'irmaoa', 'adoretua', 'langile ikaragarria'... Ezer txarrik ez ahal da pertsonaia honen atzean?". Wikipediako informazioa oinarri hartuta Iralak egindakoetako batzuk zalantzan jarri ditu Kortaba-

riak, debatea mahai-gaineratzeko asmoz: "Ez dut [Fraiskozuri plazako] monolitoa eraisterik eskatuko, kalearen izenaren inguruan gogoeta egitea ez legoke gaizki. Baina behintzat jakin dezagun zer omentzen dugun gure herrietan".

AEBetako erreakzioa, "ulergarri"
Hari horretatik tiraka, 2006an *Domingo de Irala, y su entorno en la villa de Bergara* izeneko liburua idatzi zuen Migel Angel Elkoroberezibar bergararrarekin eta Perun jaio eta Bergaran bizidun Euskal Herriko emakume migratu eta arrazializatuaren sareko kide Luciana Alfarorekin egon da GOIENA. Elkoroberezibarrek dio "ulergarria" dela

"TOKIKO HEDABIDEK EZ DIOTE IA LERRORIK ESKAINI ARTEKALEKO KONKISTATZAILEARI"

M.A. ELKOROBEREZIBAR, 'DOMINGO DE IRALA, Y SU ENTORNO EN LA VILLA DE BERGARA' (2006) LIBURUAREN EGILEA

AEBetan bereziki gertatu dena: "Errepresioak erantzun argi bat izan du eta konkistatzaileek eragindako errepresioaren simbolo kontsideratu izan diren estatuak edo irudiak suntsitzeko ahaleginak ulergarriak dira. Kolonen estatuarekin halaxe egin dute AEBetako hainbat hiritan. Lau haizetara zabaldu den albisteak Bergarako Fraiskozuri plazako *azukarillo*-ra garamatza. Azken 50 urteetan ez diote bailarako komunikabideek edo historialariek apenas lerrorik eskaini 1506-1509 tartean Bergarako Artekale kalean jaio zen konkistatzaileari. Monolito horren atzean dagoen pertsonaia ezagutzeko aukera ere eskaini dezake egoerak".

Orduko memoriaren garrantzia
Alfarok uste du "irakurketa erromantikoezia" egiten dela XV. eta XVI. mendeetako konkistatzaileez, Irala barne: "Irala konkistatzaile bat izan zen, gizartearen zati handi baten idearioan heroi moduan badago ere. Bergaran kale bat dugu, herriko kale na-

gusietako bat; Latinoamerikan ere hala gertatzen da inbaditu zituztenekin. Latinoamerikako herriek konkistatzaile horien beharra zutela irudikatu nahi izan da mendeetan zehar, eta hori ez da irakurketa erreal bat. Irala heroi edo herriko seme kutun moduan aurkeztea ez da egokia. AEBetan gertatu dena eta izaten ari den oihartzun edo olatu mediatico aprobatu egin behar dugu historiaren kontakizuna aldatzeko, eta benetan gertatu zena kontatzeko".

Izan ere, Euskal Herrian memoria historikoak garrantzi handia dauka oraindik ere, baina kolonialismoaren garaia ez da "behar beste" lantzen: "Euskal Herrian garrantzi berezia du memoria historikoaren gaiak, 36ko gerraz, frankismoaz... Baina kolonizazio garaiko memoriak ez dugu berbarik egiten, eta bada garaia aro hartan egin zirenak kontatzeko eta salatzen. Oso aspaldiko garaia dela erabiltzen da aitzakia moduan, baina hori ezin da arrazoia izan. Goazen kontatzera benetan gertatu zena".

Paraguaiako historiaren "zutabe"
Paraguain Iralaz ze iritzi duten galdetuta, Elkoroberezibarrek dio euren historiaren "zutabe" kontsideratzen dutela: "Paraguaiako historiaren zutabe kon-

"OLATU MEDIATIKO APROBATU BEHAR DA KONTAKIZUNA ALDATZEKO"

LUCIANA ALFARO, EUSKAL HERRIKO EMAKUME MIGRATU ETA ARRAZIALIZATUEN SAREKO KIDEA

tsideratzen dute, onerako eta txarrerako. Ameriketako herriak, mendiak, etorbideak eta eskolak daude bere izenarekin; hainbat nobela, poema eta kantutako protagonista ere bada... Askok hitz egin eta idatzi da Rio de la Platako gobernadore izan zenari buruz ozeanoaren bi aldeetan: mestizaiaren aita, guaraniar hizkuntzaren iraunkortasunaren eragilea, hiri askoren sortzailea, guztiz militarra ez zen gizarte sistema berri baten bultzatzailea izan zela harro oihukatzen dute batzuek; beste batzuek, ordea, traidorea, hiltzaile krudela, konspiratzailea eta libertinoa izatea leporatzen diote. Bai Amerikan eta baita Europan zehar ere, Paraguaiako hiriburua *Mahomaren paradisu*a-rekin parekatu zuten XVI. mendean Iralak eta bere soldaduek poliginia praktikatu zutelako. Beste hainbatek *El puerto de la jodienda* deitu zuten. Baina denentzat *Hiri guztien ama* izenez izan zen ezaguna Irala, bertatik abiatu baitziren inguruko herri gehien fundatzaileak".

Iralaren jaiotzaren 500. urteurrena bete zenean, bere jatorria eta jaio zen Bergarako testuingurua ezagutu nahi zuten eta ikerketa lan bat agindu zioten Elkoroberezibarri. "2011n berriz deitu zidaten, Paraguaiaren independentziaren 200. urteurrena ospatzeko 2006an plazaratutako liburua berrargitaratu nahi izan zuten-eta Asunciongo Euskal Etxekoek. Liburua eguneratu nuen, eta dokumentazio berria gehitu".

Erdi Aroko pentsamoldea zuten
Gainera, Elkoroberezibarrek dioenez, Erdi Aroko pentsamol-

dea zuten Iralaren garaikide izan zirenek: "Ameriketara joan zirenean ez zituzten euren buruak ireki errealtate berri baten aurrean, baizik eta errealtate hura euren buru estuetan sartzen saiatu ziren. Eta orduan sortu ziren arazoak. Lurralde haiek eta biztanle berri haiek ez ziren europarren eskemetan sartzen. Askorentzat, adibidez, indigenak animaliak bezalakoak ziren eta Pablo III.a aita santuak, esaterako, 1537an ohartarazi behar izan zuen gizakiak zirela. Elizaren izenean, halere, basakeria ugari egin zituzten konkistatzaileek. Eta azken momentuan, ondoan beti nahi izaten zuten apaizarekin *in rigor mortis* aitortza egin eta bizitzan zehar eginiko bekatu eta barrabaskerietatik *salbu* geratzen ziren".

Kolonizazioa salatuko dute gaur Bergarako Greba Asanbladak deituta, mobilizazioa egingo dute gaur, ekainak 19, herriko kaleetan zehar. Mobilizazioa 18:30ean hasiko da, frontoian, baina ibilbidean zehar ekitaldiak eta geldialdiak egingo dituzte; kasu bakoitzean, balio eta ideia jakinak azpimarratzeko. Hain zuzen ere, martxaren lehenengo ekimena frontoian izango da, eta arrazakeria salatuzko ekintza egingo dute: "Kolonizazioarekin hasi eta George Floyden hilketara bitarte izandako sarraskiak gogoratuko ditugu". Domingo Martinez de Irala gogoratzeko monolitoa dago frontoian kanpoaldean, Fraiskozuri plazan. Lehen monolitoa Domingo Martinez de Irala plaza zaharrean kokatu zuten, gaur egun Mizpirualde egoitzaren ondoko Madalena plaza dena, 1956ko irailaren 23an.



Martinez de Irala. ANTONIO VALVERDE

Artekalean jaio eta Paraguain hil, 1556ean

Domingo Martinez de Irala eta haren testuingurua ahalik eta ondoen ezagutzeko ezinbestekoa da, egun, Elkoroberezibarren liburua: "Dokumentazio aldetik garairik zailena eta ezezagunena da, baina benetan oso erakargarria. Orduko Bergara ikuspuntu ugariatik aztertu nuen eta Iralaren eta bere familiaren jatorriaren nondik norakoak azaleratu nituen". 2006an argitaratu zuen liburuaren arabera, 1506 eta 1509. urteen artean jaio zen Irala, Artekalean, eta Gipuzkoan zituen ondasun guztiak saldu ostean joan zen Ameriketara (1535). Paraguai sortu zuela dio historia ofizialak, baina kargu horretarako erabilitako bideak dira orain zalantzan jartzen direnak.

Monolitoak zer irudikatzen du?

Baina zer irudikatzen du Fraiskozuriko monolitoak? Honela zehaztu du Elkoroberezibarrek: "Bi herrien arteko anaikidetzak irudikatu nahi du. Bergarako alkatea Asuncionen 1968an egon ondoren, hurrengo urtean frontoiko plaza edo *El Ferial* izenez ezagutzen zen eremuari –gaur egungo Fraiskozuri plaza– Domingo Martinez de Irala izena jarri zioten, Comendador eskultoreak egindako baxu-erliebea daraman monolitoa bertan kokatuz, Asunciongo katedralean dagoenaren erreplika. Kexu agertu ziren euskal artista asko, artelana agintzerakoan eurak kontuan hartu ez zituztelako. Kexu-gutuna sinatu zuten artean zeuden, adibidez, A. Arias, J.A. Sistiaga, J.L. Zumeta eta R. Mendiburu".

Presentzia handia du herrian

Elkoroberezibarrek gogoratzeko duenez, Madalena plazak Domingo Martinez de Irala izena izan zuen eta 1956an bere omenez monolito bat eraiki zuten. Handik sei urtera pintatu zuen Simon Arrieta udaletxeko eskaileretan dagoen mural ezaguna; bertan ageri dira Irala, Antonio Araoz eta San Martin Agirre. Hala ere, udaletxeko osoko bilkuren aretoan ageri diren bergarar ospetsuen artean ez da Irala ageri. Urte luzez brontzezko plaka bat egon zen bertan, baina Udaleko biltegian gorde zuten. Madalena plazako monolitoa 1958an ezkutatu zuten eta plazari izena kendu zioten. Edonola ere, Iralak izan du presentzia gehiago herrian; hala nola, Simon Arrieta plazako garai bateko zinearen izena Irala zen, egungo erdiguneko kale nagusietako bat da eta ikastetxe baten izena ere badarama.



Dolmenen ibilbide gidatuak bueltatuko dira uda honetan. LABORATORIUM

Udalak eta Laboratoriumek gertu dute udarako eskaintza

Bisita gidatuak, tailerrak, hitzaldiak eta beste izango dira udan; izena emateko: 'www.laboratorium.eus'

U.I. / J.B. BERGARA

Udalak COVID-19aren krisiari aurre egiteko plan integralaren barruan turismo eta aisialdi eskaintza garatzea erabaki zuen, eta, horretarako, Laboratorium museoarekin lankidetzan egin dute udarako programa. Zortzi ekintza aurkeztu dituzte, eta ekintza guztien inguruko argibideak eta izen-emateak Laboratorium museoaren webgunean daude: www.laboratorium.eus.

Bisita gidatuak, tailerrak...

Uztailaren 3an, marrazketa botanikoaren inguruko tailerra egingo dute; 6 eta 12 urte arteko umeentzat izango da, eta marrazketaren bitartez bailarako biodibertsitatea ezagutuko dute. Uztailaren 11n eta 12an, Bergarako geologia eta ondarea familian ezagutzeko saioak egingo dituzte: herriko arroka-motak ezagutu ostean,

kaleetan barrena ondare arkitetkonikoa identifikatuko dute. Dolmenen ibilbidea ere antolatuko dute Karakate-Irukuru-tzeta mendilerroan; bederatzi kilometroko ibilbidean zazpi monumentu megalitiko bisitatu dituzte, eta bukaeran, gazta, ogia eta sagardoa dastatuko dute. Lorategi historikoak bisita gidatu bidez ezagutu ahaliko dira eta uztailaren 15ean, amaitzeko, Amaia Arranzek arkeologiaren eta botanikaren gaineko saio bat gidatuko du. "Elikaduraren sustriatara" joko du Arranzek, eta Ekialde Hurbileko ehiztari-biltzaile eta lehen nekazarien elikagaiak aztertuko ditu; saioa online jarraitzeko aukera egongo da.

Bisita gidatu batzuk alde zurrik erreserbatu beharko dira; adibidez, bisita monumentalak deitu diotena egiteko.

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

21
K
KALITATEA
Enpresa Registrada Nº001525

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Kontziliazioa eta zaintza, lehentasunak uztaileko

Aurre-inskripzioan 475 umek izena eman ostean udaleku irekiak eta kirol campusa antolatzea "ezinezkoa" denez partaide kopuruagatik, Uda Aktiboa programa antolatu du Udalak ikastetxeekin eta Jardunekin batera; ekainaren 29tik uztailearen 24ra izango da

Jokin Bereziartua BERGARA

Udal Gobernuak erabaki du udaleku irekiak eta kirol campusa bertan behera uztea, partaide kopuru aldetik "muga handiak" daudelako. Horren ordez, Uda Aktiboa izeneko programa garatu dute herriko ikastetxe guztiekin eta Jardunekin batera, ekainaren 29tik uztailearen 24ra arteko aurreikuspenaz, eta kontziliazio familiarrari begira. Horrez gain, udarako "eskaintza integrala" ere prestatzen ari dira: "Udala, beste eragile batzuekin batera, udarako eskaintza integrala garatzen ari da, herriko haur eta nerabe guztiei begira. Eskaintza gehiago zehaztu ahal, jakinaraziko da".



Sanferminetako ospakizuna San Martin plazan, 2019ko udaleku irekietan. GOIENA

Aurre-inskripzioan, 475 ume

Alarma egoerak baimenduko zuela aurreikusitako zenetik, Udal Gobernuak dio ahaleginak egin dituztela aisialdi hezitzaile baten eskaintza antolatzeko: "Plan integrala ari da garatzen Udala, datozen hilabeteetan COVID-19ak eragindako krisiari alderdi askotatik aurre egiteko, eta horren barruan kokatzen da umei eta gaztetxoei zerbitzua emateko ekimen hau. Ezohiko egoera honetan, baldintza berrietara moldatutako haur eta gaztetxoentzat aisialdia eskaintzeko apustua egin du Udalak, horretarako indarrak eta baliabideak jarrita".

Udaleku irekiak eta kirol campusa ez antolatzeko erabakia honela arrazoitu dute: "Hirugarren, fasean haur eta nerabeentzako aisialdi jarduerak egitea aurreikusita zegoen, baina kopuru aldetik muga oso handiak daude. Guztira, 200 lagunek parte hartu dezakete, begiraleak barne. Eta aurre-inskripzioan 475 haurrek eman dute izena udaleku irekietan eta kirol campusean parte hartzeko, oraingo baldintzetan kudeatzeko ezinezkoa dena".

200 UMEK HARTU DEZAKETE PARTE, GEHIENEZ, ETA AURRE-INSKRIPZIOAN 475 HAUR DAUDE

Kontziliazioa eta zaintza berezia

Herriko ikastetxe guztiekin eta Jardunekin batera garatu dute programa: "Udalak ezinbestez aipatu eta eskertu nahi ditu Jardun, herriko ikastetxeak eta guraso elkarteak, egitasmo hau gauzatzeko izan duten jarreragatik". Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako umei begirako "aisialdi dinamizatua eta aktiboa" zehaztu dute.

Udaleku irekietarako izena emanda zuten LHko 5. mailara arteko umei zuzenduta dago; hau da, 2009-2013 urte bitartean jaiotako umei –biak barne–. Hiru asteko uda aktiboa ekainaren 29tik uztailearen 17ra izango da; eta lau astekoa ekainaren 29tik uztailearen 24ra. Goizean gauzatu da, 10:00etatik 13:00etara, eta Jardunek kudeatuko du. HHko umei ere aukera eman diete ekimenean parte hartzeko;

LHko umeentzat ezarritako tarifa berarekin, ikastetxe guztiek eskainiko dute zerbitzua. Izena emateko, norberaren ikastetxera jo behar da; Udalak diruz lagunduko die ikastetxeei ere, HHko eskaintza garatu dezaten.

Lehentasuna emango zaie guraso biak lanean dauden familiei; lanean dauden guraso bakarreko familiei; lanean dauden banandutako gurasoak, bata edota bestea lanean egonik ere; eta arrazoi bereziengatik zaintza zerbitzua ezinbestean behar duten haurrei –egoera zaurgarrian dauden familiei, kasu–.

Tarifa arrunta eta soziala

Lehentasuna duten umeekin gehieneko kopurua beteko ez balitz, udaleku irekietan eta kirol campusean aurrez izena eman duten eta horrela nahi dutenen artean zozketa egingo da. Zozketaren emaitza ekainaren 23an emango da. Bi tarifa mota daude, arrunta eta soziala; Udalak tarifa arruntaren %50 finantzatu du, eta tarifa sozialaren %77. Hiru asterako tarifa arrunta 105 euro da –tarifa soziala, 45 euro– eta lau astekoa 140 euro –soziala, 60 euro–.



NIRE USTEZ

ANDRES OSA 'SAKONA'

Koronabirusa, hausnarketa eta kirola

Birusak eraginda egoera aski berezia bizi izan dugu, eta motelago, baina jarraituko du. Gurean bortizki jo gaitu. Neurriak ez dira zuzen hartu eta berandu hartu dira. Urtarrilean, eta bereziki otsailean, zetorrenaren berri bazen. Ukatzea tranpa da. Beharrezko bitartekoak prestatzeko: arnasgailuak, maskarak, jantziak, testa, PRCak... egitea. Gure aditu eta politikako jendea non egon da? Konfinamenduak hausnarketara murgildu gaitu. Puntu emaleak, irratia eta telebista: hildakoak, kutsatuak, ospitalizatuak, sendatuak, positiboak... Hausnarketak pertsonen ahulezia agerian jarri du. "Ezereza gaituk", entzuten da. Eta errematea, egoera sozial eta ekonomiko larria. Autoen ekoizpena, lurpera. Bizikletak, zorionez, hirukoiztu egin dira. Bizitzan, molde berrietara egokituko ote gara? Edo betiko leloan jarraituko dugu?

Baina orain, baloiaren txanda da! Futbola, egunero! Puf! Gauza kuriosoak da: segalaritza naturaren erdigunean, zelai zabalean, birusa kutsatzeko arriskurik ez, eta antolatzeko kuadrillak auzolanean. Belarra mardula, 12 segalari prest gogo biziarekin, baina txapelketak galarazi. Zangoak lepo gainean.

Miguel Altuna, zentro onenekin EXAM 4.0 proiektua aurkezteko

Miguel Altunak, Tknikak eta EUko komisioak antolatutako Lanbide Heziketako bikaintasun zentroen nazioarteko jardunaldian hartu zuen parte martitzenean Miguel Altunako Unai Ziarsolok, EXAM 4.0. –Excellent Advanced Manufacturing 4.0.– proiektua aurkezteko. 105 herrialdetako 1.723 pertsonak jarraitu zuten ekitaldi telematikoak.



Ikasle bat, egoitza berrian. MIGUEL ALTUNA

OHARRAK

Negozioak berraktibatzeke laguntzak, martxan

Astelehena ezkerreko eska dezakete laguntza bereziak COVID-19agatik itxita eta jardun murriztuan aritu diren negozioek. Ekainaren 12an argitaratu ziren baldintzak Aldizkari Ofizialean; eskaerak ekainaren 30era arte egin daitezke, Bergararren Arreta Zerbitzuan edo alde zuzenetik 010 telefono zenbakira deituta eta txanda hartuta.

2020ko dirulaguntzak zehaztu ditu Udalak

Enpresendako eta elkarteendako urteroko dirulaguntza lerroak zehaztu dituzte: <https://www.bergara.eus/eu/dirulaguntzak>.

Hobariak merkatari, ostalari eta zerbitzuentzat

Herriko merkatariarentzat, ostalariarentzat eta zerbitzuentzat hobariak iragarri ditu Udalak ur eta zabor tasetan. Baldintzak zeintzuk diren eta prozedura zein den jakiteko: www.bergara.eus.

Ekainaren 22an irekiko dute Udal Artxiboa

Artxiboa zabalduko da aurrez aurreko kontsulta berriz ere martxan jarrita; betiere, segurtasun neurriak betez. Horregatik, ezinbestekoa izango da alde zuzenetik hitzordua eskatzea, artxiboa@bergara.eus-en edo 943 77 91 27 telefono zenbakian.

Zelai erdi, Agorrosingo erabiltzaileen esku

Uda denboraldian Ipintza futbol zelaiaren erdia Agorrosingo erabiltzaileek eguzkia hartzeko erabiltzea aurreikusten du Udalak, segurtasuna bermatzeko asmoz. BKEren ustez, ordea, zelai erdirekin campusa eta denboraldi-aurrea antolatzea "ezinezkoa" da

Jone Olabarria BERGARA

Joan den astean aurkeztu zuen Bergarako Udalak udara begira Agorrosin kirol eremurako dituen planak. Bertan zehazten denez, besteak beste, Agorrosingo eremua zabalik dagoenean, ohiko berdeguneaz gain Ipintza futbol zelai erdia eguzkia hartzeko erabili ahalko da.

Hain zuzen ere, erabaki horrek hautsak harrotu eta ezinegona sortu du zelaiaren erabiltzaile nagusi den Bergara kirol elkartean. Lehendakari Iosu Elorzak erabakia klubarekin adostu gabe hartu izana salatu du: "Ez digute galdetu zeintzuk diren gure beharrak plana zehazteko or-



Real Sociedad taldeko zenbait jokalarri Ipintzan entrenatzen, eguaztenean. J.B.

duan". Udako futbol campusa berreskuratu nahian ari direla azaldu du Elorzak, baina zelai erdirekin "ezinezkoa" dela zehaztu du: "Familiak galdezka ditugu ea zer gertatuko den campusarekin; haiei erantzuna emateko, Bergarako Udalak gure eskaerari erantzuteko zain gaude".

Denboraldi-aurrea, "kolokan"

Ligara begira zalantza ugari dauden arren, dena ondo bidean, abuztu erdialderako denboraldi-aurrea prestatzeko saioekin hasi beharko lirakeela azaldu du Elorzak: "Zelai erdi izanda ezin dugu prestaketa hori egin; talde eta jokalarri asko gara bertan entrenatzeko".

Belar naturaleko zelaiak galdetuta, une honetan ez dagoela erabilgarri azaldu du Elorzak: "Konfinamendu garaian ezin izan dugu mantentze-lanik egin azken hilabeteotan, eta, ondorioz, belarra usteldu egin da beheko aldetik". Orain, dena aldatu beharra dago, eta, lan hori egin ahal izateko, kanpoko enpresa baten beharra dagoela ere zehaztu dute klubetik.

Ordutegi zehatzekin

Bergara kirol elkarteari erantzun emanda, Aitor Arantzabal Kirol zinegotziak zehaztu du Ipintza futbol zelai udal instalazio bat dela eta COVID-19 gaitzak eraginda Agorrosingo berdeguneko aforua handitzeko "beharrezkoa" dela zelai zati hori.

Gaineratu duenez, igerilekuko ordutegian soilik izango dute zelai erdia: "10:15 arte eta 19:45etik aurrera erabilgarri dute zelai osoa. Ordu horietan klubaren esku dago zelai osoa entrenamenduetarako".

Baliabideetara moldatzea

Udako campusari dagokionez, BKEk antolatutako ekintza bat izanda dauden baliabideetara moldatu beharra azpimarratu du Arantzabalek: "Udalekuekin gertatzen den bezala, dauden baliabideetara moldatu beharra dago campusa antolatzeko ere". Hala ere, Arantzabalek argitu nahi izan du egoera aztertu eta neurriak moldatzeko aukera dagoela, koronabirusaren arabera. Era berean, adierazi du Udaletik "une oro" jakinarazi zaiola klubari zein zen asmoa.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, beheak
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, beheak
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA

Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 69 92 11
larraitz.arkistudioa@gmail.com



Marian Lonbide eta Karmele Arrizabalaba, Errekaldeko denda barruan. O.E.

Auzoko dendak duen izaerarekin

Errekaldeko dendak 50 urte betetzen ditu aurten eta "kalitatea eta gertuko zerbitzua" eskaintzen jarraitzen du. Denda ez ezik, topalekua ere bada oraindik, ikasteko apunteak jasotzeko eta auzotarren arteko zaintza zerbitzua indarrean mantentzeko

Oihana Elortza OÑATI

Olabarrieta auzoko Petra Zubiak zabaldu zuen Errekaldeko denda orain dela 50 urte. Beti izan da denda mota bera, janari denda, eta beti egon da toki berean. Urteekin, baina, auzotarrendako denda baino gehiago ere izan da, eta oraindik ere bada. "Auzotarren topaleku" moduan definitzen dute orduko eta oraingo langileek.

Gertutasuna

Petra zenaren alaba Marian Lonbidek 11 urte zituen amak denda jarri zuenean. Hamabi bat urtez izan zuen, eta gero, harekin batera lan egiten zuen Matea Jimenez alokatu zion. 33 urteren ostean, erretiroa hartzeko garaia iritsi zitzaion hari, eta orduan, Lonbideren seme batek, Iñigo Irizarrek, hartu zuen, hiruzpalau urtez. "Ez genuen itxi gura, ezta

Errekalde zerbitzu hau barik utzi gura ere, eta, jakinda herritar batek interesa bazuela negozioa hartzeko, semeak izan zuen bitartean hobekuntzak egin genituen, hurrengoak egun eskatzen dituzten baldintzetara egokitutako negozioa hartzeko", dio Lonbidek.

Karmele Arrizabalaga oñatiarra da erreleboa hartu duena; Aste Santuan bete ziren bi urte denda hartu zuela. Eta betiko izaerari eutsi gura dio hark ere. "Produktuen kalitateari asko begiratzen diogu eta saiatzen gara bertako produktu freskoak

**OÑATIKO
BASERRIETAKO
PRODUKTU FRESKOAK
IZATEN DITUZTE,
SASOIAN SASOIKOAK**

izaten. Eta zerbitzua, jendearekin dugun harremana, bereziki zaintzen dugu. Hona etortzen diren ia bezero guztien, denena ez esatearren, izenak dakizkigu eta tratua zuzena da eurekin. Badago konfiantza bat saltzaileon eta bezeroen artean, eta hori mantentzen saiatzen gara gu. Guk ezin dugu lehiatu supermerkatu handiek dituzten prezioekin, baina bai kalitatean eta zerbitzuan, eta horretan ahalegintzen gara", dio.

Xabat semea izan du proiektu honetan bidelagun Arrizabalagak: "Negozioen ordutegia lotua izaten da, eta, batzuetan, gura baino denbora gutxiago izaten dut berarekin egoteko, baina bera beti egon da ondoan; animo handiak ematen dizkit, gainera. Bere laguntza izugarria da niretako". Beste hiru lagun ere izaten dira tarteka dendan be-

rari laguntzen, "Kali, Giovana eta Maripaz".

Meriendak, prest

Ekintzailetasuna sustatzeko Elkarrekin Ekin programan hartu zuen parte Karmele Arrizabalagak eta han landutako ideia batzuk praktikan jarri ditu dendan; esaterako, umeendako ogitartekoak prestatzea. "Guraso asko larri ibiltzen dira, baina umeendako garrantzitsua da arratsaldeko ogitarteko hori, behar dute, eta nik prest izaten ditut dendan: ogitarteko txiki bat eta fruta pieza bat. Eskolatik ateratzen direnean etortzen dira ume batzuk, musika eskolara bidean beste batzuk, eta umeen bila doazen gurasoak ere pasatzen dira. Egubakoitzetan txokolata izaten dute, eta beste egunetan, sorpresa". Ideia hori askoren gustukoa izan da eta ogitarteko asko prestatzen dituzte ikasturtean zehar. "Horiek direla eta, dendara erosketak egitera etorri dira hainbat sarri, eta asko pozten nau horrek", dio Arrizabalagak.

Bezero asko ohikoak eta auzokoak dira, baina herriko beste kale edo auzoetatik ere joaten dira batzuk Errekaldeko dendara, "produktu freskoen kalitateak erakarrita", Arrizabalagaren esanetan. "Oñatiko baserriarren produktuak ditugu, sasoiak sasoiok. Orain, adibidez, letxugak eta tipulinak ditugu, baina lekak, tomateak, kalabazinak

eta zerbak ere izaten ditugu. Errekaldeko baserrikoak, Madalena auzokoak eta Ortuzabalakoak izaten dira, adibidez. Orain, bertako arrautzak saltzen ere hasiko gara".

Duela urte asko, dendako telefonoa ere auzotar askok erabili izan zuten deiak jasotzeko edo egiteko. Gaur egun, ez da horren beharrik, baina, eskolako apunteak jasotzeko, norbaiti zerbait entregatzeko edo galdutako arropak edo trasteak batzeko tokia ere bada Errekaldeko denda. "Topalekua izaten jarraitzen du, bai. Gainera, egunerokotasun eta gertutasun honek denok hobeto ezagutzen laguntzen digu, eta, azken finean, elkarren zaintza modu bat ere bada. Norbait bizpahiru egunean agertzen ez bada, berehala sortzen dira kezak. Eta kontrara, gurasoen zaintzaz arduratuta dauden seme-alabek ere deitzen digute senide horien jarraipena egiteko; azkenaldian despistatua ikusten ditugun edo ez galdetzeko, adibidez".

Ospakizunak

50. urteurrena bezeroekin, auzotarrekin eta herritarrekin gurako luke ospatu Karmele Arrizabalagak, hori da bere asmoa. Berez, Errekaldeko jaietan egin gura zuen ekitaldi bereziren bat, "pintxo batzuk prestatu eta beste zertxobait", baina ez da jairik egon, eta orain, pentsatzen ari da noiz eta nola egin topa.

Zergatik zatoz hona?



ANA SANTOS
HERRITARRA

"Bertako bezeroa naiz urtetan. Errekalden bertan bizi naiz eta asko eskertzen dut horrelako denda bat hemen edukitzea. Aldaketa batzuk egin dituzte orain eta oso txukun eta egoki dago, gustura etortzen naiz. Produktuen kalitatea oso ona da eta langileen aldetik jasotako tratua ere bai".



LEIRE ALTUBE
HERRITARRA

"Komertzio txikien aldekoa naiz. Hemen aukera handia dago eta kalitate oneko produktuak zein marka zurikoak daude. Atertzioa ere oso pertsonalizatua eta profesionala da eta konfiantza hori asko eskertzen dut. Umeendako merienden ideia mundiala izan da".

Prozesiorik ez, baina corpusak ospatu dira

GOIENAK zuzenean eman zuen meza nagusia herritar askok jarraitu zuten eta musika bandaren emanaldirako sarrerak azkar agortu ziren. Gauetz ere ibili da jendea kalean; Ertzaintzak lau dei jaso zituen eta taberna bati isuna jarri zion

Oihana Elortza OÑATI

Ez dira betiko corpusak izan, ez dira urtero egin ohi diren ospakizunak eta ekitaldiak egin, baina Corpus jaiak ospatu direla esan daiteke. Bai, behintzat, egondako ekitaldietan jendeak parte hartu duelako eta egunez zein gauetz ibili delako jendea, adibidez, egondako afariez eta bazkariez gain.

Ia 200 lagun konektatuta

Apirilaren amaieran hartu zuten prozesioa ez egitearen erabakia Oñatz dantza taldeak, Corpuseko kofradiak, Oñatiko parrokiak eta Oñatiko Udalak. Udalak berak aurretik esana zien barrakekin etortzen direnei aurten ezingo zirela etorri, eta kultur arloko ekitaldirik antolatzea ere ez zen posible. Baina, prozesioa ez egin arren, Corpus Eguneko meza egingo zutela erabaki zuten, eta zuzenean eskainiko zutela GOIENAREN bitartez, telebistan zein *streaming*-ean. Eta askok jarraitu zuten meza; Internet bidez, esaterako, ia 200 lagun egon ziren konektatuta meza ikusten. Gainera, emititutako saio berezia eta aspaldiko prozesioetako irudi zaharrak ere toki askotara heldu dira eta pozik ikusi dituzte, adibidez, Txilen, Hernanin eta Bilbon.



Oñatzeko dantzariak dantzan Corpus Eguneko mezan. XABI GOROSTIDI

Zapatu gauean isuna

Egubakoitz zein zapatu gauean ere ibili da jendea kalean, eta izan dira osasun araudi haustek ere. Ertzaintzan, esaterako, herritarrek egindako lau dei jaso zituzten asteburuan, guztiak gaueko ordutegian. "Edukierak eta distantzia ez betetzeak eragindako zaratengatik" izan ziren, Ertzaintzak azaldu duenez. Eta zapatu gauean taberna bati isuna jarri ziotela ere baieztatu du: "Establezimendu bakarra salatua izan da, momentuz, edukiera gainditu zuelako eta bezeroen

arteko urruntze distantzia errespetatzen ez zelako". Oñatiko Udalak gezurtatu egin du tabernek 06:00ak arte zabalik egoteko baimena zutenik. "Ordenantzan jasotako ordutegia zuten. Eskatu zaiena izan da arduraz eta zentzuz jokatzeko", azaldu du alkateak, Izaro Elorzak.

Ekainaren 1a ezkerro, udako ordutegia dute tabernek: 03:00ak arte arruntek eta 04:30ak arte kategoria berezikoek. Bost taberna sartzen dira bigarren talde horretan: Izarraitz, Itturri, Txaketua, Arrano eta Boise.

Irunberriko gertaeren gaineko ekitaldiak datozen egunetan

Datorren astean, 30 urte beteko dira Irunberriko gertaerak izan zirenetik, eta, orduan zer gertatu zen gogora ekartzeko, bi hitzaldi antolatu eta aldizkari edo txosten bat prestatu du Oñatiko ezker abertzaleak.

Ekainaren 24an, Floren Aoiz etorriko da eta 1990ko egoera soziopolitikoaz jardungo du. Uztailaren 1ean, berriz, Txemi Gorostiza abokatua etorriko da Irunberriko gertaeraz berba egitera. Hitzaldi biak gaztetxean izango dira, 19:00etan. Txostena, etxez etxe banatuko dute uztailaren hasieran. Bestalde, Egiari Zor fundazioak oroimen ekitaldi bat egingo du, 26an, 19:00etan, San Martingo zuhaitzian.

Herritarrei maskarak banatzen hasi da Udala aste honetan

Herritarren artean maskarak banatzen hasi da Udala. 70 urtetik gorako guztiei, esaterako, etxera bidali dizkiete maskarak, postaz. Gainerako herritarrek herriko plazan jarriko duten postuan jaso beharko dute. Gaur, egubakoitza, eta hurrengo astelehen hiru egunetan egongo dira, 10:00etatik 12:30etara eta 17:00etatik 19:30era. Saretuz-eko boluntarioak ari dira banaketan laguntzen.

Maskarak egiteko erabili duten ehuna EN13795 arauaren baitan testatutako ehuna da, Udalaren esanetan, eta 300 aldiz garbitu daitezke. Gehienak erosi egin ditu, baina batzuk herriko jostunek egin dituzte.

NIRE USTEZ



XABIER IGARTUA

Txarrenari onena

Itxialdi garaian inoiz baino hartu-eman gehiago izan ditugu herriko eragileekin. Telekonferentzia ez da aurrez aurrekoaren berdina, jakina denez, baina komertzio, tabernari, ostalari, gastronomia elkarteetako ordezkariekin maiztasunez hitz egiteko aukera izan da. Horren denbora gutxian horrenbeste bilera egiteko gai izango ginela ez nuen esango. Irakasleak ere saiatu dira, baina konturatu gara azpiegitura teknologikoetan burujabe ez izatearen arazoa. Interneteko sarbide gabe klaseak ezin hartu hainbat ikasle. Dirutza irabazten duten oligopolioko operadoreen partetik erantzunik ez. IZARKOM, bertakotik, kooperatiba eraldatzaileen eskutik irtenbidea hemen ere. Tokikoaren garrantzia, herri bizia, koloretsua izateko gure merkatari eta ostalarien beharraz ere ohartu gara, baserritarren produktuak eskuratzeko herrietako merkatuen ekarpenaz. Ikusi dugu bizitza duina izateko zaintzaren paperaz, zabor poltsekin babesteko mantalalagintza egin beharrik izango ez duen osasun sistema publiko indartsu baten beharraz. Geroko proiektu estrategikoak zehazteko balio izan dezala azken hilabeteetan bizitakoak.

Herritar guztion esku dago geuria zainketia

HERRITIK ZUZTARRERA, ZUZTARRETIK HERRIRA

Gaur merkatariak, ostalariak eta enplegatuak



Haur talde bat Oñatiko plazaren erdian. IMANOL BELOKI

Uztailaren 1ean ekingo diote aisialdi zerbitzuari

Udalekuen orde, udako zaintza hezitzailea antolatu dute haurren aisialdirako. 226 haurrek hartuko dute parte, eta goizero lau orduz arituko dira ekintza ezberdinetan. Aurten, baina, landa eremuetaraino iritsiko dira; hori bai, segurtasun neurriak hartuta

Maialen Santos OÑATI

Ohiko udalekuen orde, udako zaintza hezitzailea prestatu du udalak, uztaileko. Iker Oñate Haur eta Gazteria zinegotziak azaldu duenez, "egoerara" egokitutako zerbitzua izango da, zeinetan "segurtasun neurri guztiak" bermatuko diren. Uztailaren 1etik 24ra eskainiko dute, eta adinaren arabera bi multzo nagusitan banatuko dituzte haurrek; elkarrekiko "era independentean". Horien baitako talde txikiak ere ohi baino "murrizagoak" izango dira. Topalekua ez da gaztelekua izango, herriko gune ezberdinak baizik. "Herriguneko toki ezberdinetan elkartu arren, landa auzoetara ere joango gara", azaldu du Oñate. Udako eskaintza goizetan egingo dute, eta lau ordukoak izango da hirukoaren orde: 09:00etatik 13:00etara. Zinegotziak azaldu duenez, dinamika ere ez da "ohikoa" izango; esaterako, haurrek ezingo dutelako material guztia elkar-

banatu. Segurtasuna mantentzeko, umeei maskarak banatuko dizkiete, baita goizero tenperatura hartu ere.

Guztira, 226 ume

Udako zaintza hezitzailea prestatzen hasi aurretik, ordurako 700 ume inguruk zuten izena emanda udalekuek. COVID-19aren eraginez, baina, kopuru hori murriztu egin behar izan dute. "Horretarako, familiei eskatu diegu euren egoera baloratu dezatela; eta kontziliazio-gatik eta gurasoen zein umeen beharregatik soilik ekar ditzatela umeak zerbitzura". Gauzak horrela, asko izan dira bajan eman diren umeak; eta 226 ume hartuko dituzte azkenean. Horren

HAURRAK BI TALDE NAGUSITAN BANATUKO DITUZTE; ELKARREKIKO INDEPENDENTEAK

harira, zinegotziak eskerrak eman nahi izan dizkie familiei, "borondatez" jardun eta "egoera ulertzeagatik".

Begiraleen formakuntza saioak, bestalde, bi izango dira: bata, arlo pedagogikoari buruzkoa, eta bestea, segurtasuna lantzeko.

EAJ, proposamenei "eusten"

Zaintza zerbitzuaren harira EAJk egindako proposamenen artean zegoen zaintzarako dirulaguntza lerroak eskaintzea: "474 haur zerbitzutik kanpo geratu dira. Aitona-amonen ardurapean geratuko direla uste dugu, eta hori saihestea gura genuen". Bestalde, uste dute izen-emate prozedura ez dela "egokia" izan, familiei zerbitzuaren beharra baloratu dezatela eskatzeak, izen-ematean atzera egitera "bultzatu" dituelako. Azkenik, hizkuntza aldetik beharrak dituzten haurren egoerak ere kezkatzen ditu, eta diote etxean euskaraz komunikatu ezingo direnen beharrak "zalantzan" daudela.



Eltziako gimnasioa hutsik, jendea hartzeko prest dagoela. GOIENA

Asteleheneetik aurrera erabili ahal da Eltziako gimnasioa

Aurrez txanda hartu beharko da eta eguerdian ordu eta erdiz itxi egingo dute desinfekzio lanak egiteko

M.S. OÑATI

Eltzian egokitutako gimnasioa hilaren 22an, astelehenean, zabalduko dute. Hiru gelatan antolatu dute gimnasioa eta zortzi eta hamabi erabiltzaile artean egon ahal izango dira batera, kasuan kasu. Bertara joan ahal izateko txanda hartu beharko da aurrez, kiroldegietako harretan edota 943 71 63 75 telefonora deituta. Egunez egunera egin ahal izango da erreserba, eta, erabilera egin ondoren, hurrengorako eskaera egun bat pasa ondoren egin ahal izango da. Bestalde, 13:30etik 15:00etara

itxiko egingo dute gimnasioa, garbitu eta desinfektatzeko.

Lehen astea, positiboa

Astelehenean ireki zuten Zubikoako kirol-gunea, eta lehen egunetan jendea "mugitzen hasia" dela azaldu du Oskar Carrascal Kirol teknikariak, "pizkanaka bada ere". Esaterako, Aloña Mendiko Pilota sailekoak hasiak dira entrenamendu saioak Zubikoako pilotalekuan egiten, eta spinning gelari erabilera ematen hasi denik ere badago. Tenis pistak ere erabiltzen direla azaldu du Carrascal.

Dagoeneko eman daiteke izena uztaileko fitness ekintzetarako

Eskaintza zabala antolatu dute uztail osorako. Zubikoako kiroldegian eman daiteke izena, ekainaren 25era arte

M.S. OÑATI

Zubikoako kiroldegian fitness zerbitzua martxan jarriko dute uztailean, eta eskaintza zabala antolatu dute hilabete osorako. Dagoeneko eman daiteke izena kiroldegian bertan; ekainaren 25a izango da azken eguna.

Fit bikea, pilatesa, body tonoa, nordic walking delakoa, zumba eta entrenoa funtzionala eskainiko dituzte. Rosa Lasagabaster Kirol teknikariak adierazi duenez, eskaintza iazkoaren antzekoa izango da, baina kirol ordu gehiago eskainiko dituzte aurten,

"taldeak murrizagoak izango direlako". Ekintza gehienak kantxan egingo dituzte -fit bikea izan ezik-. Era horretan, "eremu zabalagoa" hartu ahal izango dute kirola egiteko, eta, beraz, pertsonen arteko bi metroko segurtasun distantzia mantentzea "errazagoa" izango da.

Horretaz gain, teknikariak azaldu du posible den heinean nor bere materiala etxetik eramateko eskatuko dutela, eta Zubikoako instalazio zein materialean garbitasuna "bereziki" zainduko dutela.

Protokoloari jarraiki zabalduko dute Eltzia

Bertan elkartzen diren 25 taldeetako ordezkariak bilera egin zuten joan den astean; eta, Udalaren onespenerekin, eraikina ireki egingo dute. Protokolo bat zehaztu beharko dute, eta gero, talde bakoitzak erabaki beharko du jarduerara itzuliko den

Maialen Santos OÑATI

Osasun krisiaren eraginez Eltzia ixteko erabakia hartu behar izan zuten, martxoan, bertako Asanbladako Koordinadora Taldekoek. Erabaki horren eraginez, Eltzia ohiko topaleku duten 25 kultur taldeetako kideek ez dute modurik izan bertan elkartu edota entseatzeko. Joan den astean, baina, taldeetako ordezkariak batzarra egin zuten, eta Eltzia berriro irekitzeko erabakia hartu zutela azaldu du Eltzia koordinadorako Ione Zubizarretak: "Hain justu, erabaki genuen Udalari eskatzea Eltzia ireki dezala". Aitortu duenez, gainera, Udalak begi onez hartu du proposamen hori.



Eltziako eraikinaren aurrealdea. GOIENA

Protokoloaren beharra

Eltzia ireki ahal izateko, baina, protokolo baten beharra dutela azaldu du Zubizarretak, eraikin barruan nola jardun dezaketen jakiteko. Lan hori egiteko, bilera egin zuten eguaztenez: "Asanbladako kideez gain, Udaleko teknikari bat ere izan zen gurekin. Eltzia eraikuntza publikoa den heinean, Udalaren laguntza behar dugulako". Behin protokoloa zehaztuta, hurrengo urratsa izango da segurtasun neurriak betetzeko materiala erostea; esaterako, desinfektatzeko gelak.

Gauzak horrela, Zubizarretak azaldu du Eltzia datorren astean edo, gehienera jota, bi aste barru irekitzea "aurreikusen" dutela.

Eraikina ireki arren, talde bakoitzaren erabakia izango da Eltzia erabiltzen hasi ala itxaron. Era berean, talde bakoitzaren ardura izango da "zentzuz" jokatzea. Hain justu, Txantxiki familia elkarteko kide ere bada Ione Zubizarreta, eta azaldu du herriko ikastetxeak oraindik itxita daudenez gero, beraiek ere oraindik ez direla jarduerara itzuliko. Algaraz elkarteko Josu Zubiak,

bestalde, GOIENARI azaldu dio "lanean hasteko" gogotsu dagoela, eta, beraz, Eltzia ireki bezain pronto ekingo diotela entseatzeari: "Gure lanak sormen eta lan kolektiboa du oinarri, eta entseatzeko beharra dugu". Are gehiago, azaldu du Potx eta Lotx magoek ikuskizuna eskainiko dutela ekainaren 23an, Elorrioren, eta, Eltzia ireki ezean, ezingo dutela ikuskizunerako entseatu. Hala, beste arlo batzuetako langileen modura, kultur gileak ere "ahal bezain azkarren" lanean has daitezkeen gurako luke Zubiak.

Elkar Hezi Eguna ezohiko moduan ospatuko dute bihar

Ikastetxetik adierazi dute ez dutela "urteroko festa" antolatuta baina bai hainbat ekintza astea eta eguna "bereziagoak" izan daitezkeen. Era horretan, une zalak "elkarrekin eta elkarrentzat" egonda arinagoak direla aldarrikatu gura izan dute, baita azken hilabeteetan komunitate osoak erakutsi duen inplikazioa eta konfidantza "txalotu" ere.

Hainbat material eskegi dute ikastetxeko webgunean: jaialdien bideoak, ikasle zein ikasle ohiek egindako bideo-tutorialak, argazki collagea eta ikasle talde batek ekoiztutako bideoa. Bestalde, biharko, Potx Magoaren ikuskizuna antolatu dute; 18:00etan, Santa Anan. Adierazi dute 80 pertsonako edukiera izango dutela, eta sarrerak dagoeneko banatu dituzte. Soberan egongo balira, gaur bertan erreserbatu ahalko lirake, 943 71 82 72 telefonora deituta.

5G teknologiaren arriskuak berba martitzenean

5G teknologia dakartzan arriskuei buruzko hitzaldia antolatu du Informa-tu taldeak datorren asterako. Martitzenean izango da hitzaldia, 19:30ean, Kultura Etxean, eta Ceferino Maestu bioelektromagnetismoan aditua den mediku eta zirujau arituko da teknologia horren arriskuei buruz hizketan, gazteleraz. Saio irekia izango da; sarrera doakoa

izango da, baina edukiera mugatu egingo dute. Hitzaldira joan ahal izateko, aurrez sarrera erreserbatu beharko da, 658 71 90 89 telefonora deituta, eta Zoom plataformaren bitartez ere jarraitu ahal izango da hizketaldia. Online konektatu ahal izateko, <https://forms.gle/p4fGPS5iPuTY4r6MA> dokumentuan eman behar da izena, eta, antolakuntzatik azaldu dutenez, jarraian jakinaraziko dituzte saioa zuzenean jarraitu ahal izateko egin beharreko urratsak.

'Black is beltza' eskainiko dute gaur, aire libreko zineman

ESKU-LTU-RA Kultura Eskura programaren barruan, *Black is beltza* filma eskainiko dute gaur, 22:30ean, plazako pilotalekuan. Filma ikusi ahal izateko aurrez eskuratu beharko dira sarrerak; doan izan arren, segurtasun arrazoiengatik edukiera mugatu egingo dute. Hala, www.onati.eus webgunean eta Txokola-teixan hartu ahal izango dira.

Agortu dira Sharon Stoner eta Bizarro ikusteko sarrerak

Uztailaren 30ean 22:30ean eskainiko dute kontzertua bi taldeek, Gaztelekuan. ESKU-LTU-RA programaren baitako emanaldia izango da, eta edukiera mugatuta egongo da. Hain zuzen, www.onati.eus webguneko sarrerak dagoeneko agortu egin dira, baina bi taldeen ikuskizuna streaming bidez ere jarraitu ahal izango da.



ZERGA, KONTABILITATE ETA LAN ARLOKO AHOLKULARITZA
ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com

"Pasaiako estropadak erakutsiko du non gauden"

EIDER ALTUBE ISUNTZAKO ARRAUNLARIA

Euskotren liga uztailaren 4an hasiko dute A Coruña, eta ETE liga hilaren 11n hasiko dute. Hor, Debagoienak bi ordezkari izango ditu, Eider Altube eta Nerea Agirrezabal

Xabier Urzelai ARRASATE

Eider Altubek (Arrasate, 1997) bost urte daramatza arraunean. Ondarroako eta Lekeitioko taldeak batuta sortu zuten Lea Artibai izeneko proiektuan hasi zen, hain zuzen, beste debagoiendar batekin, GOIENAK azaroan elkarriketatu zuen Nerea Agirrezabalekin batera. Pare bat urte geroago, herri bakoitza emakumezkoen talde propioa sortzeko gauza izan zen, eta azken urteotan bi debagoiendarrak, itsasoan, kontrario izatera pasa dira. Hala, dagoeneko desatzen daude traineruan indarrak neurteko. Pasaian izango dute lehenengo hitzordua, uztailaren 11n, denboraldiko lehen estropadan. **Zer moduzkoa izan da ostera ere traineruarekin uretara sartzea?** Uf... azaldu ezin dezakedan sentazioa da... Entrenamendu bakarra egin dugu uretan, eta, gainera, euria egin zigun, baina sentazio ederra izan zen guztiendako. Denok elkarrekin traineru barruan geundela ikusi genuenean eta itsasora sartu ginenean... Ezin da hitzekin deskribatu.

Non egongo da aurten Isuntza? Ze talde duzue?

Hori da denok gure buruari egiten diogun galdera: zer-nolako maila izango dugu? Eta kontua da Pasaiako lehenengo estropada iritsi arte ezingo diogula galdera horri erantzun. Hor ikusiko dugu gutako bakoitza

non dagoen, kontrarioak non dauden, eta aurtengo denboraldia ze talderen kontra izango dugun borroka estua. Berez, liga gogorra da gurea, ETE izena du eta Euskotren ligan baino kategoria bat beherago gaude. Uste dugu iaz baino pare bat postu aurrerago ibil gaitzkeela.

Ondarroa izango da kontrarioetako bat; taldekideak izan ziren zuen hastapenetan, eta lehia handia duzue eurekin. Tartean dago Nerea Agirrezabal bergararra.

Bai, lehia polita dugu eurekin, bai. Duela urte batzuk emakumezko talde batek arraunean egin gura genuelako batu ginen bi herrietako arraunlariak. Egia da bati baino gehiagori ez ziola horrek grazia handirik egin [Barreak], berez bi herrien artean lehia handia dagoelako, baina behar batetik batu ginen eta proiektu polita sortu zen. Urte gutxi batzuk geroago, bai Lekeition eta baita Ondarroan ere talde propioa izateko nahikoa

arraunlari ditugu, eta bakoitzak bere bideari heldu dio. Hala, seguru aurten ere kontrario zuzen izango ditugula. Iaz, estropada gehienetan posturen bat aurretik ibili ginen [Barreak], bateren bat irabazi ziguten eurek ere, eta aurten ere aurretik ibiltzea espero dugu. Baina ez dira kontrario zuzen bakarrak izango. Dena dela, polita da taldekide izan dituzunak orain beste traineru baten ikustea, eta nahiz eta, bi herrien artean lehia handia egon, guk harreman ona dugu, baina baita *pike* puntu hori ere.

Arrasatear bat arraunean, nondik nora?

Familia dut Lekeition, eta aita oso arraun-zalea da. Gogoan dut, duela urte batzuk, egunkaria irakurtzen nembilela zelan ikusi nituen San Juaneko neskek Kontxan txapeldun geratu zirela. Bazkalostea zen, eta aitari aipatu nion nik ere gustura probatuko nuela arrauna. Bada, aitzak Isuntza arraun taldean ezagunak zituen, eta bi egunera deia jaso nuen, emakumezkoen arraun taldea sortzeko asmotan zebiltzala eta ea animatuko nintzatekeen. Halaxe hasi nintzen, eta gaur egunera arte.

Zelan pasa duzue konfinamendua?

Nahiko ondo. Martxoan, uretara lehenengoz sartu ginen egunaren ondoren etorri zen alarma egoera, eta behin-behineko entrenamendu saio batzuekin hasi genuen lehenengo astea. Gero,



Eider Altube. X.U.

gure entrenatzailearen bitartez ahalik eta ondoen mantentzen saiatu gara denok, baina ez da erraza, arrauna oso kirol jarduera berezia delako. Ondo entrenatzeko arraunean egin behar da, etxean ariketak egitearekin ez da nahikoa. Eta, uretara behin sartzea nahikoa izan da eskuetan zauriak egiteko, ipurdian... Zeretik hastea moduan izan da. **Zure kasuan, gainera, gipuzkoarra izanda, gehiago itxaron behar izan duzu taldekideekin batera entrenatu ahal izateko.**

Akaso, hori izan da gogorrena. Konfinamenduan geundenean, denok geunden etxean, egoera antzerakoa zen guztiondako, eta egokitu beharra zegoen. Baina azken aste hauetan ikustea taldekideak elkarrekin entrenatzen, eta norbera mugaren alde honetan egon behar izatea...



Isuntzako arraunlariak, martitzeneko entrenamendu saioan, Lekeition. E.A.



Entrenamendua hasteko gertu. E.A.



Arraunlariek ezin dute maskara kendu traineru barruan egon arte. E.A.

Segurtasun neurriekin hasi zarete entrenatzen.

Bai; neurri zorrotzak dira, gainera. Kluberak maskarekin sartu behar dugu denok, eta arraunean hasi arte ezin dugu maskara kendu. Gero, erabiltzen ditugun arraun eta bestelako material guztia garbitu egin behar dugu, dutxatzera etxera etortzen gara... Oraindik ez digute zehaztu estropada egunak zelakoak izango diren, zehazteko dugu hori, eta denboraldiak irauten duen bitartean –uztailaren 11tik irailaren 20ra arte– PCR bidezko pare bat proba egingo dizkigute: denboraldi hasieran lehenengoa eta beste bat erdi inguruan. Bestalde, egutegia moldatu egin dute.

Zeintzuk izango dira Isuntzak izango dituen urteko erronka nagusiak? Lekeitioko estropada, normala den moduan, oso garrantzitsua da guretako, eta Pasaiaiko estropadaren ondoren etorriko da gurea; horrenbestez, ez dugu egokitzeko asti handirik izango. Eta Kontxako Bandera ere oso polita da, sekulako giroa egoten da. Ez dakit zergatik, baina Kontxan lan ona egin izan dugu, ea aurten ere halaxe egiten dugun. Gure asmoa da bizpahiru urtetan Kontxako finaleko tandarako sailkatzeko moduan egotea.

Arraunlari moduan datozen hilabeteotan egutegi bete izango duzu.

Hori da arraunean hasi gura duenak garbi izan behar duena. Parrandak irailetik aurrera egin beharko dituela, alegia [Barreak]. Udan astebururo ditugulako estropadak eta esijentzia maila oso handia delako. Askok ez dute dedikazio hau ulertzen, 22 urterekin zelan lehenesten dugun lagunekin ibili beharrean arraunean egitea. Baina izugarri harrrapatzen duen kirol jarduera da hau.



Arraunean azken ukituak egiten; garbitu egin behar dute gero dena. E.A.



Trainerua prestatzen, itsasora sartzeko. E.A.



Isuntza taldea, iazko denboraldian. ISUNTZA



Nagore eta Leire Galeano. MAIDER ARREGI

Galeano ahizpak gertu daude domekako finalerdirako

Emakume Master Cup Txapelketako finalaren atarikoak Elgoibarren jokatu dute etzi; pauso batera dute finala

X.U. ARRASATE

"Ez geneukan batera garbi finalerdia jokatu genuen ala ez, eta pena emango liguke behin honaino iritsita txapelketa bertan behera geratzeak", adierazi dio GOIENari Nagore Galeanok. Egindako lanak, baina, fruitua izango du, eta domekan Elgoibarren jokatu dute jaialdian antzularrek pauso batera izango dute finala.

Galeano ahizpek Pilota Goxoa kategoriako finalerdia jokatu dute, eta aurrean izango dute Ainhoa Ruiz de Infantek eta Amaia Jakak osatuko duten bikotea. Beste finalerdian, berriz, Iera Agirrek eta Maite Ruiz de Larramendik Irantzu Etxebesteren eta Ane Urkizuren kontra jokatu dute –hor ez dago debagoiendarrik–. "Kontrario gogorak dira, badakigu ez dela partidu erraza izango. Gu baino nagusiagoak dira eta pilota ondo mugitzen dute batera eta bestera", dio Leire Galeanok. "Baina gure jokoa egiten ahaleginduko gara". Hala, txapelketako jokalari gaztetxoak dira Antzuolako ahizpak, 15 eta 12 urterekin.

Frontoian, baimen batekin

Galeanotarrek konfinamenduko lehen asteetan ez zuten izan gura moduan entrenatzeko aukerarik, eta etxean ibili behar izan zuten. Azken asteetan, ostera, pilotalekura joatea lortu dute, baimen bati esker, eta asteen hiru egunetan izaten dira han: "Etxetik irteteko baimena eman zutenean, kanpoko pilo-

taiekuan hasi ginen entrenatzen, eta gero, Master Cup-eko antolatzaileek bidalitako ziurtagiri bati esker, barruko pilotalekuan hasi ginen lanean".

Finalaurrekoa irabazten duten bikoteak finalean izango dira eta hori hilaren 28an jokatu dute, Irunen. Galeano ahizpak txartel horren bila joango dira, zalantzarik gabe: "Orain arte, txapelketa ona egin dugu, baina finalera iristea txapelketa borobiltzea izango litzateke, eta hori da gure helburua". Hala, domekako pilota jaialdia ETB1ek eskainiko du.

'Plazandreak' saioa, udan

Emakume pilotariak izango dira protagonista ETB1ek uda honetan eskainiko duen *Plazandreak* saioan, eta saioaren helburuetako bat izango da emakumezkoen pilota ezagutzera ematea. Hala, tartean egongo dira bi bergarar, Arrate Bergara eta Reyes Azkoitia.

Hamabi pilotari egongo dira lehen, lau taldetan banatuta, eta Arrate Bergara izango da pilotari horietako bat. Kontrara, Reyes Azkoitia izango da taldeetako bateko entrenatzailea.



Arrasate Literatura Lehiaketako aurtengo irabazleak, eguaztenean Kulturaten egin zuten sari-banaketa ekitaldian. AITOR AGIRIANO

Euskarazko sorkuntza bultzatzeko baliagarriak

AEDren 33. literatura lehiaketako sariak eguaztenean egin zuten ekitaldi itxian banatu zituzten; Bergarako Udalaren 35. Koldo Eleizalde sariak ere eman dituzte, eta Goiena telebistako gaurko 'Etxetik plazara' saio berezian egingo dute horren kontakizuna

A. Aranburuzabala ARRASATE

Arrasateko euskara elkarteak azkeneko urteetan egin duen moduan, Kulturaten banatu ditu aurtengo Arrasate Literatura Lehiaketako sariak; alarma egoerak bultzatuta, ekitaldi itxia egin zuten eguaztenean, eta irabazleak, antolatzaileak eta aurtengo gonbidatu Jon Maia bertsolaria eta idazlea izan ziren.

Ekitaldiak emandakoak laburbildu zituen Aitor Agirianok atzo, eguena, *Hemen Debagoiena* saioan eskaintako erreportajearen, eta ekitaldi osoari buruzko saio berezia astelehenean 21:00etan eta 23:00etan izango da Goiena telebistan ikusgai.

Jon Maiaren bizipenak, ikasgai

Gazteengan euskal sormena bultzatzea da AEDren sariketaren asmoa, eta, helburu horrekin lotuta, eredu den sortzaile bat gonbidatzen dute urtero; Jon Maia bertsolari eta bestelako sormen lan asko egin dituenaren bizipenak entzuteko aukera izan zuten irabazleek. "Parte hartzai-

leen adinean kokatu zen eta bertso eskolan 11 urterekin hasi zela kontatzen abiatu zuen hitzaldia. Bere Extremadurako jatorriagatik eta gurasoen zein aitona-amonen izen eta abizenegatik garai hartan lotsatu egiten zela eta konplexu handiak zituela transmititu zuen, anekdoten bitartez. Adin horren bueltako ametsak betetzea zaila dirudien arren, lortu daitekeela erakutsi zuen berak egin duen ibilbide oparoaren kontakizuna eginda, eta gazteek adi-adin jarraitu zioten. Hitzaldia borobiltzeko, itxialdian sortu duen *Ixolamendua* ekimeneko hiru bertso kantatu zituen. Ederrak!", dio AEDko Itxaro Artolak.

22 saritatik 20 banatu dituzte

Sei kategoriatan banatuta –narrazioa, ilustrazioa, bertso papera, mikro ipuinak, poesia eta komikia– 20 sari banatu dituzte. Pozik daude uztarekin. "Beldurra genuen, baina, azkenean, 139 lan jaso ditugu; kopuru orokorra mantendu egin da".

Arrasate Literatura Lehiaketako irabazleak

Narrazioa. LH5-6

- **1. saria** Intza Ezpeleta.
- **2. saria** Laia Bollon.

Narrazioa. DBH1-2

- **1. saria** Nora Zeziaga.
- **2. saria** Naiara Oroiz.

Ilustrazioa LH5-6

- **1. saria** Ane Fernandez.
- **2. saria** Nahia Roperro.

Ilustrazioa DBH1-2

- **1. saria** Naiara Lezama.
- **2. saria** Alaitz Rodriguez.

Bertso papera LH5-6

- **1. saria** Nahia Roperro eta Nerea Dulugea.
- **2. saria** Uzuri Tena eta Ane Sanchez.

Bertso papera DBH1-2

- **1. saria** Saria eman gabe geratu da.
- **2. saria** Lide Azkarate eta Alaitz Etxebarria.

Mikro ipuinak DBH3-4

- **1. saria** Itxaso Plaza.
- **2. saria** Anne Sanchez.

Mikro ipuinak Batxilergoa

- **1. saria** Uxue Uzkue.
- **2. saria** Amaia Rivera.

Poesia DBH3-4

- **1. saria** Amets Arexolaleiba.
- **2. saria** Amets Arexolaleiba.

Poesia Batxilergoa

- **1. saria** Izar Ruis de Austri.
- **2. saria** Ane Valle.

Komikia DBH3-4

- **1. saria** Alaitz Zabala.
- **2. saria** Eman gabe geratu da.

Koldo Eleizalde lehiaketa Bergaran

Udaleko Euskara Sailak bultzatzen duen sariketaren formatua moldatu egin dute, eta, oraingoan, familian sortutako lanak aurkezteko aukera izan da. Ikus-entzunezko, ipuin idatzi, poesia, bertso eta komiki sailetan banatuta, haurrek, gazteek eta helduek bidalitako 200 lanetik gora jaso dituzte. "Euskaraz sortzen laguntzea da helburua; horregatik, lehiaketaren bueltan askotariko tailerrak ere egin ditugu", azaldu du Estepan Plazaolak, Udaleko Euskara Saileko arduradunak.

Gaurko 'Etxetik plazara' saioan, lehiaketa protagonista

Sariak banatu dituzte, sari banaketa ekitaldirik egin ez badute ere. "Seminarixoko ekitaldiaren ordez telebista saio bat egin dugu Goienarekin elkarlanean; gaur 21:30ean eta 23:00etan eskainiko den *Etxetik plazara*-n protagonistekin elkarriketak, errezitaldiak eta beste sorpresa asko batuko dituzte Agirianok eta Arregik".

HALA BAZAN

GOIENA TELEBISTA, 90. HAMARKADAKO SAN JUANAK
EKAINAREN 19AN, EGUBAKOITZEAN, 21:00ETAN
EKAINAREN 20AN, ZAPATUAN, 14:30EAN ETA 17:00ETAN

goiena
Zu hemen zaude.



"Gure kabuz aterako gara berriz ere zuloatik"

IÑAKI BENGEOA SHOT! ESTUDIOA

San Andres auzoan dagoen musika estudioan egin dituzte lehen grabazioak; ez dute ohiko lan-jardunik, baina kulturagintza sektorea piztuaz joango den esperantza du

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Kulturagintza sektorearen egoera ona ez den arren, baikorra da Iñaki Bengoa; erritmo lasaian bada ere, hasi da lanean.

Zer moduz zaude?

Ondo, lasai nago; esango nuke niretzako pertsonalki gogorragoa egin zaidala sutearen ondorioetatik burua ateratzea pandemiaren eraginetatik baino; akaso, egoera hau orokorragoa delako, edo ez dakit zergatik, baina aurrera begira nago, ez dago besterik. Baikorra naiz, eta hemen dik ere aterako gara.

Zelako lanak egiten ari zara orain?

Orain dela hiru aste hasi nintzen, eta erakundeetarako eta enpresetarako egiten dituzten bideoen lokuzioak grabatzen ari gara.

Aldaketarik egin behar izan duzu lantokian?

Langile bakarra naiz eta lokuzio-grabazio horiek egiteko pertsona bat bakarrik etorri da; hortaz, beharrezko babes neurriak zainitzeaz gainera, ez dut besterik egin, oraingoz, baina taldeekin lanean hasten naizenean egoerak beste modu batera lan egitera bultzatuko gaitu.

Zertan aldatuko du, adibidez?

Talde osoa aldi berean estudioa etortzeko aukerarik ez da izango, eta kide bakoitzarekin, hau da, musika tresnak banan-banan grabatu beharko ditugu.

Noiz hasteko asmoa duzu berriz musika taldeekin lanean?

Datorren astean alarma egoera bukatuta egongo denez, ordurako ari naiz lotzen. Prozesua motela da, taldeek ez dute entseatzeko aukerarik izan, eta orain ari dira martxan jartzen, eta euren denbora behar dute.

Pandemiaren aurretik zein zen Shot! estudioaren egoera?

Martxan jarri berri, kasik, gutxi gorabehera sei hilabete zeramatzan zabalik. Proiektu batzuk bertan behera geratu ziren, baina aurrerago guztiak berreskuratuko ditugulokan nago.



Iñaki Bengoa, eguaztenean, Shot! estudioan. AITZIBER ARANBURUZABALA

"TRISTEA DA HALAKO PANDEMIA ETORRI BEHARRA SEKTOREA BATZEKO, BAINA EZ DA SEKULA BERANDU"

Ez da gauza berria kultura arloa egoera prekarioan dagoela esatea; zuk zelatan ikusten duzu?

Kultura sektoreak dirulaguntzetan askorik ez duela sinistu uste dut; nik, behintzat, gutxi. Eta, horregatik, sekula ez dut halakorik eskatu. Orokorrean, politikariei kultura ez zaiela askorik axola uste dut, eta orain, gutxiago; sektoreko langileok nahiko ohituta gaude zuloetatik ateratzen, eta esango nuke oraingoa ere aterako garela, baina ez dirulaguntzen edo politikarien bitartez, gure kabuz baizik!

Pandemiak ikustarazi du kultura arloan zenbat lagun ari diren lanean.

Hala da; aurrekoan, Doctor Deseo-ko abeslari Francisi entzun nion esaten taularen gainean dagoen musikari bakoitzeko lau teknikari daudela lanean; hortaz, pentsa zelako garrantzia duten soinu eta argi teknikariek, ma-

nagerrek... horiek ari dira pandemiaren eragin handiena jasotzen; izan ere, zorritzarrez, Euskal Herriko musikari gehienak beste ogibide bat izatera behartuta daude.

Sektore profesionalek bultzatuta, elkarte eta plataforma pila bat sortu dira. Ze iritzi duzu?

Tristea iruditzen zait pandemia etorri behar izatea gure artean saretzeko, baina, tira, denetik atera behar da zerbait positiboa. eta egoera honetatik hori, batu egin garela, eta ez da gutxi.

Teknikariak izeneko elkarte da horietako bat, sindikatu bilakatze-ko asmoa duena. Zer deritzozu?

Elkarte moduan teknikariok elkartzea ondo ikusten dut, beharrezkoa da elkarrekin indarra egiteko, baina zalantza dut sindikatu baten beharra dagoen, badaude-eta beste hainbat.

Zuzeneko emanaldietako soinu teknikari lanak ere egiten dituzu. Zelan duzu agenda?

Bertan behera geratu dira, iraillekoak izan ezik; estudioko lanak izango ditut, bereziki, udan.

Zer esango zenieke kultura-zaleei? Pazientzia izateko, helduko direla kontzertuak zutik gozatzeko garaiak.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko ekaineko sariak!

Chromecast

Parte hartzeko sariaren izena: Chromecast



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. **ARRIKUTZ**
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz OHARTU KOBAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. www.harremandenda.org
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA
"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.
Parte-hartzeleien artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalik Goiena Komunikazio Zerbitzuen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu bilera honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea zango duzu datuaitan sartzea, hark zuzentzeko edo ezabatatzeko, helbide honetara idatziz: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

TARTUFO JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkaria Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeak: Ekainaren 23a arte

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



ESKAITZA BEREZIA!!

Ekainetik abendurako bazkide: 30€
Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denak irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Zarautz. Etxebizitza ematen da errentan, hamabostaldika, uda sasoirako, San Pelaio auzoan. Bi logela eta bi bainugelarekin. Iggogailua. Balkoiarekin. Dena kanpoaldera begira. Garajea barne. 685 72 23 75 (Nerea)

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Familia txiki batendako moduko etxebizitza behar dugu errentan, erdigunean. Telefonoa: 680 87 38 66

Bergara. Etxebizitza bila nabil Bergaran, bi edo hiru logelakoa. Emakumea naiz, haur batekin. Erdigunean nahiago dut, baina zabalik nago zonalde guztietara. Telefonoa: 666 07 42 98

Debagoiena. Errentan hartzeko baserri bila gabilta bailaran. Telefonoa: 665 71 19 71

Eskoriatza. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Ahal bada, Eskoriatzan; baina bailarako beste herriren baten ere izan daiteke. 651 64 55 05 (Beatriz)

105. ETXEAK OSATU

Bergara. Errentan hartzeko libre dagoen gela baten bila nabil. 642 96 68 82

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakume nagusi bat etxean bertan bizi izaten zaiatzeko neska bat behar dugu. Derrigorrezkoa da Soziosanitario titulua eta legezko agiriak izatea. 620 36 87 60 edo 615 70 95 04

Zaintza Bergaran. Emakume euskaldun bat behar da irailetik aurrera, goizetan, umeak zaindu eta etxeko lanak egiten laguntzeko. 605 70 83 93

402. ESKAERAK

Aretxabaleta eta inguruak. Magisteritzako ikasle arduratsua eta esperientziaduna, udan zehar haurrak zaindu eta hauekin ekintza ezberdinek egiteko prest. Intere-

satuok deitu zenbaki honetara: 688 62 96 15

Arrasate eta inguruak. Neska gazte euskalduna udan haurrak zaintzeko prest. Deitu edo Whatsapp bidez idatzi: 693 40 89 93 edo 943 79 73 82

Bergara eta inguruak. Pertsona nagusi eta umeen zaintzan edo lokal, bulego eta etxeren garbiketara lanetan jarduteko prest nago. 610 34 97 88

Bergara. Emakume euskalduna gertu arratsaldetan zaindu lanak egiteko. Soziosanitario titulua daukat. 656 74 78 43 (Mari Carmen)

Bergara. Lan bila nabil, garbiketara lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. 666 07 42 98

Bergara. Lan bila nabil, orduka. Pertsona helduak zein umeak zaintzeko edota garbiketara lanetarako. Cecilia: 602 65 07 72

Bergara. Lan bila nabil, orduka. Pertsona helduak zein umeak zaintzeko edota garbiketara lanetarako. Telefonoa: (Consuelo) 643 59 76 06

Bergara. Magisteritza ikasten ari den 18 urte neska naiz eta umeak zaintzeko gertu nago. Telefonoa: 644 15 23 40

Bergaran, umeak zaintzeko prest. Neska euskaldun arduratsua prest udan umeak zaintzeko. Esperientzia dut eta magisteritzako hirugarren maila bkatu dut. Deitu edo WhatsApp bidez idatzi: 688 84 99 79 edo 610 40 43 48

Debagoiena. 15 urte baino gehiagoko esperientzia daukan emakumea nagusiak zaintzeko eta garbiketara egiteko gertu. Soziosanitario titulua daukat eta lanean berehala hasteko prestutasuna. 651 02 03 14

Debagoiena. Asteburuetan eta astean zehar, egunez, nagusiak edo umeak zaintzen zein garbiketara lan egiteko. Legezko agiriak eta lane-

raکو titulazioa daukat. 662 02 45 80

Debagoiena. Esperientzia duen neska arduratsua udan haurrak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko gertu. Orduka eta asteburuetan ere bai. 600 02 74 13

Debagoiena. Esperientzia eta erreferentziak aurkez ditzakeen mutila etxeko garbiketara jarduteko gertu. Foru Aldundiaren ziurtagiria eta autoa daukat. Orduka, asteburuetan eta abar. 662 43 08 54

Debagoiena. Esperientzia duen emakumea pertsona helduak zaindu eta garbiketara egiteko prest. Ikasketak ditut arreta sozio-sanitarioa eta etxeko lanetan. 642 96 68 82

Debagoiena. Garbiketara eta zaintza lanak egiteko gertu nago. Autoa daukat. 605 63 83 40

Debagoiena. Hainbat lanetan jarduteko prest nago: garbiketara lanak, pertsona nagusi eta umeen zaintza. Orduka, aste barruan edo asteburuetan. Esperientzia handia daukat. 631 95 04 42

Debagoiena. Igeltsero, harakin, garbitzaile, lanean jarduteko prest dagoen gizona naiz. Telefonoa: 666 10 15 58

Debagoiena. Mutila atari, elkarte eta abarren garbiketara lanak egiteko gertu. Esperientzia. Telefonoa: 665 68 41 65

Debagoiena. Mutila gertu orduka etxeko garbiketara egiteko. Telefonoa: 643 14 38 75

Debagoiena. Mutila gertu orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta garbiketara egitean, zerbitzari moduan eta abar. 638 85 43 36

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen, edo bulego, atari eta abarrak garbitzen eta sukalde laguntzaile moduan lan egiteko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 663 40 92 67

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen, garbiketara eta abarren lan egiteko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientzia dut. Telefonoa: 612 49 24 50 (Erica)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egiteko. 688 74 00 14

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago. Soziosanitario titulazioa eta beharrezko legezko agiri guztiak daukat. Telefonoa: 631 12 51 27

Debagoiena. Nagusiak zaintzen etxean bertan bizi izaten edo orduka-edo nekazaritza eta baserriko lanetan aritzeko gertu nago. Telefonoa: 632 46 98 56

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketara lan egiteko. Titulazioa eta esperientzia daukat. Egun osoz, erdiz zein gauzez. 612 20 35 71

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egiteko nuke,

orduka edo etxean bertan bizi izaten. Esperientzia handia eta soziosanitario titulazioa daukat. Intere-satuok deitu zenbaki honetara: 632 09 71 40

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egiteko nuke.

Debagoiena. Neska gertu arratsaldetan nagusiak zaintzen lan egiteko. Titulazioa daukat eta baita eskarmentua ere. Autoarekin. 600 00 51 60

Debagoiena. Neska gertu orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta garbiketara egitean, zerbitzari moduan eta abar. 654 11 15 14

Debagoiena. Soziosanitario titulazioa daukan mutila nagusiak zaintzeko edo atariak garbitzeko gertu. Orduka eta etxean bertan bizi izaten. Telefonoa: 643 73 62 36

Debagoiena. Umeak eta nagusiak zaintzen eta garbiketara edo etxeko la-

netan aritzeko gertu nago. 602 89 74 56

Umeak zaindu Bergaran. Neska gazte euskalduna udan haurrak zaintzeko prest. Lehen Hezkuntzan graduatua. 663 70 01 15

Umeen zaintza Bergaran. Neska gazte euskalduna umeak zaintzeko prest. Deitu edo Whatsapp idatzi: 686 35 04 12 edo 635 84 47 77

6. MOTORRA

601. SALDU

Motorra salgai. Kymco Agility 125, zuria. 6.800 kilometro. 2017 urtekoa. 1.800 euro. Egoera oso onean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 646 46 10 13

8. DENETARIK

802. EROSI

Bizikleta. Umeendako moduko 20 hazbeteko mendiko bizikleta erosiko nuke. Eskerrik asko. Telefonoa: 635 20 18 56

HILETA



Teresita Fernandez de Arroyabe Pagoaga

Ignacio Aramburuzabalaren alarguna



2020ko apirilaren 28an hil zen, 93 urte zituela.

Seme-alabak: Juan Ignacio eta Nieves Velez, Maria Angeles. Bilobak: Eider, Iñar eta Iñaki. Birbiloba: Elai. Anai-arrebak: Angelita (†), Maribru (†), Jose (†), Konbita, Paco (†), Jesus, Juanito, Angel. Ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren aldeko hileta-elizkizuna ekainaren 24an, eguaztana, izango da, 19:00etan, Eskoriatzako San Pedro parrokian. Oharrak: eliza barruan maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango da. Edukiera 210 pertsonatan dago mugatua.

Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerririk asko. Eskoriatzan, 2020ko ekainaren 19an.

MEZA



Argi Osa Alzibar

2020ko martxoaren 15ean hil zen, 84 urte zituela.

Haren aldeko meza gaur, egubakoitza, ekainak 19, izango da, 18:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerririk asko.

Pertsonalki ezinezkoa zaigunez, familiar leho hauen bitartez eskertu nahi dizkizue jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak.

Bergaran, 2020ko ekainaren 19an.

ESKER ONA



Luis Ugarteburu Aranbarri



Ziorkakua jaiotzez Hara zizuten ekarri Gaztarotik zeneukan Ikerketarako egarri Komunikabideetan Berritzaile izugarri Goiengan laguntzailea ETBren miresgarri

Gastronomian doktore Bikain ta liluragari Familietan urtero Eskainiz janari barri Mojategin ume eta Nagusi artean lokarri Asko maite zaituguz, Luis Ugarteburu Aranbarri.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi diguzuen guztiok.

Ilobak: Olatz, Danel, Josune, Edurne, Ander, Jagoba, Amaia, Aimar eta luk. Arrasaten, 2020ko ekainaren 19an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 19 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Zapata, 20 ALBERTO AZKOGA: Ferrerías kalea / 943 79 15 15
Domeka, 21 M. FCA. AZKOGA: Iturriz 17 / 943 79 79 99
Astelehena, 22 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Martitzena, 23 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Eguaztana, 24 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Eguena, 25 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 19 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 1
Zapata, 20 URRITIKOETXEA: Orkondo plaza 4 / 943 76 11 7
Domeka, 21 URRITIKOETXEA: Orkondo plaza 4 / 943 76 11 7
Astelehena, 22 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 23 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguaztana, 24 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Eguena, 25 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

ORATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 19 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapata, 20 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 21 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 22 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 1
Martitzena, 23 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 1
Eguaztana, 24 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 25 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
2020ko abuztuaren 31ra arte:
RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

BERGARA GAUZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
2019 osoan:
OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Horrik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

ROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA: ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Lizaino, 62 m², 3 logela, igogailua, berrituta, bitarteko sartzeko. 165.000 €.
- Boli, 183 m², 3 logela, igogailua, berrituta, bitarteko sartzeko. 340.000 €.
- Sanenonabari, 75 m², 2 logela, parkinga, txakola, bitarteko sartzeko. 175.000 €.
- Zubikure, 63 m², 2 logela, txakola, igogailua, bitarteko sartzeko. 95.000 €.
- Itorra, (Liburgazalea) 59 m², 3 logela, txakola. 65.000 €.
- Orduka, 72 m², 3 logela, berrituta, bitarteko sartzeko. 100.000 €.
- Lizaino, (San Lorenzo) 43 m², 2 logela, txakola. 151.000 €.
- A. Fleming, (Iparragirre) 40 m², 2 logela, txakola, berrituta. 30.700m². 140.000 €.
- Abuadego, (Euzko) 340 m², txakola, berrituta, bitarteko sartzeko. 350.000 €.
- Rozarte, 70 m², 3 logela, bitarteko sartzeko. Garaia osatzen. 129.500 €.
- Zubiete, 70 m², 2 logela, berrituta, bitarteko sartzeko. 156.253 €.
- Artekale, 180 m² duplex, 4 logela, igogailua. Bitarteko sartzeko. 373.500 €.
- Boli, 65 m², txakola, igogailua, bitarteko sartzeko. 139.000 €.
- San Antonio, 76 m², berrituta, igogailua jakesen kustrera. 99.000 €.
- Itar Pasaolako, 53 m², igogailua, berrituta, bitarteko sartzeko. 160.000 €.
- Zubikure, 60 m², 2 logela, berrituta, txakola. 75.000 €.
- Zubikete, 89 m², 2 logela, igogailua, berrituta, bitarteko sartzeko. 130.000 €.
- Mediako, 75 m², 2 logela, bitarteko sartzeko. 169.000 €.
- Martika, 40 m², 2 logela, igogailua, bitarteko sartzeko. 130.000 €.
- Ibargarai, 54 m², 2 logela, igogailua. Bitarteko sartzeko. Garaia 2 osatzen. 216.000 €.
- Askarretu, 40 m², 2 logela, txakola, bitarteko sartzeko. 100.000 €.
- Zubiete, 70 m², 3 logela, bitarteko sartzeko, eguzkihoia. 114.192 €.
- Zubikete, 54 m², 3 logela, 2 txakola, bitarteko sartzeko. 90.000 €.
- Orduka, 79 m², 3 logela, igogailua. Askara oso. 70.000 €.
- Orduka, 75 m², 3 logela, txakola, bitarteko sartzeko. 63.000 €.
- Fraizkazarri, 100 m², 3 logela, igogailua. 198.000 €.
- Martitzena, 96 m², 4 logela, berrituta, igogailua. 138.500 €.
- Fraizkazarri, 100 m², 4 logela, txakola, igogailua. 180.000 €.
- Biakozale, 130 m², 4 logela, igogailua, txakola. 270.000 €.
- Zubikure, 60 m², 2 logela, bitarteko sartzeko. 65.000 €.
- Mediako, 80 m², berrituta, askara oso. 40.000 €.

UBERA:

- Bosaren eta 15 hektaroko lursaila (pixua, zelaiak) 340.000 €.

ANTZUOLA:

- Buzin zuri, 54 m², 2 logela, igogailua. Garaia prezioan sartzeko. 130.000 €.
- Itorra, 77 m², 2 logela, igogailua, txakola. Bitarteko sartzeko. 115.000 €.
- Errekalde, 90 m², 3 logela, igogailua, bitarteko sartzeko. 135.000 €.
- Biakozale, 60 m², 2 logela, berrituta. Bitarteko sartzeko. 129.000 €.
- Errekalde, 70 m², 2-3 logela, igogailua, bitarteko sartzeko. 125.000 €.
- Kalebarre, 75 m² — 77m². Berrituta. 61.000 €.
- Kalgorri, 80 m², 1go pixua 40.000 € - 2. pixua + garajea 70.000 €. Berrituta.
- Errekalde, 61 m², 3 logela, igogailua, berrituta. 165.000 €.

ELGETA:

- San Rikio, duplex, 83 m², berrituta, bitarteko sartzeko. 190.000 €.

URTEURRENA

Rosita Agirre Larrañaga



2019ko martxoaren 20an hil zen, 71 urte zituela.

Hitzez esan ezin dizuguna bihotzez esaten dizugu, maite zaitugu!

—

Urteurreneko meza ekainaren 20an, zapatuan, Oñatiko San Migel parrokokan izango da, 19:00etan.

Aurrez, eskerrak elizkizunera fango zarainoiri, etxequon izenian. Oñatin, 2020ko ekainaren 19an.

URTEURRENA

Jesus Olaizola Iruretagoyena



2019ko maiatzaren 10ean hil zen, 85 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan, ekainaren 21ean, izango da, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokokan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2020ko ekainaren 19an.

URTEURRENA

Rosa Mari Pildain Elkorobarrutia



2019ko apirilaren 15ean hil zen, 63 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan, ekainaren 21ean, izango da, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokokan.

—

Urtea pasa den arren ez da egunik zutaz oroitzen ez garenik.

Zure familia.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2020ko ekainaren 19an.

URTEURRENA

Rikardo Larrañaga Retolaza



2019ko ekainaren 10ean hil zen, 72 urte zituela.

Landarea goizegi zitzaigun ihartu, baina haren hazia gugan da indartu.


—

Urteurren meza domekan, ekainaren 21ean, izango da, 11:00etan, Angiozarko San Migel parrokokan.

Aldez aurretik, eskerrak asko elizkizunetara etorriko zaretenoi. Bergaran (Angiozar), 2020ko ekainaren 19an.

URTEURRENA

Anselmo Gomez Rodriguez



2019ko ekainaren 18an hil zen, 69 urte zituela.

Beti egongo zara gure bihotzean.

Bergaran, 2020ko ekainaren 19an.

URTEURRENA



Ignacio Garitano Manurga



2019ko maiatzaren 26an hil zen, 80 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 21ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokokan.

—

Urtea pasa da eta beste hainbat pasako dira, baina guretzat ez da egunik zutaz oroitzen ez garenik.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrak asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2020ko ekainaren 19an.

OROIGARRIA

Luis Ugarteburu Aranbarri

(Goienako laguntzailea)




2020ko ekainaren 14an hil zen, 59 urte zituela.

Eskerrak asko, Luis, laguntzeko prest egotearren beti.




Arrasaten, 2020ko ekainaren 19an.

OROIGARRIA




Blanka Mendiadua Elorza

(Aramaioiko bake epailea)




2020ko ekainaren 10ean hil zen, 72 urte zituela.

Aramaioiko herriaren alde egin duzun lana bihotzez eskertuz.




Aramaion, 2020ko ekainaren 19an.

OROIGARRIA




Blanka Mendiadua Elorza

(San Martin eskolako irakasle ohia)



2020ko ekainaren 10ean hil zen, 72 urte zituela.

San Martin Eskolako hezkuntza komunitateak familiarekin bat egiten du bere saminean.



Aramaion, 2020ko ekainaren 19an.

OROIGARRIA

Luis Ugarteburu Aranbarri




2020ko ekainaren 14an hil zen, 59 urte zituela.


Eskerrak asko elkarrekin egin dugun bidean konpartitu dugunagatik. Bizipen guztiak gurekin gelditzen dira. Bidai on, 'Felipe'!

Zure kuadrilla.
Arrasaten, 2020ko ekainaren 19an.

OROIGARRIA



Blanka Mendiadua Elorza



2020ko ekainaren 10ean hil zen, 72 urte zituela.

Beti behar zuenari laguntzen eta bere ingurua poztasunez alaitzen.

Zure familia.
Aramaion, 2020ko ekainaren 19an.

BABESLEA

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Momentu zail hauetan, lankideok, Jonak, Ibanek, Mariok eta Maribik, sensibilitate eta maitasunarekin lan egingo dugu Zure senideak ahalik eta ondoen agurtuko ditugu. Beti izan dugun lan egiteko eran.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

'HEMEN DEBAGOIENA' ARRASATETIK

'Hemen Debagoiena' Martitzena, 21:30



GOIENA

SAN JUAN BEPERA ZUZENEAN ARRASATETIK

'Jaiak' Martitzena, 22:30

EGUBAKOITZA, 19

08:00 Txanbariak
08:30 Kantari Arrasate 9
09:00 Kantari Arrasate 8
09:30 Kantari Oñati 3
10:00 Hemen Debagoiena
11:00 Eskulanak ebetetik
11:30 Hala Bazan
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Kantari Oñati 3
13:30 Kantari Arrasate 10
14:00 Hemen Debagoiena
15:00 Albisteak
15:30 Kantari Arrasate 9
16:00 Albisteak
16:30 Osoa sukaldetan
17:00 Albisteak
17:30 Adinberri 18
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Jaiak: San Juanak 2019
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Hala Bazan
21:30 Ebetetik plazara
22:00 Hemen Debagoiena
22:45 Albisteak
23:00 Jaiak: San Juanak 2019

ZAPATUA, 20

09:00 Kantari Oñati 7
09:30 Kantari Oñati 6
10:00 Kantari Oñati 8
10:30 Ebetetik plazara
11:30 Osoa sukaldetan
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Astearen errepasoa
13:30 Elkarrizketa: Sustrai Colina
14:00 Ebetetik plazara
14:30 Hala Bazan
15:00 Hemen Debagoiena
16:00 Jaiak: San Juanak 2019
17:00 Hala Bazan
17:30 Adinberri 19
18:00 Ebetetik plazara
18:30 Elkarrizketa: Sustrai Colina
19:00 Hemen Debagoiena
20:00 Astearen errepasoa
20:30 Osoa sukaldetan
21:00 Hemen Debagoiena
22:00 Jaiak: San Juanak 2019
23:00 Hemen Debagoiena

DOMEKA, 21

08:00 Ebetetik plazara
08:30 Hala Bazan
09:00 Txanbariak
09:30 Kantari Oñati 6
10:00 Kantari Oñati 7
10:30 Kantari Oñati 8
11:00 Hemen Debagoiena
12:00 Osoa sukaldetan
12:30 Hala Bazan
13:00 Astearen errepasoa
13:30 Elkarrizketa: Sustrai Colina
14:00 Ebetetik plazara
14:30 Hala Bazan
15:00 Hemen Debagoiena
16:00 Kantari Oñati 6
16:30 Kantari Oñati 8
17:00 Hemen Debagoiena
18:00 Osoa sukaldetan
18:30 Astearen errepasoa
19:00 Hemen Debagoiena
20:00 Elkarrizketa: Sustrai Colina
20:30 Hala Bazan
21:00 Hemen Debagoiena
22:00 Astearen errepasoa
23:00 Jaiak: San Juanak 2019

EGUBAKOITZA ETA ZAPATUA

SAN JUAN JAIK 90EKO HAMARKADAN

'Hala Bazan'

Egubakoitzean, 21:00etan; eta domekan, 14:30etan eta 17:00etan

EGUBAKOITZA, 19

KOLDO ELEIZALDE SARI BANAKETA

21:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 24



GOIENA

ILASKI SERRANORI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa'

21:30/23:30

EGUNERO

ELKARRIZKETA ETA ERREPORTAJEAK

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00

TXUTXU-MUTXUAK



1



3



2



4

Kontatu, kontatu!

Badakazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

1. Entrenamendua, elkarrekin

Astelehenean itzuli ziren Bergara kirol elkarteko futbol saileko jokalariek entrenamenduetara. Antzuolako eta Bergarako emakumezko infantilek elkarrekin egiten zuten saioa, Ipintzan, astelehenean. Martitzenean, Eztalan entrenatu ziren. Segurtasun neurriak mantenduz, aldagelak erabiltzea debekatu daukate jokalariek eta entrenatzaileek.

2. Elkartasun kilometroak egiten

Hainbat oñatiarrek parte hartu dute Sarek antolatutako Izan Bidea ekimenean. Bizikletan, korrikan, oinez eta patinetan lau ibilbide ezberdin egin zituzten parte-hartzaileek aurreko zapatuan. Ekimen honen helburua da Euskal Herriak duen biztanle bakoitzeko kilometro bat egitea. Hain justu ere, 3.127.326 kilometro.

3. Ipuin magikoekin gozaten

Kultura gosez daude Aretxabaletako umeak, eta egubakoitzean ere ez zuten hutsik egin Bihar Txotxongilo taldearen ikuskizunean. Hiru ipuin kontatu zituzten, eta horietan, sorginak, herensugeak, laminak, loreak, tximeletak eta nahi duenean dariola jartzen den iturria ezagutzeko aukera izan zuten Iturrigorria joandakoek.

4. Corpus Eguneko kontzertua

Oñatiko Udala Musika Bandak eta Aita Madina Txistulari Bandak kontzertu berezia egin zuten Lazarragako lorategian. Banakako piezak jo ostean, elkarrekin interpretatu zuten *Corpus eguneko zortzikoa* pieza. Meza nagusiaren osteko emanaldian hainbat herritar egon ziren musika taldeen piezak entzuten.

ZORION AGURRAK



ARAMAIO
Kerman eta Amets Garcia Zubia
Ekainaren 25ean, 6 urte. Zorionak, bikote! Amamaren eta aittaitaren partetik, ondo-ondo pasatu!



BERGARA
Garazi Eizmendi eta Idoia Bardezi
Ekainaren 24an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako. Ilargira eta bueltan maite zaituztegu. Mila muxu erraldoi, batez ere lhintzen partetik.



BERGARA
Marije Orbea
Ekainaren 22an, 65 urte. Zorionak, *guapetona*, eta urte askotarako. Ondo pasatu zure eguna. Muxu potolo bat.




BERGARA
Malen Igarza Sotil
Ekainaren 22an, 2 urte. Zorionak, Malen! Ondo pasatu zure eguna! Muxu asko familiako partetik!



BERGARA
Maite Santxo
Ekainaren 22an, 19 urte. Zorionak, printzesa! Ondo ospatu zure eguna. Asko maite zaitugu. Lazkano familiaren partetik.



OÑATI
Iker Arenaza Arriaran
Ekainaren 21ean, 5 urte. Zorionak, Iker! Edero ospatuko zure eguna! Patxo handixak zuretako!



ESKORIATZA
Unax Aramendi Altuna
Ekainaren 21ean, 9 urte. Zorionak, Unax! Primeran pasatu zure eguna eta topera disfrutat. Patxo potolo bat etxeko guztien partetik eta segi holako alai eta jatorra izaten. Asko maite zaitugu! Mua!



ARRASATE
Oinatz Urrestarazu Argarate
Ekainaren 21ean, 4 urte. Zorionak, politx hori! Lau patxo potolo, etxeko danon partetik.



BERGARA
Yasmina Moreno
Ekainaren 21ean, 30 urte. Zorionak, tia! Aurten urtebetetze berezixa da eta espero dogu super ondo pasatzia. Mila muxu eta besarkada handi bat. Maite zaitugu: Kenar eta Alaine.



ARETXABALETA
Lahe Maria Tercero
Ekainaren 21ean, 4 urte. Zorionak, maitia! Ze handi egiten ari zaren; Lau urte jada! Merezki duzun bezala ospatuko dugu. Anerrek, Unaxek, aitabok eta amabok asko-asko maite zaitugu, lazтана. Beti elkarrekin! Muxu eta besarkada erraldoi bat!



OÑATI
Elene Urzelai Larrañaga
Ekainaren 20an, 6 urte. Zorionak, politx hori! Primeran pasa dezazula zure eguna! Patxo potolo bat maite zaitugun guztien partetik.



ARRASATE
Maddi Loiti Etxeberria
Ekainaren 20an, 3 urte. Zorionak, Madditxo! Oso ondo ospatu zure eguna! Patxo bat eta *txokala*, etxeko danon partetik!



BERGARA
Unai Sotil Domenech
Ekainaren 19an, 8 urte. Zorionak, maitxe! Zortzi urte! Patxo potolo bat familiaren partetik. Bereziki Aratz, Sara eta Malen!



BERGARA
Ekaitz Elkoro Urzelai
Ekainaren 19an, 8 urte. Zorionak, maitia. Ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo handixak, etxeko danon partetik. Laster elkartuko gare danok eta ospakizun ederra ingou.



ARETXABALETA
Angelika, Luisa eta Hitzeder
Ekainaren 19an, Urtebetetzea. Zorionak, hirukote! Amonak eta amamak 80 urte eta Hitzederrek, 7. Oso egun berezixa da eta familia osoa zuekin egongo gara. Muxu handi-handi bat bakoitzari!




BERGARA
Lur Mujica Catalan
Ekainaren 19an, 7 urte. Zorionak, Lur! Patxo potolo bat, familia osoaren partetik!



BERGARA
Unai Zangitu Garmendia
Ekainaren 18an, 6 urte. Zorionak, txapelkun! Egun eder bat pasatu. Muxu potolo bat, familia osoaren eta lagunaren partetik!



BERGARA
Nora Gonzalez
Ekainaren 18an, 5 urte. Zorionak, sorgintxo! Bost urte! Primeran ospatuko! Patxo erraldoi bat etxeko danen, eta bereziki, Markelen partetik!



OÑATI
Maialen Zulueta Vicuña
Ekainaren 18an, 5 urte. Zorionak, maitte! Ondo pasatu zure eguna! Mila patxo!



OÑATI
Jon Garitano Moia
Ekainaren 17an, 7 urte. Zorionak, txapelkun! Segi beti bezain alai eta jator! Izugarri maite zaitugu!



ARETXABALETA
Haitz Eskibel Gomez de Segura
Ekainaren 17an. Zorionak, mutikote! 10 urte pasatu die ixa konturatu barik. Patxo potolok eta hamar belarri tirakada. Maitte zaugu.



ARRASATE
Asier Ezizagirre Ibarzabal
Ekainaren 16an, 42 urte. Zorionak, *Ondarru!* Ondo pasatu zure eguna, eta zorte on! Muxu handi bat 'Distrito 33'-eko bizilagunen partetik.



ARRASATE
Marijo del Olmo Troya
Ekainaren 16an, 56 urte. Zorionak, Marijo! Ondo pasatu zure egunean. Musu asko, zure bizilagunen partetik! Aupa 'Distrito 33'!



ESKORIATZA
Unai Arana Romero
Ekainaren 16an, 11 urte. Zorionak, maitia! Mila kilo zorion etxeko guztien partetik eta primeran ospatu zure eguna. Muxu erraldoi bat! danon partetik!



ARRASATE
Luken Horrillo Tierno
Ekainaren 15ean, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako. Ondo pasatu eguna eta patxo handi bat, familia osoaren partetik.



ARRASATE
Aitor Bollon
Ekainaren 15ean, 42 urte. Zorionak, poeta! Egun zoragarria pasatu, Aitor! Muxu handi bat, 'Distrito 33'-eko bizilagunen partetik!

Urte askotarako!

Zoriontzeko, hiru bide dituzu:

Internet
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak
Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



BERGARA
Iratzi
Ekainaren 14an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Bost urte bete dituzu. Oso ondo pasatu zure egunian. Patxo handi bat danon partetik.



ARRASATE
Esti Lozano
Ekainaren 13an, 41 urte. Zorionak, Esti! Ondo pasatu zure eguna, *guapa!* Musu handi bat, 'Peña Park Deluxe'-ren partetik.



BERGARA
Ane Pescador Cid
Ekainaren 13an, 11 urte. Zorionak, Ane! Oso ondo pasatu eta disfrutat zure egunaz. Patxo handi-handi bat, etxeko danon partetik!



ARRASATE
Alaitz Altube Sedano
Ekainaren 12an, 11 urte. Zorionak, Alaitz! Egun zoragarria pasa dezazula! Muxu handi bat aitaren, amaren eta Malenen partetik!



ARRASATE
Aimar Torres Valdes
Ekainaren 12an, 11 urte. Zorionak, maitia! Muxu handi bat gurasoan, anaiaren, Mikel eta Vanessa izaba-osaben eta lehengusu Hugoren partetik. Maite zaitugu.



ARETXABALETA
Aner Maskarano de San Justo
Ekainaren 12an, 6 urte. Zorionak! Disfrutatu zure eguna, *enano*. Maite zaitugu. Aitaxo, amatxo eta, bereziki, Izaro.



ARRASATE
Janitz Moreno Rozas
Ekainaren 11n, 5 urte. Zorionak, *pitufo!* Asko maite zaitugu. Muxu potolo-potolo bat, Garaziren, aitaxoren, amabokoren eta familiaren danaren partetik.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGURDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus



VOCES NAVARRAS

ARETXABALETA Voces Navarras taldearen emanaldia

Talde nafarrak jota esanguratsuenekin osatutako kontzertua egingo du, 7x7 kultura kalean egitasmoaren baitan. Debalde izango da herritar guztiendako, baina segurtasun distantzia mantentzea ezinbestekoa izango da. Gaur, egubakoitza, Herriko Plazan, 19:00etan.



GOIENA

ARAMAIO Herriko bertsoariaren saioa

Peru Abarrategi, Xabi Igoa, Manex Agirre eta Ane Zuazubiskar oholitza gainean; eta Lierni Altuna gaitzartzaile lanetan.

Iturrieta sagardotegian, 19:00etan.

EGUBAKOITZA 19

OÑATI Maskaren banaketa

Udalak banatuko ditu herritarren artean: 10:00-12:30 eta 17:00-19:30. 70 urtetik gorakoek etxean jasoko dituzte. Foruen plazan.

ARETXABALETA Voces Navarras taldea

Talde nafarrak jotak eskainiko ditu 7x7 kultura kalean egitasmoaren baitan. Herriko Plazan, 19:00etan.

ARRASATE Arrasateko Eskubide Sozialen Kartakoen agerraldia

Askotariko aldarriak egingo dituzte, "pertsonak, herriak eta planeta babestea lehenesteko". Herriko Plazan, 19:00etan.

ESKORIATZA Giza katea: 'Publikoa eta funtsezkoa zaindu, aberastasuna banatuz. Lehenik bizitza!'

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunak deituta egingo dute, Publikoa eta funtsezkoa zaindu, aberastasuna banatuz. Lehenik bizitza! leloarekin. Fernando Eskoriatza plazan, 19:30ean.

ESKORIATZA Zetak taldea 'streaming' bidez

Peio Reparazen proiektu berria ezagutzeko aukera ematen duen kontzertua. Inkernu tabernan, 22:00etan.

OÑATI 'Black is beltza' filma aire zabalean

Fermin Muguruzak zuzendutako animaziozko pelikula ikusteko txartelak hartu behar dira: udal webgunean edo Txokolateixan. Plazako frontoian, 22:30etan.

ZAPATUA 20

ARRASATE 'Arrasate historikoa' bisita gidatua

Herriaren historiaren sekretuak erakutsiko ditu Ugutz Basauri gidariak: 11:00etan euskaraz eta 12:30ean gazteleraz. Izena, aurrez, Arrasate.eus/ezagutu helbidean. Herriko Plazan.

OÑATI 'Arantzazuko altxorren bila' bisita gidatua

Auzoa ezagutzeko aukera. Talde murriztuak direnez, aurrez eman behar da izena: 943-78 28 94 edo arantzazu@gipuzkoanatura.eus. Arantzazuko parketxean, 11:00etan.

BERGARA 'Taula periodikoa' erakusketa

1869an Dimitri Ivanovitxek asmatutako taularen garrantzia ezagutzeko erakusketa ikusgai abuztuaren 31ra arte. Laboratorium museoa, zabalik dagoen orduetan.

ARAMAIO Herriko bertsoariaren saioa

Peru Abarrategi, Xabi Igoa, Manex Agirre eta Ane Zuazubiskar oholitza

gainean; eta Lierni Altuna gaitzartzaile lanetan.

Iturrieta sagardotegian, 19:00etan.

DOMEKA 21

ARETXABALETA Havana 537 taldea

Kubako doinu tradizionalak 7x7 kultura kalean egitasmoaren baitan. Mitarte kalean, 19:00etan.

ASTELEHENA 22

OÑATI Udako fitness ekintzetako izen-ematea

Ekainaren 25a da azken eguna. Zubiko kiroldegian, 09:00etan.

OÑATI Maskaren banaketa

Udalak banatuko ditu herritarren artean: 10:00-12:30 eta 17:00-19:30. 70 urtetik gorakoek etxean jasoko dituzte. Foruen plazan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaraztea

Pentsio duinak eskatzeko. Foruen plaza, 12:00etan.

MARTITZENA

OÑATI Maskaren banaketa

Udalak banatuko ditu herritarren artean: 10:00-12:30 eta 17:00-19:30. 70 urtetik gorakoek etxean jasoko dituzte. Foruen plazan.

EGUAZTENA 24

OÑATI Maskaren banaketa

Udalak banatuko ditu herritarren artean: 10:00-12:30 eta 17:00-19:30. 70 urtetik gorakoek etxean jasoko dituzte. Foruen plazan.

OÑATI 2020ko jai batzordearen deialdia

Sanmiguelak nola ospatu daitezkeen aztertzeko eta adosteko batzarra izango da. Santa Ana antzokian, 18:00etan.

OÑATI '1990eko egoera politikoa' hitzaldia

Floren Aozik egingo du berba Itzaletik Argira zikloaren baitan, Irunberriko gertaeren 30. urteurrenaren harira. Antixena gaztetxean, 19:00etan.

EGUENA 25

OÑATI Udako fitness ekintzetako izen-ematea

Gaur da azken eguna. Zubiko kiroldegian, 09:00etan.

ARETXABALETA 'Zinemaz blai' antzezlan

Zirika Zirkus taldeak zinemari egin dio kuku umeendako ikuskizunean. Zirkuko akrobaziak, dantza eta umorea uztartuko dituzte 7x7 kultura kalean egitasmoaren baitan. Kurtzabarri eskolako kantxan, 19:00etan.

EGUBAKOITZA 26

OÑATI Ganbara eta Hots abesbatzak

Uraren doinuak delako emanaldia egingo dute. Doakoa da, baina txartelak aurrez hartu behar dira udal webgunean edo Txokolateixan. Lazarraga lorategian, 22:00etan.

ZAPATUA 27

ARRASATE 'Arrasateko seme kuttunak' bisita gidatua

Esteban Garibairen eta Pedro Biteriren bizipenak kontatuko ditu Ugutz Basauri gidariak: 11:00etan euskaraz eta 12:30ean gazteleraz. Izena, aurrez, Arrasate.eus/ezagutu helbidean. Herriko Plazan.

OÑATI 'Basoa, lasaitasun iturri' bisita gidatua

Basoak dituen ezaugarriak ezagutu eta zuzenean ikusteko aukera egongo da. Talde murriztuak direnez, aurrez eman behar da izena: 943-78 28 94 edo arantzazu@gipuzkoanatura.eus. Arantzazuko parketxean, 11:00etan.

OÑATI Herrixa Kantuan

Jose de Azpiazu musika eskolaren eskutik, kantu jira egingo dute. Konfinamenduaren osteko lehena izango da. Irekia, herritar guztiendako. Foruen plazan, 12:30ean.

"Zinema-aretoak zabaldu ditugu, baina pelikula berriak falta zaizkigu"

JABIER ETXAGIBEL FLORIDA ETA GORBEIA ZINEMA-ARETOETAKO GERENTEA

Florida eta Gorbeia zinema-aretoak hilaren 12an zabaldu zituzten. Astebete pasa da, eta dagoeneko hasi dira zinemazaleak pelikula ikustera joaten. Donostiako aretoak hilaren 22an zabalduko dituzte. **Astebete pasata, gustura zaudete zinemazaleen erantzunarekin?**

Gustura gaude. Floridako bezeroak zinemazale helduak dira, gehienak 60 urtetik gorakoak, eta horietan ikusi dugu oraindik ere arretaz jokatzen dutela. Ez dakit beldurra den, baina tentuz hasi dira. Dena den, espero genuen %20-30 artean ibiltzea, eta lortu dugu. Aldiz, Gorbeia publikoak gazteagoa da: familiarik, bikoteak, umeak... Han, %50 inguruan ibili gara egunotan.

Hainbat astez itxita egon ondoren, ze aurreikuspen dituzue esku artean?

Zenbaki batzuk markatu ditugu. Hasiara honetan, egoera normal batean izango genukeen publikoaren %20-30 artean egon gurako genuke. Ostera, uztail bukaera eta abuztuaren, %50era heldu nahi dugu. Urtea bukatzerako, publikoaren %90-95 berreskuratu gurako genuke. Pausoz pauso joango gara.

Susperraldi progresiboa izango da, orduan.

Hala beharko du. Izan ere, aretoak zabaldu arren, beste arazo bat daukagu esku artean: estreinatzeke pelikula berrien falta. Produzioak egiten diren lekuetako merkatuak –New York, Los Angeles, Londres, San Frantzisko...– geldi daude. Hortaz, aurrekontu handiko pelikulen estreinaldiak atzeratu egin dira. Normalean, halako filmak mundu mailan estreinatzen dira aldi berean; eta orain, ez dago horrela egiterik. Hortaz, zinema-aretoak zabalik ditugu, baina estreinatzeke pelikula falta zaizkigu. Eta horrek, nolabait baldintzatu egiten ditu gure aurreikuspenak. Bereziki, uda partean, publiko gaztearendako



JABIER ETXAGIBEL

pelikula asko estreinatzen dira. Aurtun, beste modu batera izango da.

Orduan, zein da zuen eskaintza?

Alde batetik, konfinamenduaren aurretik genituen pelikula berreskuratu ditugu: *Invisibles*, *Parásitos*, *Onward*... Eta, beste alde batetik, estreinaldia *streaming* bidez egin eta oihartzun handirik lortu ez zuten goi mailako pelikula daude: *Cartas a Roxane* eta *Los profesores de Saint-Denis*, besteak beste. Bestalde, margolarien gaineko dokumentalak ematen gabiltza, eta aurrez grabatutako opera entzutetsuenen emanaldiak ere bai. Segurtasun distantziak jarraituz, aretoak bete ahal izateko estrategia ezberdinak dira.

Gelak, musukoak, eskularruak... eguneroko osagarri bilakatu dira. Zuen aretoetan ere bai.

Noski. Segurtasuna bermatzea da gure balio handiena. Gurera datozen zinemazaleak seguru sentiarazi behar ditugu.

"URTEA BUKATZERAKO, PUBLIKOAREN %90-95 BERRESKURATU GURAKO GENUKE"

Floridara edo Gorbeia doan horrek metro eta erdiko distantzia soziala gorde behar du bakarrik. Gainerakoa guk emango diogu kit batean: bi hidroalkohol poltsatxo, musukoa, eskularruak eta buru-euskarrirako babesgarri bat. Ikusleen segurtasuna bermatuta, aretoarena berarena ere asko zaintzen dugu: jarlekuak, ikusleen zapatak, komunak, sarrerako gunea... Antolaketa eredu goitik behera aldatu behar izan dugu, baina ikusi dugu bezeroak asko eskertzen dituela neurri horiek. Seguru sentiarazi gura ditugu, eta seguru sentitzen direla esaten digute.

Oro har, nola eragin dizue koronabirusak zinemagintza munduan diharduzuenoi?

Gure kontabilitate-urtea apirilaren 30etik maiatzaren 1era artekoa da. Hortaz, oraingo geldialdia aintzat hartuta ere urtea ona izango da. *Piratea* gainditu ostean, azken hamar urteetan gorantz goaz. Dena den, egoera ezegonkorra da arlo guztietan, baita gurean ere.

"GURERA DATOZENEI SEGURTASUN KITA EMANGO DIEGU: GELA, MUSUKOA ETA ESKULARRUAK"

ZINEMA

GASTEIZ

GORBEIA

Sonic, la película
Egubakoitzetik eguenera: 17:15.

The gentlemen.
Los señores de la mafia
Egubakoitzetik eguenera: 17:20, 20:05.

Parásitos
Egubakoitzetik eguenera: 19:30.

El hombre invisible
Egubakoitzetik eguenera: 17:10, 19:55.

Onward
Egubakoitzetik eguenera: 17:10.

Bloodshot
Egubakoitzetik eguenera: 20:10.

Cartas a Roxane
Egubakoitzetik eguenera: 19:50.

Los profesores de Saint-Denis
Egubakoitzetik eguenera: 17:50, 20:10.

Invisibles
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:10.

Los cazafantasmas (1984)
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:15.

Queen & Slim
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:45.

Cuestion de justicia
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:45.

Spy cat
Egubakoitzetik eguenera: 17:20.

FLORIDA

Sonic, la película
Egunero, astelehena eta martitzena izan ezik: 17:10, 19:45. Astelehena eta martitzena: 17:10.

Adu
Egubakoitzetik eguenera: 17:15, 20:00

Onward
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

Invisibles
Egunero, martitzena eta eguena izan ezik: 17:30, 20:30. Martitzena eta eguena: 17:30.

Una mujer fantástica
Martitzena: 20:30.

Cartas a Roxane
Egubakoitzetik eguenera: 17:15, 19:45.

Los profesores de Saint-Denis
Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 20:25.

Descubriendo a Anne Frank
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:00.

Pavarotti
Egubakoitza, zapatua, domeka, eguaztena eta eguena: 17:20, 19:50. Astelehena eta martitzena: 19:50.

Carmen opera
Eguena: 19:30.

La pasión del arte
Astelehena eta martitzena: 17:30, 20:00.

Cuestion de justicia
Egubakoitzetik eguenera: 20:30.

BOULEVARD

Onward
Egubakoitzetik eguenera: 18:30, 21:20.

Sonic, la película
Egubakoitzetik eguenera: 17:40.

Parásitos
Egunero, martitzena izan ezik: 20:40. Martitzena (jatorrizko bertsioan): 20:40.

Bloodshot
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 21:00.

El hombre invisible
Egunero, martitzena izan ezik: 17:50, 20:50. Martitzena: 17:50. Martitzena (jatorrizko bertsioan): 20:50.

Onward
Egubakoitzetik domekara: 17:30.

Adu
Egubakoitzetik domekara: 20:30. Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:30.

The gentlemen
Egubakoitzetik eguenera: 18:15, 21:10.



Parásitos pelikularen fotograma bat. 'FOTOGRAMAS'



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

Hurrengoetarako

Azken hilabeteetan, asko izan dira, handik eta hemendik, COVID-19ari aurre egiteko jaso eta jasan ditugun aginduak, murrizketak, gomendioak... Hala ere, nire iritzian, oso gutxi sakondu da norberaren sistema immunologikoa, modu autonomoan, indartzeak izan dezakeen garrantzian. Hau da, nola iristen garen osasun-aldetik birusera eta gaixotasunera. Zer garrantzi daukaten horrelakoei aurre egiteko gure elikaduraren kalitateak, egiten dugun jarduera fisikoak, daukagun bizitza-erritmoak, egoera emozionalak...

Azken finean, inoren menpe egon gabe ze baliabide ditugun gutariko bakoitzak, gure buruak eta gorputzak hobeto erantzun diezaioten kutsatzeari eta gaixotasunari. Alderdi hau funtsezkoa da, nire ustetan.

Gobernuengandik, farmazeutikengandik, eta abarrendik libreago bizitzeko daukagun aukera bakarrenetakoa da eta honek sekulako erronka jartzen digu: nola egiten dugun kalitatezko elikadura, jarduera fisikoa eta bestelakoak herritar guztion eskura egoteko.

BUKATZEKO



Barbara Borlais suitzarra eta bi astoak, Aramaion. MAIALEN SANTOS

Aramaiora iritsi da, asto birekin bidaiari dabilela

Pertsona adina bizimodu dago munduan eta horren erakusle da Suitzan sortutako Barbara Borlaisek egindako hautua. Bi astoren konpainiarekin nomada izatea erabaki baitzuen hark. Abenturak Aramaiora ekarri zuen joan den egubakoitzean

Miren Arregi ARAMAIO

Bizimodu nomadaren aldeko hautua egin zuen duela ia lau urte Barbara Borlais suitzarrak. "Lurrarekin eta naturarekin konektatutako bizimodu bat gura nuen". Bidaian, Aramaiora iritsi zen joan den egubakoitzean. Gau bakarra egin zuen han, Eguzkie-rippa auzoko Andramari ermitaren inguruan denda ipinita.

Naturarekin kontaktuan biziko zela erabaki zuen Borlaisek, bai eta bi asto izango zituela lagun. "Batak besteari konpainia egingo ziola pentsatu nuen", dio. Frantzia hartu zituen astoak, animalia horiekiko kultura askoz handiagoa baita Suitzan baino. "Frantziara joan nintzen astoen ingurukoak ikastera". Behin ezagutzak jasota, 2016ko abuztuan

ekin zion bidaiari. Frantzia hegoaldean abiatu zuen abentura eta handik mediterraneora egin zuen. "Bartzelona, Tarragona, Valentzia, Tarifa, Portugalgo hegoaldea... Handik Caceresera egin genuen eta, Donejakue bidea hartuta, Santiago, Fistera eta Kantauriko kostatik hona. Poli-ki egin dugu bidea, soseguz eta geldialdi askorekin, paisaiez

gozatzen". Kanpin denda daroa gainean, eta mendian dagoenean ez du inolako arazorik izaten gaua pasatzeko. "Baserri inguruetan galdetu egiten dut ea denda han jar dezakedan. Eurria bada, aterpe bat bilatzen dut, Aramaion egin dudana bezala".

Herritarrekin eskertuta

Bidean topo egin duen herritarrez hitz onak baino ez ditu. "Denek galdetzen didate ea zerbait behar dudana. Nik, ordea, denetik dudala erantzuten diet". Hain zuzen ere, laguntza eskaintzera joan den horietako bat da Cristina Etxenautia aramaiarra. "Jakinarazi dut emakume bat Aramaiora iritsi berria zela bi astorekin. Agurtzea erabaki dut, eta ea zerbait behar duen galdetzea", azaldu du hark. Etxenautiak gogoan du duela 15 bat urte asto bat lagun zuen bikote norvegiar batek geldialdia egin zuela Aramaion. "Orduko emakumea ote zen galdetu diot neure buruari, baina ez".

Eguna Aramaion egin ostean, Urkulurako bidea hartu zuen suitzarrak, eta Araotzera iritsi dela ere jakina da, auzotar batek sare sozialetan argitaratu duen argazki bati esker. Hemendik Pirinioetara egiteko asmoa du. "Kataluniara iristean pentsatu beharko dut Frantzia aldera egingo dudana edo berriz joango naizena Espainiako hegoaldera".

Jendearekin, naturarekin eta animaliekin konektatzean dago Borlaisen bidaiaren gakoa. Eta horrela jarraituko du, astoekin batera bizitzeko toki bat bilatzen duen arte. "Pirinioetan izan daiteke, edo Suitzan, nor daki, baina mendian bada, hobeto", erantsi du.

EGUZKIAREKIN ILUNTZEN
DIREN LENTEAK

%25 -eko
BEHERAPENA

Transitions
Signature
GEN8



Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS

www.multipopticas.com